ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko otsailaren 15a > Astelehena > VI. urtea > 265. zenbakia > 1,10 euro
www.goiena.net TOKIKOM

"Saharako lasterketa proba soil bat baino askoz ere gehiago da"



**Gaizka Romero** Antxintxiketan Giokela taldeko atleta > 9

**G2a** **Debagoienean Gaztemaniak! zehazteke** > 29

**DEBAGOIENA** **Natura-turismoa eta aisialdia eskaintza berria Arantzazun** > 06

**DEBAGOIENA** **300 herritar batu ziren Aramaion atzo errepide berria eskatzeko** > 06

**KIROLA** **Lehenengo aratusteetako skate txapelketa, arrakastatsua** > 21



**BIZIRIK!** Pop musikako *jainko* Michael Jackson berpiztu egin zuen domekako hotzak -eta Aretxabaletako koadrila batek-. Argazkian Cuatroko *ustezko* kazetaria, elkarrizketa egiten. JOSETXO ARANTZABAL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Auzoak** > 08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-32
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Eskelak** > 38
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

**JAIAK** > ARATUSTEAK

# Hotzak berpiztu egin du Michael Jackson

**LIMUSINAN** Automobil ederrean azaldu zen munduko pop izarra Aretxabaletara; haren dantzekin berotu ziren denak

**ZAPATUAN ERE ONDO** Eskoriatzako, Bergarako eta Arrasateko desfileetan ere ez ziren hotzaren beldur izan > 12-15



Goiena kluba

Abantailaz betetako kluba!



**SIMPLEMENTE DOKUMENTALERAKO SARRERAK**
Otsailaren 26an, Amaia antzokian izango den Jon Anduezaren "Simplemente" dokumentalerako sarrerak.




**ELUYAR-EN JOKOAK**
Joko hauek opari gura baduzu, interneten erosi;
%5eko deskontua *www.elhuyar.org/edizioak* helbidean

- **ZOOZOROA (PAPINA ETA JOKOA)** *www.elhuyar.org/zoozoroa*
- **ARMIXKART** *www.elhuyar.org/armixkart*

# Opari hauetako bat nahi?

Goiena Klubeko bazkide baldin bazara, deitu **943 25 05 05** zenbakira eta

**LORTU SARIETAKO BAT DOAN***

* Deiak jasotzeko azken eguna: otsailaren 22a. Zozketa eguna: otsailaren 23a.

**Egin zaitez bazkide!** | Telefonoa: **943 25 05 05** | e-posta: ***kluba@goiena.com*** | **Kuota 45€**



**HEZKUNTZA** > LANAK

# Irailean Oñatiko Enpresagintza fakultatea estreinatuko dute

**UZTAILEAN TOKIALDATZEA** Obrak aurreikusi bezala doazela eta uztailean lekualdaketa egiteko asmoa dutela esan digu fakultateko dekanoak

**BARNEKO ANTOLAKETA** Lanean daramatzaten 14 hilabeteetan egitura altxatu dute; orain erakina ixten eta barneko antolaketa egiten ari dira

**IKERKETA ZENTROA** Enpresagintza fakultateaz gain, MIK kudeaketarako Ikerketa Zentroa ere hartuko du campus berriak; 45 ikerlarik osatuko dute hori

**MIRIAN BITERI**> BERGARA

Martxa onean doaz Mondragon Unibertsitatea eraikitzen ari den Oñatiko Unibertsitate eta Teknologia Hiriko lanak. Horixe dio Enpresagintza Fakultateko dekano Lander Belokik: "Aparteko intzidentziarik gabe ari dira egiten. Hasieran egindako plangintza eta egutegiaren arabera, epeak betetzen ari dira. Oñatira etortzen direnendako nabarmena da lanak aurreratuta daudela".

Gauzak horrela jarraitu ezkero, ekainean eraikina bukatuta egongo dela azpimarratu digu: "Jarraian, uztailean trasladoa egingo genuke; hau da, orain gauden tokitik eraikin berrira joango ginateke. Eta datorren ikasturtea han hasiko genuke".



Egitura eraiki dute eta honezkero hasi dira hormak ixten. MU

**BARRUKOA EGOKITZEN**

Lanak 2008ko abenduaren amaieran hasi ziren; hortaz, 14 hilabete daramatzate lanean. Belokik azaldu du orain dela 10 egun inguru fakultateko koordinazio taldeak eraikina bisitatu zuela eta orain arte egindakoa ikusteko aukera izan zutela. Hain justu ere, egitura altxatu dutela eta orain eraikina ixten eta barnekoa antolatzen ari direla ikusi zuten; hain justu ere, gelak, bulegoak eta bestelakoak gertatzen ari direla. Elektrizitate eta sare informatikoa instalatzen ere ari dira.

Campus berriak Enpresagintza Fakultatea eta MIK Kudeaketarako Ikerketa Zentroa hartuko ditu. Kokapen berri horrek hiru esparru hartuko ditu: enpresa kudeaketaren esparruko prestakuntza, batetik; etengabeko prestakuntza, bestetik; eta hirugarrenik, ikerketa esparrua MIKen bitartez.

**8.752 METRO**

Belokiren esanetan, "espazioaren baldintzen aldetik, gaur egungo unibertsitatearen eskakizun eta beharretara ez da egokitzen oraingo kokapena; hain justu, hezkuntza, ikerketa eta gradu-ondoko mailan dauzkagun proiektuetara". Horretarako toki gehiago behar dute. Hala, campus berrian 20.000 metro karratuko azalera ari dira egiten; eraikinak 8.752 metro karratu izango ditu.

Eraikinak hiru solairu eta sotoa izango ditu, eta honako hauek hartuko ditu barne: hogei gela inguru prestakuntzarako eta zazpi gela etengabeko prestakuntzarako eta masterretarako, laborategiak ikerketa-jardueretarako, informatikako gelak, hizkuntza-laborategiak, ekitaldi-areto handia, kudeaketa eta administrazio gunea, liburutegia, bilera gelak eta 200 ibilgailurendako aparkalekua.

Ikerketa unitate berriaren gainean ere egin du berba Enpresagintza fakultateko dekanoak. MIK kooperatibak eta Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak, Mondragon taldearen eskutik, elkarlanean martxan jarri duten proiektu horren "garrantzia" nabarmendu du; izan ere Euskal Autonomi Erkidegoko enpresen kudeaketarako ikerketa zentrorik handiena izango da-eta.

**45 IKERLARI**

Belokiren esanetan, "45 ikerlarik osatuko duten ikerketa zentroaz ari gara berba egiten. Gizartera eta bereziki, enpresetara bideratuta dagoen proiektua da, kudeaketa arloko ikerketak hiru lerrotan egingo dituena: ekintzen jarraipena, alde batetik; gestio eredu berriak, bestetik; eta kooperatibismoa, hirugarrenik. Apustu sendoa da unibertsitatearena eta korporazioarena, dena bideratu ahal izateko ikerketa zentro honetatik". MIK elkarteko zuzendari nagusi Aitzor Urtzelaik gidatuko du ikerketa-zentroaren bateraketa eta berregituraketaren prozesu guztia.

Enpresagintza fakultateko dekanoak, azkenik, gogorarazi du campus berria fakultatearen 50. urteurrenaren harira inauguratuko dutela.



Campus berriak izango duen irudia amaituta dagoenean. GOIENKARIA

50. URTEURRENA

## Ekimenez jositako egitaraua gertatu dute

Oñatiko Zientzien Fakultateak 50 urte beteko ditu aurten. Fakultateko dekano Lander Belokik esan digu dagoeneko hasi direla horren gaineko ospakizunak gertatzen eta hainbat ere aurreratu dizkigu. Batetik, fakultatearen izena aldatuko dutela aipatu du. Hain justu, ETEO deitzetik Enpresagintza deitu da hemendik aurrera. Gainera, urtea bereizteko asmoz, zigilu berezia ere egin dutela jakinarazi digu.

Bestetik, Belokik azaldu digu liburu bat osatzen ari direla: "Horretan jasoko ditugu urte guzti hauetan emandako pausuak, egindako lanak eta baita anekdotak ere. Hain zuzen ere, fakultatearen ibilbidearen gaineko errepasoa egingo du". Hitzaldi zikloa ere gertatzen ari dira. Fakultateak gaur egun dituen bi kokapenetan egingo dituzte horiek; Bidasoan eta Oñatin, hain justu.

Bestalde, Belokik jakinarazi digu ikasleei begirako hainbat ekimen ere antolatuko dituztela. Guzti horietaz gain, urteurrenak bi ekitaldi nagusi izango ditu: urri aldera egingo duten eraikin berriaren inaugurazioa eta azaroko jaialdi nagusia.

**AZPIEGITURAK** > MUGIKORTASUNA

# Irailean hiru bidegorri zati berri erabili ahal izango dira gurean

Soraluze-Mekolalde, Bergara-Antzuola eta Eskoriatza-hilerriko lanekin hasi dira

Diputazioak 2,35 milioi eurotik gora bideratuko ditu tarte horiek egiteko

**MIRIAN BITERI** > BERGARA
Urtebetez geldi egon ostean, Debagoienean hasi dira berriro hainbat bidegorritako zatiak egiten. Hain justu, Soraluze-Mekolalde, Bergara-Antzuola eta Eskoriatza-hilerria tarteetan hasi dira langileak egunotan lanean.

Eskoriatzako proiektuaren bidez, herriko iparraldeko eta hegoaldeko bidegorriak lotuko dira, gehiegizko aldaparik gabe. Hilerriaren azpitik doan 200 metroko antzinako trenbide-tunelaz baliatuko da trazatua. Tarte horren luzera txikia da, 300 metro baino ez ditu. Construcciones Mariezcurrena enpresa egiten ari da lan horiek, 797.572 euroren truke. Diputazioaren aurreikuspenen arabera, uztailaren hasierarako amaituko dute.

Soraluze-Mekolalde tarteari dagokionez, zorua egokituko dute eta, Soraluzetik hasita, 4 kilometroko luzera duen zatia argiztatu egingo dute. Proiektuko lanak Campezo Construccion enpresari adjudikatu dizkio Diputazioak. Lanon aurrekontua 876.900 euro da eta irailaren hasierarako horiek amaituta egotea da asmoa.

Bergaratik irten barik, beste tarte bat egokitzen hasi zen joan den astean Dunboa enpresa. Bergara-Antzuola zatiko lehenengo eta bigarren faseko trazatuak 1,52 kilometroko luzera du eta aurrekontua 675.960 euro da. Uztailaren hasierarako bidegorri zati hori funtzionamenduan egotea espero dute.

**LIKIDEZIARIK EZA**
Diputazioko Garapen Iraunkorreko Departamentuko Beatriz Martikorenak bidegorrien lanek izandako atzerapenaz hitz egin digu: "Obrak geldi egon dira likidezia falta egon delako. Lanak esleituta bazeuden ere, ezin izan ditugu hasi dirua lortu arte".

Bestalde, Martikorenak esan digu Oñati-Zubillaga eta Zubillaga-Epele zatien proiektuak dagoeneko eginda daudela eta laster, esleitzeko prozesuarekin hasiko direla. Horren harira, aipatu du aurten adjudikatuko dituztela.



Eskoriatza-hilerria zatiko lanak hasi dituzte egunotan. GOIENKARIA

**EZAUGARRIAK**

> Bergara-Antzuola. Luzera: 1,52 km. Aurrekontua: 675.960 euro. Enpresa: Dumboa. Lanen iraupena: 5 hilabete.

> Soraluze-Mekolalde. Luzera: 4 km. Aurrekontua: 876.900 euro. Enpresa: Campezo. Lanen iraupena: 6,5 hilabete.

> Eskoriatza-hilerria. Luzera: 300 metro. Aurrekontua: 797.572 euro. Enpresa: Mariezcurrena. Lanen iraupena: 5 hilabete.

**EKONOMIA**

## Arcelor: altzairu fabrika itxita oraingoz

"Eskaerak ez du nahikoa gora egin" dio zuzendaritzak

**L.Z./E.M.** > BERGARA
Arcelorrek, momentuz, itxita mantenduko du Bergarako altzairu fabrika. Atzera ere zabaltzeko, eskaerak "modu esanguratsuan" igo beharko liratekeela adierazi du zuzendaritzako kide Gonzalo Urquijok. "Eskaerak gora egin du, baina ez nahikoa", dio zuzendaritzak. Bergarako produkzioa erdira jaitsi ondoren, Debagoieneko produkzioa Zumarragako plantara eraman zuen iaz Arcelorrek, baita lantegiko 70 langileak ere. 2009ko urte amaieran gora egin zuen eskaerak, eta krisiagatik itxitako planta bat baino gehiago zabaldu ditu, atzera ere, Arcelorrek. Bergarakoak eta Galdakaokoak, baina, itxita jarraituko dute, momentuz.

**ELGETAKO FORJANOR**
Bestalde, Elgetako Forjanor enpresaren egoerak zeresana eman du azken asteotan. Orain dela 15 bat urte 80 langile inguru izatera iritsi zen enpresa eta egun 19 langile dira Elgetako fabrikan. Langileak kezkatuta daude etorkizunarekin baina zuzendaritzak ez du inolako adierazpenik egin nahi izan. Langileek Forjanorreko beste egoitzatara, Basaurira edo Villalbara, bidaliko ote diuzten susmoa dute eta dagoeneko hasi dira lehenbiziko mugimenduak ematen.

**POLITIKA** > AZPIEGITURAK

## Aralar "pozik" dago Eusko Jaurlaritzak Debagoieneko tranbiaren alde egin duelako

Tranbia ezartzeko egutegi, plangintza eta txosten tekniko zehatza aurkezteko eskatu dio PSE-EEri

**M.B.** > BERGARA
Aralarrek begi onez jaso ditu Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Idoia Mendiak Debagoieneko tranbiaren inguruan egin dituen azken adierazpenak. Martitzeneko Gobernu Kontseiluaren ondoren egindako prentsaurrekoan tranbiaren alde egin zuen. Horren harira, Aralarko legebiltzarkide Oxel Erostarbek esan du: "Ongietorria ematen diogu Mendiari tranbiaren alde gaudenon artera. Hori horrela, orain espero dugu gobernuak bat egitea Eusko Legebiltzarrean aurkeztu dugun tranbia egiteko legez besteko proposamenarekin, eta proiektuarekin behingoz hastea".

Bestalde, Aralarrek salatu du Mendiaren hitzak ez datozela bat Etxebizitza, Herri-Lan eta Garraio sailburu Iñaki Arriolak esandakoarekin: "Gobernuko bozeramaileak gauza bat esaten duen bitartean Garraio Sailetik beste gauza bat esaten diete Debagoieneko alkateei. Alegia, tranbia alboratzen ez duten arren, bus azkarra lehenesten dutela esaten ari dira". Hori horrela, Aralarrek Legebiltzarreko PSE-EEri eskatu dio "bat egin" dezala Debagoieneko tranbiaren alde aurkeztutako proposamenarekin.

**LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA**
2009ko abenduan aurkeztu zuen Aralarrek legez besteko proposamena Legebiltzarrean. 2010eko ekaina baino lehen tranbia ezartzeko egutegi, plangintza eta txosten tekniko zehatza aurkeztea eskatu zuten. Datozen asteetan erabaki beharko du Legebiltzarrak zer egin proposamenarekin.

**ELKARTASUNA** > HAITI

## Saiatuz taldeak 3.000 kilo jaki batu ditu Haitirako

Otsailaren 27an bazkari solidarioa Arrasateko abadetxean

**E.M.** > ARRASATE
Saiatuz taldeak Haitirako 3.000 kilo jaki batu ditu Haitirako, aurreko asteburuan Eroskiko hipermerkatuan egindako janari bilketan. Zumarragan duten biltegira eraman ondoren, sailkatu egingo dituzte jakiok eta otsailaren 27an kontainerretan sartuko dituzte Santo Domingora bidaltzeko. Hango mojek Haitin dagoen Jacmel hirira eramango dituzte Arrasaten batutako jakiak. Laguntza eman duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie Saiatuz taldeak.

**BAZKARI SOLIDARIOA 27AN**
Otsailaren 27an bazkari solidarioa izango da Arrasateko abadetxean. Txartelak San Joan parrokiako sakristian eskuratu ahal izango dira, mezen ostean, 10 euroren truke. Aurten, Ruandan burutuko duten proiektuaren berri emango dute

KIBUC GURE AMETSA
ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK

SUKALDEETAN ESKAINTZA BEREZIA
BEZEROARI EGOKITUTAKO AURREKONTUAK EGITEN DITUGU.
GREMIOEN KOORDINAZIOA:
- URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA ETA LANGILE PROFESIONALAK.
- BURUAN DUZUN EDOZEIN PROIEKTU EDO ERREFORMA MOTAREN INGURUAN AHOLKATUKO ZAITUGU.




KIBUC
altzari eta osagarriak
Azkenean gure etxean

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81

KIBUC Gure Ametsa
altzari eta osagarriak
www.kibuc.com

>> proiektu eta erreformak >> gremioen koordinaketa >> proiektu eta erreformak >> gremioen koordinaketa >>

**OÑATI** > AIZKORRI ARATZ PARKE NATURALA

# Natura-turismoa eta aisialdia eskaintza berria Arantzazun



Aizkorri Aratz Parke Naturalean asteburuko egonaldiak proposatzen ditu Naturgintzak. GOIENKARIA

Kobak, artzainen bizimodua edo Santutegiaren historia ezagutzeko eskaintza berria

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Arantzazu berritzeko eta sustatzeko prozesuaren barruan, Arantzazun garatuko den turismo eta aisialdi eskaintza diseinatu du Naturgintza Fundazioak. Eta, Oñatiko Udalaren eta Arantzazu Gaur Fundazioaren laguntza izan du fundazio horrek.

Inguru berezi honi nortasuna ematen dioten jarduera bitxienak kontuan izan ditu Naturgintzaren eskaintzak: artzainen kultura batetik; karst-a edota kareharrizko formazioak (kanpokoak zein lurzorupeko haitzuloak) bestetik; eta, azkenik, Arantzazuko Santutegiko historia.

**ASTEBURUKO EGONALDIAK**

Asteburuko egonaldiak egiteko prestatuta dago, baina bisitariek erabateko autonomia izango dute beraien egonaldia nahi duten moduan planifikatzeko. Hiru proposamen aurkeztu dituzte (alboko koadroan dituzue proposamenok); B deiturikoa asteburuko *packa* litzateke eta Santutegia Pello Zabala frantziskotarraren eskutik bisitatzeko aukera dago. Era berean, artzain txakur erakusketa eta Idiazabal gaztaren dastatzea jasotzen ditu.

Naturgintzako iturrien arabera, eskaintzaren prezioari begiratuta, benetan interesgarria da. Tarifa guztiek kalitate-prezio erlazio ezin hobea dute, eta guztiak indarrean egongo dira otsaila eta maiatzaren bitartean, Aste Santuan eta maiatzeko lehen aste bukaeran izan ezik. Deskontuak izango dira bikote, familia eta 15 lagunetik gorako taldeendako.

**BIDEZIDOR BERRIAK**

Horrekin batera, Santutegi inguruko *Larrez larre* (SL-3001) eta *Baserriak, harria eta ura* (PR-3004) izeneko ibilbideak seinaleztatu dituzte dagoeneko. Seinaleztapen berriarekin hemendik aurrera erabiltzaileek orientazioa guztiz bermatuta izango dute. Bi ibilbideen hobekuntzak Gipuzkoako Foru Aldundiari, Oñatiko Udalari eta Arantzazu Gaur Fundazioari esker egin ahal izan dira.

HIRU AUKERA

**> A AUKERA.** Hiru izarreko ostatua eskaintzen da.

**> B AUKERA.** Asteburuko pack-aren egitura du. Arrikrutzeko kobaren bisita, Santutegikoa eta artzainen bizimodua erakusten duen mendi ibilbide tematikoa. Santutegiko asteburuko ostatua eta gosariak barne.

**> C AUKERA.** B aukeran aipatzen diren ekintzak bereizita, bakoitza bere prezioarekin. Gutxienez, 6 lagunez osatutako taldea.

Argibideak: 943 25 10 15.

**ARAMAIO** > AZPIEGITURAK

# Protesta ibiltaria moztutako errepidea dela-eta

300 bat lagun batu ziren domekan; Suñabolueta inguruan behin betirako errepidea egingo dute

**E.M.** > ARAMAIO

*Herriaren eskubidea zabaldu bidea* zioen pankartaren atzean, 300 bat lagunek protesta ibilaldia egin zuten domeka eguerdian, Aramaio eta Arrasate arteko errepidearen itxieraren kontra protesta egiteko. Aramaioko plazatik abiatu eta orain bi aste lurjausia gertatu zen tokiraino joan ziren oinez.

**LUR GEHIAGO JAUSTEKO ARRISKUA**

Asier Agirre Aramaioko alkateak emandako informazioaren arabera, eguenean jakinarazi zioten lur gehiago jausteko arriskua dagoela. Beraz, ezin da errepidea zabaldu ezta inguruan langilerik ibili ere.

Ondorioz, Suñabolueta inguruan, errekaren beste aldean, behin betirako izango den errepidea prestatu behar dute eta lanok egin bitartean, Zabola-Untzillako bidea erabiltzen jarraitu beharko da. Bidearen egokitze lanak aurrera doaz eta laster asfalto berria botako dute segurtasuna bermatzeko.




Hotzari aurre eginez, 300 bat lagun inguruk hartu zuten parte atzoko protesta ekitaldian. E.M.



Cuatrovientos baserriko Luis Zabala, lur-jausiak txikitutako bidea erakusten. JULEN IRIONDO

**Luis Zabala** > Aramaioko Cuatrovientros baserriko ugazaba

# "Bizpahiru urte kostako zaie; baina, azkenean, hau guztia eurena izango da "

MIRIAN BITERI > ARAMAIO

**Dagoeneko bi aste pasa dira Abiadura Handiko Trenaren lanen ondorioz, Aramaio eta Arrasate arteko errepide ondoko mendi magala jausi zenetik. Horren gainean dagoen Cuatrovientos baserriko ugazabei ondorio larriak ekarri dizkie esandako lur-jausiak. Datozen lerroetan egoera berriari zelan moldatzen ari diren eta jaso duten eskaintzaren berri eman dizkigu baserri horretako ugazaba Luis Zabalak.**

**Auto bidezko komunikazioa etenda dago. Zelan moldatu zarete egunotan?**

Baserritik Aramaiora doan bideraino oinez joaten gara. Han uzten dugu autoa, Arrasaterantz joan ahal izateko. Kilometro pasatxoko ibilbidea da, aldapa nahikorekin. Egunero bi bider egiten dugu hori. Bestalde, basotik Aramaiora doan beste bidea, bakarrik erabiltzen dugu emergentzietarako. Dena dela, nik ikusi ditut lur orotako ibilgailuak handik joaten eta hemendik eskatu nahi diot jendeari, bide horretatik ez ibiltzeko, guztiz txikituko dutelako. Neguan gaude eta bidea zaindu beharrean gaude, gorde behar dugu emergentzia kasuetarako. Gu geu oinez gabiltza.

**Denbora asko kenduko dizue horrela ibiltzeak?**

Momentu honetan 24 ordu. Egun dena egoten naiz buruari bueltak ematen, zer egin edo nondik jokatu pentsatzen. Eguraldi txarrarekin, lur-jausiak txikitu duen bidetik ibiltzeko larri gabiltza, lokatzez beteta dago, eta mendiko botak lokatzetan utzi behar ditugu egunen batean. Pentsatu bai baina horrelako enpresa baten kontra, pertsona bat bakarrik, atera kontu zer den.

**Zer da momentu honetan eskatzen duzuena?**

Gesalibarrera doan bidea konpontzea eta hortik autoz ibil gaitezen eskatzen dugu. Bizkor egin beharreko kontua dela uste dugu gainera. Dena dela, susmo txarra hartzen diot nik honi guztiari. Gure bizitza ezinezko egiten saiatzen ari dira, baserritik joan gaitezen. Hemendik bidaltzen bagaituzte, libre ibiliko dira. Hemen gauden bitartean, baina, pertsonak errespetatu beharko dituzte, ezta?

**Zuek, dena dela, ez duzue baserria utzi nahi...**

Hala da. Besteak beste, animaliak ditugulako bertan. Hain justu, zazpi behi buru ditugu baserrian, okelekoak. Eta egunen batean, hauek bera jaitsi beharko ditugu. Biderik ez badigute egiten ezin izango ditugu inora eraman.

Guk, momentu honetan, hemen dugu gure bizimodua eta ez dugu hau uzteko asmorik. Ni erretiratu berri naiz eta normala izango litzateke hainbat urtetan nire baserriaz disfrutatzea; orain arte 12 ordu egon naiz-eta egunero lan egiten. Joan den astean kalean pisu bat eskaini ziguten eta uko egin diogu horri. Baserria martxan dagoela eta martxan jarraitu behar duela erantzun diet.

Beste arazo bat ere badago. Baserria berritu dugula orain dela gutxi. Sukaldea izan ezik, gainerakoa berrituta dago. Urte askotako lana da hori eta hortaz, ez da inoren buruan sartzen hemendik mugitzea.

**Hasierako asmoen arabera, etxea trenaren aldamenean geratuko da, ezta?**

Esan digutena egiten badute tunela pasatuko da etxe azpitik 80 metrora. Baina zoru egonkorrik ez badute topatzen planak aldatuko dituzte. Bideko lur-jausiarekin gertatutako ikusita, arrisku handia dago. Gainera, baserri ondoan egindako zundaketak egin zituztenean esan zidaten material txarra irten zela.

Argi dago azkenean dena kenduko digutela. Bizpahiru urte kostako zaie; baina, azkenean, guztia eurena izango da. Indarra dute eta guk ezin dugu ezer egin. Nik beldurra daukat. Ez digute esaten zer egiten duten baina kalera joateko eskaintza egin digute eta horri susmo txarra hartzen diot. Horren atzean zerbait dago.

**"Neguan gaude eta bidea zaindu beharrean gaude, gorde behar dugu emergentzietarako"**

**"Hemen dago gure bizimodua, eta ez dugu hau uzteko inongo asmorik"**

**"Kalera joateko eskaintza egin digute eta horri susmo txarra hartzen diot"**

etxeko leihotik



**Ubane Madera** > arrasate@goiena.com

## Bikotekide barik, eta pentsioa erdira

Gertuko baten heriotza denondako da gogorra, zeresanik ez dago horren aurrean. Baina duda barik baldintza batzuk halako egoerak gogortu egiten dituzte. Adibidez, diru kontuek.

Gertuko bati pasatutakoa kontatuko dizuet: senarra hil berri zaio, gelditu zaion bakardadea nahikoa ez, eta dagokion pentsioa izugarri jaitsiko zaiola jakin du.

Hasteko, alargun moduan senarraren pentsioaren %51 emango diote bakarrik. Baina hori "gehiegi" izango delakoan-edo, esan diote berak (emakumeak) kotizatutakotik erdia kendu egingo diotela.

Emakume horrek ez du kontratupean lanik egin sekula. Kotizatu duena kotizatu du ezkutuko ekonomian egindako lanetatik dirua apartatu eta kotizazioa ordaintzen. Ba hortik erdia kendu behar diote.

Logika bera jarraituz, bakarrik zortzi urtean lan eginagatik pentsioaren %70 kobratu behar duten politikari horiei ere kendu beharko liekete zerbait baino gehiago, adibidez. Edo soldata "beldurgarriak" dituztenen pentsioak ere txikitu egin beharko lituzkete, besteen egoerarekin "parekatuago" geratzeko.

Ba ez. Halako zerbait egitekotan alargunei (emakumeak, batez ere) eta oro har, langile xumeenei egingo diete. Gizartean gero eta orokorragoa da jokabide hori, gutxien uste duzun horien artean ere bai: ahulenen kontra jotzea.

**"Dagokion pentsioa izugarri jaitsi behar zaio alargun geratu denean"**

**> Erretiroa hartzeko adina 67 urtera arte atzeratzeak ere ahulenengan izango du eragina batez ere; seguru izan pentsio "duina" eskuratzeko nahikoa diru duenak ahalik eta lasterren hartuko duela lanetik erretiroa.**

**> Pentsioen kasuan, oraingoz alderdi politikoek erakutsi dute berdin dela zein kolorekoak diren; EAJrekin edo PSE-EErekin, Euskadin pentsiodunak urtetan dabiltza euren baldintzak hobetzeko protestan; eta guztiok izan behar dugu pentsiodun...**

> HEZKUNTZA

### Iraunkortasuneko liderrak prestatzeko programa abiarazi dute

Gazteak ingurumenaren iraunkortasunerako bidean liderrak izateko prestatzea eta euren gaitasunak garatzeko tresnak ematea du helburu Kutxak martxan jarri duen Ekolider proiektuak. 18 eta 29 urte bitarteko gazteek parte har dezakete. Hain zuzen, garapen iraunkorraren gainean sentsibilizatuta dauden gazteei edo jadanik gizartean nahiz gazte-proiektu desberdinetan konprometituta dauden gazteei zuzenduta dago. Prestakuntza euskaraz eta gazteleraz emango da eta gehienez 30 gaztek parte hartu ahal izango dute. Izenematea da otsailaren 19ra arte.

> HEZKUNTZA

### Beste master bat eskainiko du Huhezik irailean

*Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleanitzetan* izeneko masterra eskainiko du. Masterra euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango da, on line modalitatean. Huhezik profesionalak prestatu nahi ditu gai izan daitezen hezkuntza esparru asko kudeatzeko, ikasleen hezkuntza premiak aurrez ikusteko, ikerkuntza arazoak antzemateko eta gizarte aldakorretara egokitzeko. Beste master bat homologatze bidean ere badihardu: *Zelan garatu eta kudeatu berrikuntza metodologikoko proiektuak hezkuntza erakundeetan*. Ebaluazio agentziek onartuz gero, hiru master ofizial izango ditu.

auzorik auzo

**IBARGOIA** > Aramaioko auzoa da Ibargoia; izenean antzeman daitekeen moduan, Ibarran, herrigunean dagoen auzoa da. Jose Carretero da auzo-alkatea azkeneko bi urteotan. Batez ere, aparkaleku arazoak dituztela dio Carreterok.



Jose Carretero, Ibargoia auzoan. JONE INUNTZIAGA

**Jose Carretero** > Ibargoiako auzo-alkatea

# "Garai batekoekin alderatuta, orain egin dituzten etxeetan gehiago zaindu dute itxura"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

**Jose Carreterok egiten ditu auzo-alkate lanak Ibargoian. Esan digu ez dutela elkarterik, baina beharrik ere ez dutela. Kalean asko ibiltzen da Carretero, eta auzotarrek kalean ematen diote auzoko gorabeheren berri.**

**Nolako auzoa da Ibargoia?**

Esan daiteke Ibargoia kale bat dela; izan ere, azken urteotan asko aldatu da auzoa. Lehen, baserriak zeuden, baina badira urte mordoa etxeak egiten hasi zirena.

Orain, herri erdian dagoen kale bat dela esan daiteke.

**Gainera, babes ofizialeko etxebizitzak egin dira eta kanpotik jendea etorri da.**

Garai baten egin ziren etxeak bost edo sei plantakoak ziren; eta, egia esan, ez zen batere zaindu auzoaren itxura. Orain, beste modu bateko etxeak egin dira eta hobeto daudela esan daiteke.

Babes ofizialeko etxeak joan den urtean eman zituzten; hala, biztanleriak gora egin duela esan daiteke.

**Diozu auzoak duen arazo nagusia "gizentasuna" dela. Azaldu hori.**

Bai, uste dut hori izango dela auzoak hemendik urte batzuetara izango duen arazo nagusia. Hori esaten dut autoa etxe aurrean aparkatzea gura izaten dugulako, tartean nik neuk. Hau da, auzotik 200 metrora aparkalekua egokitu digu Udalak; baina, hala ere, espaloien gainean eta parke gainean aparkatzen dugu autoa.

**Eta zaborrarekin ere berdina gertatzen dela diozu.**

Bai, zaborra botatzera joaten garenean eta edukiontzi bat beteta ikusten badugu, ez gara gauza hurrengo edukiontzira joateko. Han gainean uzten dugu guztia. Uste dut ez dela ezer kostatzen beste edukiontziak nola dauden begiratzea eta zaborra behar den moduan uztea. Esango nuke bi horiek direla auzoak gaur egun dituen arazo nagusiak.

**"Esan behar da Ibargoia auzo kosmopolita dela; atzerritar asko bizi da eta giro ona dago"**

DATUA

**271**

**LAGUN**

Jose Carreterok esan digu 271 lagun bizi direla Ibargoia auzoan; gainera, datua zehaztu du: 149 gizonezkoak dira eta 122 emakumezkoak. Azkenaldian, gora egin du biztanle kopuruak.

**Noiz ospatzen dituzue auzoko jaiak?**

Garai baten, abuztu bukaeran ospatzen zituzten auzoan jaiak; baina dagoeneko galdu egin dira jai horiek eta orain ez da ezer berezirik egiten. Aramaioko jai nagusiak ospatzen ditugu guk.

**Sastiña ermita dago auzoan, eraberritu berria eta ikusteko modukoa.**

Bai, ikusteko modukoa da Sastiña ermita. Gaur egun, eraberrituta dago eta bertan hainbat erakusketa egiten dira.

Bestalde, esan behar dut oso auzo kosmopolita dela Ibargoia: atzerritar asko dago, eta, itxura baten, behintzat, giro polita daukagu auzoan.

**Egun hauetako moduko eguraldiarekin, arazoak izaten dituzue?**

Ez, izotza eginez gero egon daitezke arazoak, baina normala dela uste dut.

**Hortaz, gustura zaudete auzoaren egoerarekin?**

Bai, garai baten baino hobeto dago orain auzoa; garbiagoa, behintzat, bai. Hala ere, hobeto egon zitekeen.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba

OTSAILEKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro



ESAIT-EKO TERMIKO BERDEA ETA BISERA
Bidali KLUBA ESAIT [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
esait



UMEENTZAKO PUZZLEAK
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
Ikastolen Elkartea



SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
LAGUN ARO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET



EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
Bidali KLUBA ZIRA [Bazkidearen izena] 5195 zkra.
EKFB Euskal Selekzioa

SARI NAGUSIA
URTARRILA-MARTXOA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

JOCCA RACLETTE



- Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
- Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

'Masa-komunikaziotik Informazioaren Gizartera. Euskararen bideetan barrena' liburua idatzi dute Aitor Zuberogoitiak eta Lierni Alkortak. Lehenengoa Huheziko irakaslea da, eta bigarrena ikasle ohia. Euskarazko hedabideen inguruan ikuspegi panoramiko globala eta euskarazko hedabideek XIX. mendetik aurrera izan duten bilakaera eskaintzen dute liburuan.

**Aitor Zuberogoitia eta Lierni Alkorta** > Liburuaren egileak

# "Internet guztioi zabaldutako ate bat da, edonork sar dezake informazioa"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

**Interneten jaiotzarekin, eta, mende berriarekin batera, Informazioaren Gizartea gailendu da. Honek funtsezko aldaketak ekarri ditu komunikazioaren munduan. Aldaketa horiek aztertu dituzte Zuberogoitiak eta Alkortak. Gaineratu digute, tokiko hedabideen balioa dela ainguratze puntuak eskaintzea.**




Zuberogoitia eta Alberdi GOITBko platoan. A.E.

**Euskarazko masa komunikazioaren historia laburtu duzue liburuan.**

Liburua euskarazko masa-komunikazioaren historia moduko bat da; hau da, hastapenetatik hasi eta gaur egunera arte euskaraz egindako aldizkari, irratsaio, telebista saio edota filmen historia da, azken urteetako multimediaren iraultzaraino –horrek ekarri duen paradigma-aldaketa ere jorratu dugu–.

**Ze hedabide mota aztertu dituzue lan honetan?**

Azterketari dagokionez, ibilbide horretan zehar arrasto handiena utzi dutenei edota mugarri izan direnei eskaini diegu leku gehien: Iparraldeko euskal irratiak, ETB, Argia, Euskaldunon Egunkaria, Sustatu... Hori eginez, euskarazko hedabideen historiaren transmisioan eta berauen ezagutzan zegoen hutsunea bete nahi izan dugu.

**Komunikazioaren mundua trantsizio garai batean sartuta dagoela diozue. Zer esan gura duzue horrekin?**

Bi gauza nagusiki. Batetik, paradigma aldatu dela, hau da, audientzia homogeneoentzat ziharduten talde bakan batzuen norabide bakarreko produktu edo mezu kopuruz mugatuen garaietatik –masa-komunikaziotik–, pasatu garela, garapen teknologikoa tarteko, audientzia zatikatuentzat diharduten talde edota banakoen informazio garaira. [Oso aintzat hartzekoa baita *prosumer*-en figura–mezu interaktibo ia-ia mugagabeen garaira].

Bestetik, arlo bakarrean ziharduten hedabideen garaietatik pasatu gara ia arlo guztietan diharduten taldeen garaira. Horri konbergentzia multimedia deitzen zaio.

**Internetek komunikatzeko modua aldatu du?**

Bai noski. Edonori zabaldutako ate baten modukoa da Internet. Edonork sor dezake bere bloga edota bere webgunea. Edonork dauka informazioa zabaltzeko aukera. Horrez gain, interaktibitatea ahalbidetu du, eta tradizionalki mezuak norabide bakarrean joaten ziren bitartean, Internetek norabide-aniztasuna ekarri du. Horren ondorioz, informazio-fluxuak biderkatu egin dira, eta egun informazioa jasotzen dugu alde guztietatik.

**Internetekin, beste hedabideek indarra galdu dute? Eta, nola moldatu dira egoera berrira hedabide horiek?**

Sarritan entzuten dugu etorkizuna Internet dela, eta ziurrenik hala izango da. Horregatik, gaur egun euskarazko hedabide guztiak, gainerakoak bezala, Interneten proiektu berriak eta irmoak sortzeko eta garatzeko ahaleginetan ari dira, etorkizunean zer etorriko.

Internetek, ordea, momentuz oztopo nagusi bat dauka: hau da, ez duela dirurik ematen. Izan ere, negozio-eredua definitzeke dago oraindik.

EREDUA

**"Audientzia homogeneotatik pasatu gara audientzia zatikatuetara"**

EUSKARAZKOAK

**"Badirudi euskarazko hedabideek garaiz hartu dutela digitalizazioaren trena"**

TOKIKOAK

**"Geroz eta errotu gabeago dagoen gizartean aingurak eskaini behar dituzte"**

**Euskarazko hedabideak aztertuz gero, beste guztien bilakaera bera izan dutela esan daiteke?**

Bai, gutxi asko. Kontua da euskara beste euskarri batzuetara, besteak beste, liburua, irratia eta telebista dezenteko atzerapenarekin heldu zela. Interneten eta digitalizazioaren trena, aldiz, garai-antzean hartu duela ematen du.

**Zertan bereizi behar dute euskarazko hedabideek beste guztiekiko?**

Izaera propioa eman beharko liokete euren jardunari, bai produktu unibertsalak egokitzerakoan norbere erreferentzia-sistemaren galbahe partikularretik iragaziz, bai produktu originalak sortzerakoan. Horiek ere, noski, norbere kultur ondarean sakon oinarritutakoak izan beharko lukete.

**Zein izan behar da tokiko hedabideen zeregina informazioaren gizarte honetan?**

Geroz eta errotu gabeagoa den gizarte global honetan erroak eta ikuskera propioa eskaintzea jendeari.

Esan behar da, horrelako ainguratze puntuak eskaintzeak balio erantsia ematen diela tokiko hedabideei.

**Komunikazioari dagokionez, etorkizuna zein izango den aurreratzerik badago ?**

Orain gutxi hitzaldi argigarria eman ziguten Huhezin Eiken Ikus-entzunezko Clusterrekoek. Haien ustez lau ardatzek markatuko dute etorkizuna, eta oro har bat gatoz euren analisiarekin.

Lehenengo ardatza izango litzateke bilakaera teknologikoa; bigarrena, kontsumo-ohituren aldaketa; hirugarrena, publizitate-ereduen aldaketa; eta, azkenik legoke idatzizko kulturaren eragina apalduz joatea ikus-entzunezkoaren mesedetan.

**kale inkesta**

# Etorkizuna auto elektrikoetan egon daitekeela iruditzen al zaizu? Beste irtenbiderik duzu?



**Nuria Llamas**
Langilea
Bergara

Ingurumenarendako ona baldin bada, auto elektrikoak positiboak izan daitezke. Erregaiekin ingurumena kutsatzen ari gara. Dena dela, ikusi beharko da ibilgailu horien prezioa eta mantenua nolakoa den.



**Raul Villar**
Langilea
Bergara

Bai. Kutsadura kentzeko ondo daude. Dena dela, oraindik gaia aztertzeke dagoela uste dut; askotariko bideak topatu behar dira auto horiendako energia sortzeko. Horietako bat, eguzkiarekin egon daiteke lotuta.



**Valentina Moreno**
Langilea
Bergara

Ez. Oraingoz ez ditut praktikoak ikusten, gauza asko asmatu behar dituztelako; esaterako, entxufeak jartzea auto horiek kargatzeko. Horren harira, irtenbide hobeagoa ikusten dut nik bio erregaian.



**Jose Mari Zabaleta**
Langilea
Bergara

Bai, etorkizuneko autoak izan daitezke elektrikoak. Gasolioa eta gasolina gero eta garestiagoak daude eta gainera, egunen batean agortuko dira. Elektrikoa irtenbide egokiena dela iruditzen zait niri.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

**> Bailarako autobus geltokietan dauden pantailetako informazioa ez dabil behar bezala**

Oñatiar batek telefonoz deitu digu salatzeko autobus geltokietan dauden pantailetako informazioa ez dagoela ondo: "Eguneean, elurraren ondorioz, autoa hartu beharrean lanera autobusez joatea erabaki nuen. Bueltan, geltokira joan nintzenean, ez zen Oñatirako autobusik agertu. Pantailetan ez zuen jartzen atzerapenarekin zetorren edo hurrengoa noiz izango zen. Eta ordubetez egon behar izan nuen han zain badaezpada ere".

ARETXABALETA

**> Zorionak aretxabaletarrei, mozorro ikuskizunagatik**

Elgetar bat gurekin jarri da harremanetan aretxabaletarrak zoriontzeko: "Atzo eguerdian egindako mozorro desfilean egon nintzen eta izugarri gozatu nuen. Oso mozorro onak ikusi nituen. Egindako lanagatik eta eskainitako ikuskizunagatik aretxabaletarrak zoriondu gura ditut".

BERGARA

**> Agorrosingo igerilekuak, asteburu eguerdian ere zabalik**

E-mailez jasotako mezu batean, bergarar batek honako eskaera egin du: "Egunero igerilekura joateko ohitura dut, eguerditan. Asteburuetan, baina, ezin naiz joan. Beste herri batzuetan igerilekuak zabalik egon dira aste bukaera eguerditan eta hortaz, Bergarakoak ere zabal ditzatela eskatu nahi diet arduradunei".

**usteak uste**

**Edu Mendibil**

# Jatetxe xumeen ordua

Aurrekoan, Azkoitiko jatetxe xume batean afaltzen ginela, eztabaida txiki bat izan genuen koadrilan, goi mailako sukaldaritza (hainbat komunikabidek behin eta berriz goraipatzen dutena) eta ezkutuan, fokuetatik kanpo dagoen beste hori zela-eta (Azkoitiko jatetxe harena, esaterako).

Ez naiz ni inor Arzak, Aduriz, Berasategi eta abarri inolako meriturik kentzeko. Bejondeiela! Baina ez diegu arreta gehiegi eskaintzen? Arrazoia eman behar nire lagun bati: gurean txortan gutxi egiten denez, jatekoak atera behar mahaira behin eta berriz, antsietatea nolabait baretzeko.

Krisi garai honetan ez da zatar geratzen sukaldaritza elitista eta *Urrezko Visaduna* goraipatzea? Non dira menu duin bat prezio onean eskaintzeko egunero makina bat lan egiten duten sukaldari fin horiek?

**zorroztailea**



**Markos Balentziaga**

# Garzonzillo-aldaketia

"Audientzia Nazionaleko Presidente Angel Juanesek adierazi zuen atzo ezinezkoa dela Justizia Auzitegi Nagusiko magistratuen partetik Garzonen kontrako konspiraziorik egotea".

El Diario Vasco > 2010-02-12


POLITICA 17
El Rey demanda «amplios acuerdos»
Condenan a 12 años por traidor al 'topo' del CNI que se vendió a Rusia

Zabal-zabalik dabil notizia: Garzon jueza auzipetuta dago frankismua ikertzen hasi eta ezegiteko judizialen bat egin dabelako, salaketiaren arabera.

Auzi honetan ez dago ezer korrienterik, baña. Hara: hasteko, jueza bera, Garzon, ez da azapeko ostrua mundu osoko juezen artian. Garzonek, krisi bariko lantegi daben Entzutegi Nazionalian, entzute haundiko kasuen instrukziño judiziala egin dau. (GAL, HBren legez kanporatzia, Pinochet-en atxilotzia...)

Politikako ezkerraren eta eskumaren arteko jokuari errepararau barik jarduten dau inpartzialitatiaren garçon-mutillak... betibeti bere harrokeixa eta haundikeixa lotsabakuenaren billa, jakiña danez.

Garzonen fama-bidiak, baña, arrasto minberia laga dau bihurgune askotan, eta lankide dittuan epaillien artian, gaiztuena. Garzonek lankidiei ipini dotsen trabak eta ostikadak, eta, iruntzixetara, juezak eta abogauak hari itzuli dotsenak ez dira jendartera zabaldu, baña izan badirana segurua da, bestela ez zeben mutilla orain daguan egoera gaiztora eruango. Egoera hori honako hauxe da:

**"Holako miserian bizi dian profesionalen esku zela dago hainbeste pertsona, auzi politiko eta ekonomiko epaitzeko arduria?"**

Frakismuak egindako krimenak ikertzen hasi eta handik laster, "Manos limpias", Falange edota "Libertad y identidad" alkarte faxistak ipinittako salaketia erabillita, "Jueces para la democracia"-ko bi kide ezagun tarteko dirala (Luciano Varela eta Margarita Robles) prozesua zabaldu dotse fama mundialeko juezari. Auzibidiak aurrera egitteko itxura osua dauka; Auzitegi Gorenak ebazpena hartutakuan juez-lana laga biharrian izango da Garzon. Ez dau erreza onik irtetia.

Ezkerraren eta eskumiaren arteko bereizketia lausotuta agertzen da, ostera be, interes eta errebantxa-miñaren azpixan. Hontaraño iritsi eta borborka datorren galdetzia da: holako miserian bizi dian profesionalen esku zela dago hainbeste pertsona, auzi politiko eta ekonomiko epaitzeko arduria?

Itxura guztien arabera garzonzillo-mudia dator Entzutegi Nazionalera. Hurrengua barrixa-edo izango da; garbixa be bai?

**ASTELEHENEKO Goienkaria**

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Xabier Urtzelai **Erredakzioa** Mirian Biteri, Txomin Madina, Edu Mendibil **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

**Arrasate** > 16 **Bergara** > 17 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20




**> ARRASATE**
Etorkizuneko etxeko tresnak lantzen dabil Ikerlan, pertsona nagusiak hobeto bizi daitezen **> 16**



**> BERGARA**
Andoaingo piano jaialdian esku hartu duten musika eskolako 34 ikasleak pozik itzuli dira **> 17**



**> ESKORIATZA**
Naturaren gaineko erakusketa egingo dute Ibarraundi museoan eguaztenean hasita **> 19**



Fagor Arrasatek utzitako aparkalekuen lagapena 2010eko maiatzean amaitzen da. J.B.

**ARRASATE** > ZERBITZUAK

# Aparkalekuen arazoari irtenbidea proposatzeko hilabete du Osakidetzak

**ASPALDIKO ARAZOA**
Ospitalea egiteko obra baimena eman zenean ez zen aparkaleku kopurua zehaztu

**ERANTZUNAREN ZAIN**
Osakidetzak beharrezkoak diren aparkalekuak jartzea espero du Udalak

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

"Aspaldiko kontua da, ospitalea egiteko obra baimena eman zenetik datorkigun arazoa. Etengabe esku artean dugun gaia da". Juan Antonio Urdangarin Arrasateko Udaleko Hirigintza Saileko arduradunaren hitzak dira, Debagoieneko ospitaleko aparkaleku arazoaren gainean. Izan ere, ospitalea bera altxatzeko obra baimena onartu zenean ez zen aparkaleku kopurua zehaztu eta Urdangarinek dio urteak pasa diren arren ezin izan zaiola arazoari irtenbiderik eman.

Herritarren artean hamaika kexa eta kritika jaso ditu ospitale inguruan nagusi den aparkaleku gabeziak. Orain, gainera, ospitalea handitzen dihardute; lanak martxa onean doaz, eta 2010eko bigarren seihilekoan lanon lehen fasea amaitzea espero du Amenabar enpresak. Hau da, anbulatorioaren atzealdean doan eraikin berria egokituko dute fase horretan. Bigarrenean, gaur egungo eraikinaren atzeko zatia, eraikin zaharra, bota egingo dute eta han jarraituko dute eraikitzen. Eta hirugarrenean, azkenik, eraikin berria egokituko dute. Beraz, aparkalekuen arazoak soluziobide bat behar du lanok amaitu aurretik.

**HELBURU BAKARRA, APARKALEKUAK**

Udalak, Debagoieneko ospitaleko zuzendaritzarekin bildu ostean, 300 aparkaleku behar direla ondorioztatu du: 127 inguru eraikinaren barruan eta beste 100 ospitale aurrealdean egokitu den orubean. Horrez gain, ospitalearen handitzea ekarriko duen lehen bi faseen ondoren, beharrak %30 haziko direla aurreikusten du Udalak. Borobilduz, guztira 300 aparkaleku beharko lirateke. Eta Osakidetzak 120 aurreikusten ditu. Ikuspuntu ezberdinen aurrean "argi dago" zer egin behar den, Urdangarinen ustez: "Bi ikuspuntuak bateratzen saiatu behar dugu, arazoa konpontzeko akordiora iristea da asmoa; finean, helburua aparkaleku gehiago lortzea da".

Hala, idatzia bidali zion Udalak Osakidetzari, eta hilabeteko epea eman zion irtenbideren bat proposatzeko. Hori urtarril amaieran izan zen. Udala erantzunaren zain dago, horrenbeste buruhauste sortu dizkion arazoari irtenbidea emateko hasteko.

DATUA

**300**

**APARKALEKU BEHAR DIRA**

Udalak aurreikusten du ospitaleko lan guztiak amaitzen direnerako 300 aparkaleku beharko direla. Osakidetzak, baina, 120 aparkaleku kalkulatzen ditu.

ESANAK

**"Bi ikuspuntuak bateratzen saiatu behar dugu; finean, helburua aparkaleku gehiago lortzea da"**

**Juan Antonio Urdangarin** > Hirigintza Saila

**DEBAGOIENA** > MOZORROEN JAIA

# Debagoiendarren irudimenak 'berotu' ditu Aratuste hotzak

Oso morrozo originalak ikusi dira azken egunotan herri gehienetan egindako desfileetan

Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Eskoriatzako bazkari zein afarietan 1.700 bat lagun batu ziren

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

*Michael, I love you*. Hitz horiekin agurtu zuen aretxabaletar batek Michael Jackson abeslaria Durana kalean ikusi zuenean. Pop izarra dagoeneko hilda dagoela jakingo ez bagenu, samurra izango litzateke pentsatzea abeslaria benetan Aretxabaletako kaleetan izan zela atzo eguerdian; limusina ederra eta guzti erabili zueneta. Baina, berpizteaz gain, biderkatu ere egin zen; izan ere, 9 Michael Jackson ibili ziren-eta gora eta behera.

Ez zen, baina, eguneko mirari bakarra izan atzoko egunean. Tiroldarrak ere Alpeak atzean utzi eta han izan ziren; ikusi genuenagatik, gainera, pozaren pozez. Agian ondoan zituzten garagardoek zerikusia izango zuten alaitasun horretan.

Bestalde, denboran ere pare bat aldiz egin genuen aurrera. Batetik, San Ferminak otsailaren 14an ospatu zituzten lehen aldiz. Iruñeako zaindariari abestu ostean, talde batek entzierroa korritu zuen, zezena eta guzti. Bestetik, Aste Santuko prozesioa ere izan zen, Gipuzkoako gotzain Jose Ignacio Munillak eta Madrilgo artzapezpiku Rouco Maria Varela gertutik jarraitu zutena.

**MILITARRAK MANIOBRETAN**

Espainiarekin lotutako erakundea ere izan zen; armada, hain justu ere. Tankearekin etorri ziren eta maniobrak egiten pasa zuten goiza militarrek; operazio berezia prestatzen ari zirela esan ziguten. Egia ote?

Barnealdeko lurretan ibiltzea baino, batzuek nahiago izan zuten kostaldean izatea. *Ligakon San Migel* txapelketako arraunlariak ez ziren oso fin ibili, trainerua ez zuten-eta larregi kontrolatzen. Eskerrak antolakuntzakoak ibili zirela jarraitu beharreko bidea markatzen. Gehiago entrenatu ezkero, ziur datorren urtean txapelketa irabazten dutela.

**PAPALONSO AITA SANTUA**

Arrasaten ere elizarekin egin genuen topo. Baina, Aretxabaletakoarekin alderatuta, parrandarako gogo gehiago zuten Vatikanotik iritsitakoak. Papalonso izeneko Aita Santuak eta bere laguntaldeak arrasatearrei erakutsi zieten otoitz egiteaz gain, elizgizonek ere ederto pasa dezakete-la; hori bai, garagardoa eskuan baldin badute, hobe. Dena dela, Arrasaten, parranda ez zen hasi Greziako Jainkoen Olinpoak herriko jaiak bedeinkatu zituen arte. Jarraian, desfilea hasi zen, 20 karrozekin.

***GREASE***

Bestalde, Eskoriatzara 50eko hamarkadako musika bueltatu zen zapatuan, *Grease* film musikalaren eskutik. Film horretako Danny, Sandy, Rizzo, Kenickie eta besteek dantzan jarri zituzten plazan batu zirenak. Inguruan zeuden goi-mailako mendizaleak ere gorputza mugitzen hasi ziren, *Grease*ko abestiak entzun orduko.

**ILUNTZEAN**

Bergaran, azkenik, goizean goizetik, jendea mozorrotuta zebilen. Eguerdirako giroa berotzen joan zen (nolabait esatearren), koadrila askok bazkaria egin zutelako. Iluntze partean mozorro pilo bat ikusten ziren: txikiak, gazteak eta helduak ere bai. Horien artean, baziren mozorro orijinalak eta sekula hutsik egiten ez duen jendea: ezinbestekoak.



Aretxabaletan izan ziren Michael Jackson abeslariak; ez ziren hala-moduzko auto batean iritsi, l



Brasilgo dantzekin irabazi zuen talde honek aurtengo lehiaketa. J.A.

PROTAGONISTEKIN BERBETAN



**Mirari, Jesus Mari eta Eskarne**
Arrasate

Tiroldarrez jantzita irten zen hirukotea kalera."Koadrilan erabaki genuen eta ia denok ados geunden" azaldu zuten prestatutako karrozan doinu alpetarrak entzuten ziren bitartean. "Denetik daukagu bertan: musika, dantza egin eta hotza uxatzeko; eta baita edariak ere!". Herri-bazkarira beharrean, elkarte batera joan ziren indarrak hartzera.



**Leire eta Josebe**
Arrasate

Herri-bazkarira bidean harrapatu genituen *Avatar* filmeko *na'vi* hauek. "Ez genuen mozorrorik, filma ikustera joan ginen, eta irtetean erabaki genuen beraietaz janztea" kontatu ziguten. Mozorroa prestatzea baina, ez omen da lan erreza izan: "Arropak-eta pintatzen, hilabete eman dugu!". Zapaturako plana baina, argi zuten: ederto pasatzea.



**Marisol eta Begoña**
Antzuola

Hotzari aurre egiteko, mozorro bero bat onena, Marisol Altubek eta Begoña Azkaratek aukeratutakoa adibidez. Antzuolan jende gutxi mozorrotu zen zapatuan, eta Begoña eta Marisol Estala futbol zelaiko tabernan aurkitu genituen. Hara hurbildutakoek eskertu zuten bai *panda* bikote honek zerbitzatutako kafe beroak eta pintxo goxoak, bai horixe.



imusinan egin zuten desfilea. JOSETXO ARANTZABAL



Soldaduek maniobrak egin zituzten, tanke eta guzti. J.A.



AC/DC zaleak, askotariko adinekoak. J.A.



Tiroldarra garagardoarekin. J.A.



Sardina-saltzaileak balkoian zeudenei abesten, Durana kaleko *merkatuan*. J.A.



*Moñortel* koadrilak bizitasuna eman zien kaleei, on-line daude. J.A.

## PROTAGONISTEKIN BERBETAN



**Ibai, Diego eta Unai**

Aretxabaleta

ONCEko saltzailez mozorrotu zen aurten hirukote aretxabaletarra: "Eguraldiak uzten baldin badigu, kupoiren bat saltzen saiatuko gara gaurko egunean; dena dela, badakigu ez dela samurra izango". Aratusteak oso gustuko dituzte eta urtero mozorrotzen dira: "Oso ondo pasatzen dugu Aratuste-domekan, egun guztia parrandan ematen dugu".



**Dorleta eta Ane Miren**

Eskoriatza

Beti Gazte txarangako eskoriatzarrak autobus geltokian harrapatu genituen: "Urte asko daramatzagu mozorrotzen; beti koadrilaka egiten dugu. Gainera, urtero aldatzen dugu mozorroa. Iaz, esaterako, *El Florido Pensil*-ez joan ginen". Eskoriatzarrak arratsaldean irte ziren: "Egun osoa larregi da guretako; bazkaldu beharrean, afaria egiten dugu".



**Leire, Maite, Maite eta Maider**

Bergara

*Mickey* saguaren neskalagun *Minnie* moduan jantzita ikusi genuen laukotea Bergarako herriko plazan. Aurtengo mozorroa "denon artean" erabaki zutela esan ziguten. Nola egin zuten ere azaldu ziguten: "Batzuei baten amamak egin digu soinekoa; eta beste batzuk erosi ditugu". Jakinarazi ziguten, gainera, nahiko "samurra" izan zela egitea.



Arrasaten, A Taldeko Anibal eta MA izan ziren zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL



Bergaran, dalmatak irten ziren kalera. J.A.



Arrasaten, egipziarrak. J.A.



Aretxabaletan, elizgizon honek argi utzi zuen errespetuz tratatu behar dugula. J.A.



Eskoriatzako herriko plazan, *Travolta* alkatea *Grease* filmeko abestiak dantzatzen, bikoteaz. J.A.



Leintz Gatzagan, mozorro jaialdia egin zuten umeek ludotekan. J.A.



Antzuolan ere mozorrotu dira egunotan. J.A.


Eskoriatzan, Bat Formulako Mercedes etxekoak lanean. J.A.


Bergaran, Bedelkarrek emandako sariaren talde irabazlea, ferraristak. J.A.


Arrasaten, *Papalonso* izeneko Aita Santua bere lagun-taldearekin. Arrasateko mozorro onenaren saria jaso zuten. J.A.


Bergaran, azokan egin zuten zapatuko herri afaria. J.A.


Elgetan, umetxoak mozorrotuta irten ziren egubakoitzean. J.A.

LEHIAKETAK

## Mozorro onenak gertatzeagatik sarituak izan direnak

Urtero moduan, mozorro lehiaketak egin zituzten Debagoieneko hainbat herrietan. Datozen lerroetan dauzkazue aurtengo sarituen izenak:

**ARETXABALETA**
Nagusien mailan honako taldeen lana txalotu zituen epaimahaiak atzo arratsaldean egindako mozorro lehiaketan: *Samba brasileña* (300 euro), *Motorreroak* (250), *Avator* (150), *Michael Jackson* (120) eta *Moñortel* (100). Umeen mailan, honakoak izan ziren sarituak: *Aingeru beltzak*, *Bakeroak*, *Nuklearrak*, *Odol zurgatzaileak* eta *Diskoteka.*

**ARRASATE**
Bost sari banatu zituzten Uarkape pilotalekuan: Koadrila onenaren saria, *Aita Santua* izenekoa izan zen; karroza onena, *Sana* delakoa; eta ondoen mozorrutako taberna Iluntz izan zela erabaki zuten epaimahaikoek. Bestalde, aurten lehen aldiz, bi sari berezi eman ziren: *Kuki* eta Gorkak lortu zutena *Ainapi* eta *Partxis* izeneko mozorroekin.

**ESKORIATZA**
Zapatuan egindako mozorro lehiaketan hiru sari mota eman zituzten. Koadrilaka, *Koldotxo zirko mundiala*-k irabazi zuen, eta bigarren *Grease* taldekoak izan ziren. Lehenak 250 euro eta bigarrenak 150 euro lortu zituen. Talde txikian edo bakarkakoetan, epaimahaiak sari bakarra ematea erabaki zuen: *Eskoletos*ek 100 euro jaso zituen. 16 urtetik beherakoendako hiru sari sorpresa egon ziren: *Betiko ipuinak*, *Verano azul* eta *78 Cheers*. Gainera, egindako lana saritu nahian, epaimahaiak beste sari bat ematea erabaki zuen: *Zulus* taldeari, 100 euro.

**BERGARA**
Bergaran, beste behin ere, egunean barrena girorik saltseroena ipini zuen taldea saritu zuen Bedelkarrek. *Ferraristek* 200 euroko saria jaso zuten. Italiatik, Maranellotik, talde osoa ekarri zuten gorriek, azafata eta guzti. Bergaran erakutsi zuten talde indartsua ikusita, Fernando Alonsok aukera handiak izan ditzake aurtengo mundiala irabazteko.

## Jende ugari Aratusteetako bazkari eta afarietan

Koadrilek bere aldetik egindako bazkariak eta afariak ez ezik, udalek ere antolatu dituzte ibarreko hainbat tokitan. Eskoriatzan 320 lagun batu ziren zapatuan, Udal Pilotalekuan egindako herri bazkarian. Partaidetzari dagokionez, orain arteko bazkaririk arrakastatsuena izan da; giro ederrean bazkaldu zuten eskoriatzarrek eta mozorrotzeko orduan irudimena erakutsi zuen jendeak. Arrasaten ere herri bazkaria egin zuten zapatu eguerdian. 750 lagun izan ziren Aratuste-bazkariaz gozatzeko aukera izan zutenak, beste asko kanpoan geratu zirelako, izena ezin emanda. Era berean, herriko jatetxe eta elkarteak ere leporaino izan ziren Arrasaten. Bergaran, berriz, 290 lagun inguru elkartu ziren zapatuko afarian; lehenbiziko aldiz Oxirondoko azokan egin zuten Aratusteetako afaria eta esperientzia guztiz arrakastatsua gertatu zen antolatzaileen arabera. Aretxabaletan, azkenik, 350 lagun inguru elkartu ziren atzo eguerdian Iturrigorri pilotalekuan egindako bazkarian.

MOZORRO KURIOSOAK

## Avatar, hilerri nuklearrak, krisia... denak balio du

Ez dago zalantzarik telebistan eta zineman ikusten ditugunak hizpide izaten direla mozorroak gertatzerakoan. Esaterako, modan dagoen Avatar filmeko pertsonaiak nonahi ikusi ditugu aste bukaeran Debagoienean egindako desfileetan. Eskerrak egiteko mozorro samurra ez dela izan behar; bestela, debagoiendar guztiek aukeratuko luketen aurten jantzi berdina. Bestalde, hilerri nuklearren gaineko albisteak entzun ahal izan ditugu azkenaldian hedabideetan. Bada, Arrasaten eta Aretxabaletan horretaz jantzi den taldeak ikusi ditugu kaleetan. Krisi ekonomikoak ere bere tokia izan du.

Eskoriatzan, esaterako, herritar bat zegoen zapatu iluntzean bere etxea saldu nahian. Honakoa esaten zuen: "Se bende por no poder pagar la hipoteca. 1 limosnita por fabor para comprar unos chuches". Agian ondo hartuko zituen txipiroiak saltsan eta hala jantzi zenik egon zen Arrasaten.

**TEKNOLOGIA** > ASMAKIZUNAK

# Etorkizunerako etxeko tresnak, 'made in' Arrasate

Etxean bakarrik bizi diren nagusiekin pentsatuta landu dituzte, bereziki, tresna berriak, haiei autonomo izaten laguntzeko




Ikerlaneko Luis Mari Bidarte asmakizunetako bat probatzen. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Etorkizuneko bizimodua zelakoa izango den erraz ikus daiteke Ikerlanen laborategietan sartuz gero: garbigailu adimenduna, bizilagunari abisu, ohar, errezeta eta abarren berri emateko agenda berezia eta etiketak irakurtzen dituen arkatz elektronikoa. Horiexek, oraingoz, Fagorrek patentatu dituen tresnak. Izan ere, gure bizimodua errazago egitea oinarri duten asmakizunak landu dituzte Fagorrek, Ikerlan-IK4 eta Inabensak, Matia Fundazioaren koordinaziopean.

Asmatzeaz gainera, probatu ere egin dituzte, gonbidatu bereziekin: Abaroa erretiratuen etxeko 10 nagusirekin; eta diotenez, gainera, eraginkorrak dira "pertsonen autonomia handitzen" laguntzen dutelako eta "eguneroko lanak egitea errazten dutelako".

**GARBIGAILU ADIMENDUNA**
Asmakizunon artean dago garbigailu adimenduna. Antena ipini diote garbigailuari. Hala, haren bitartez, jantzien etiketak irakurri eta jantzien beharren araberako garbiketa programa ipintzen du martxan. "Eta, adibidez, nahastuta sartu badugu arropa (koloredunak zuriekin…), garbigailuak abisatu egiten du notifikazio sistema berezi baten bitartez", azaldu du Juan Pedro Uribe Ikerlaneko ikerlariak.

**LOKALIZAZIO SISTEMA**
Notifikazio sistema, baina, ez da bakarrik garbigailuak duen zerbitzua. Etxe osoak, oro har, txertatuta daukan zerbitzua da. Hari esker, ikusten da pertsona etxe barruan non dagoen eta telebista, bozgorailu edo beste gailuren batekin edozein konturen gaineko abisuak eman ahal dizkio.

"Elikadura aplikazioa ere badu: asteko menuaren arabera, errezetak ematen ditu, esaterako. Horrez gainera, adibidez, labea erabiltzen badu errezeta egiteko, labeari agindua bidaltzen dio zein tenperaturan egin behar duen, zenbat denboran egon behar duen piztuta…" eta halakoak azaltzeko, dio ikerlariak. Eta egiten duena da, baita ere, asteko menua ikusita haren araberako erosketa zerrenda; eta zerrenda hori Smart Phone edo PDA batean kargatzen du", gaineratu du Uribek.

**AGENDA PERTSONALA**
Horrekin guztiarekin batera, besteak beste, agendaren erabilera errazteko gailua ere asmatu dute: "Egin duguna da telebista bat erabili. Telebista horretan erakusten da agenda. Eta agenda erabiltzeko, arkatz elektronikoa prestatu dugu; agenda-koadernoa erabilita telebistakoa mugi daiteke". Juan Pedro Uribe ikerlariak kontatu du, baita ere, agendak berak telebista bitartez edo bozgorailuen bitartez abisatzen diola pertsonari, "ba, adibidez, medikuarekin zita daukala, edo zita bat aldatu egin diotela… Hau da, agendako informazioa berez helaraziko zaio erabiltzaileari. "Eta gainera, agenda horretan edozeinek sar ditzake hitzorduak: baita medikuak berak ere, adibidez, edo pertsona nagusiaren familiak…", jakinarazi du.

EPE ERTAINERA BEGIRA

## Bakarrik bizi izaten segitu ahal izateko laguntza teknologikoak

Azkenaldian ikusitakoagatik, gizarte honetako helburuetako bat izango da geroago eta ugariagoak izango diren pertsona nagusiei laguntzea ahalik eta denborarik luzeena nor bere etxebizitzan bizi izateko. Ikerlanen ere hala ikusten dute: "Helburua da jende nagusiari bizimodua eta konforta hobetzea; gehienbat, bakarrik bizi direnei. Jende mota horrek autonomo moduan jarraitzeko laguntza behar du, eta askotan, hori teknologiak eskain dezake; askotan modu, errazean". Epeak ere aurreikusi dituzte: "Epe ertainera zabalduko dira. Teknikoki irtenbideak emanda daude, baina erabiltzen diren osagarrietako batzuk garestiak dira, edo beste batzuen eskuetan daude. Adibidez, irakur daitezkeen etiketen prezioak, oraingoz, garestiegiak dira jantzi baten edo jogurt baten ipintzeko. Horiek merkatzen direnean, gaur egun kode barra daukagun lekuan, gero halako etiketak ipiniko dituzte eta orduan posible izango da teknologia berri horiek erabiltzea".

**MERKATARITZA** > LOKAL BERRIAK

# Zerrajerako sei lokal salgai ipini ditu Udalak, haien enkantera ez delako inor aurkeztu

Merkataritza lokalak dira; garestiena kostako da, gutxienez, 338.000 euro pasa; merkeena, berriz, 64.000 euro pasa



Zerrajerako behe-barruetan daude Udalaren lokal horiek. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Udalak salgai ipini dituen Zerrajerako lokalotatik txikienak 35 $m^2$ erabilgarri pasa ditu; handienak, berriz, 200 $m^2$ pasa. Gainerakoak tarte horretan daude.

Halako bat erosteko interesa duen edozeinek aurkez ditzake eskaintzak, uztailaren 30a baino lehen. Eta lokalak bisitatu ere egin daitezke, aldez aurretik txanda hartuta Biztanleen Arreta Zerbitzuan (943 25 20 00).

Hori bai, loka handienaren erabilera zehaztuta dago: okindegi edo jatetxe izan beharko du, bizilagunei zerbitzu emateko.

## oharrak

PERTSONA NAGUSIAK
**> 80 urtetik gorakoei omenaldia**
Uribarri erretiratu elkartetik iragarri dute martxoaren 5ean 80 urtetik gorako bazkideei omenaldia egingo dietela, "baita aurten bertan 80 urte betetzen dituztenei ere". Besteak beste, bazkaria egingo dute, erretiratuen etxean. Eta parte hartu gura dutenek egoitzako bulegoan izena eman behar dutela jakinarazi dute.

Bestalde, Uribarritik iragarri dute txokolatada egingo dutela bihar, martitzena. Kasu horretan 18:00etan egin dute hitzordua.

LANPOSTUAK
**> 18 funtzionario**
Oraingo astean argitaratuko ditu Udalak egin duen lan eskaintzan izena emateko oinarriak zeintzuk diren (Udalaren webgunean: *arrasate-mondragon.org*). Izan ere, oposizio bidez 18 lanpostu bete gura ditu Arrasateko Udalak, eta horietako 15era, gainera, baldintzak betetzen dituen edozein lagun aurkeztu ahal da, lanpostu libreak direlako.

Gainerako hiru lanpostuak barne-promozio bidez beteko dituzte.

Gutxi gorabeherako egutegia zehaztu dute: oinarriak webgunean argitaratu eta hilabete ingurura zabalduko dute izenemate epea. Gero, 20 eguneko epea izango da izena emateko.

Denetariko lanpostuak egonkortu gura dituzte lan eskaintza publiko horren bitartez: hiru gizarte langile, bi liburuzain laguntzaile, bi udaltzain, administraria, Ingurumen Eskolako irakaslea, ehorzlea, peoia, AUKEAko gerentea, Gizarte Zerbitzuetako Teknikari-burua eta obretako ikuskatzailea. Bestela esanda, ez da udal lantaldea handituko.

**MUSIKA** > ANDOAINGO PIANO JAIALDIA

# Ikasleak pozik itzuli dira Andoaindik

Musika Eskolako 34 ikaslek hartu zuten parte aurreko asteburuan Andoaingo piano jaialdian

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Musika Eskolako piano ikasleak pozik itzuli dira Andoainen egindako lanarekin. Otsailaren 6an eta 7an jokatutako piano jaialdian jardun zuten eta, euren lana erakusketarekin batera, beste musika eskola batzuetako ikasleena ere bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten.

Hain justu ere, Bergarako Musika Eskolako 34 ikaslek hartu zuten parte jaialdian; hiru mailatan aritu ziren eta bakarka zein lau eskutara jardun zuten.

**ETXERA DOMINAREKIN**
Egindako lan onarengatik urrezko domina jaso zuten lau ikaslek. Hori horrela, Iñigo Azkaratek eta Josu Berastegik lau eskutara egindako lanarengatik eta Naroa Intzak eta Leire Ugartek bakarka egindakoagatik, urrezko domina eta diploma eroan zuten etxera.

Horrez gainera, beste 22 ikaslek zilarrezko domina eta diploma ere eroan zuten etxera eta beste zortzik brontzezko domina eta diploma eskuratu zuten.

Musika Eskolako arduradunek, lehiaketako emaitza onak azpimarratzearekin batera, lehiaketak ikasleendako duen alderdi motibagarria azpimarratu dute, baita beste eskola batzuetako ikasleekin harremana egiteko ematen duen aukera ere.

## Partaideak

**A maila**
- > Iñaki Manso.
- > Iker Manso.
- > Julio Narbaiza.
- > Kepa Sebal.
- > Izaro Garmendia.
- > Maider Jauregi.
- > Xabier Aldai.
- > Eneko Etxeberria.
- > Irene Azkargorta.
- > Maria Berroia.
- > Miren Gutierrez.
- > Naroa Mujika.
- > Iñigo Azkarate.
- > Josu Berasategi.
- > Ainhoa Olaziregi.
- > Saioa Galarraga.
- > Maddi Iñarra.

**B maila**
- > Leire Moñux.
- > Sara Peñin.
- > Mariñe Diaz
- > Naroa Inza.
- > Uxue Azkarate.
- > Amaia Oregi.
- > Ariana Sasieta.
- > Leire Ugarte.

**c maila**
- > Ainhoa Aspiazu.
- > Nerea Urresti.
- > Maddi Mujika.
- > Jon Mikel Aiastui.
- > Ane Zangitu.
- > Jone Eguren.
- > Ainara Gonzalez.
- > Cristina Souto.
- > Maitena Mañerikua.



Parte-hartzaileak domina eta diploma erakusten. MUSIKA ESKOLA



PEÑA ATHLETIC

## Saria, Irazabalbeitia anaiendako

Bergarako Peña Athleticek Gabonetako otarrea zozketatu zuen urtarrilaren 22an. 37.729 zenbakia irten zen eta irabazleak Irazabalbeitia anaiak izan ziren. Goiko irudian Irazabalbeita anaiak agertzen dira zenbaki saritua eskuan dutela eta lagunarteko presidente Jose Antonio Pagaldairekin.

**EUSKARA** > ARGITALPENA

# Gurasoendako kantu eta jolasen DVDa banatzen hasi da Udala

4 urteko umeei zuzenduta dago eta helburua da gurasoei umeekin euskaraz jolas egiteko aukera eskaintzea

**M.B.** > BERGARA
Umeen hizkuntza-ikasketak eta familia transmisioak duten garrantzia kontuan hartuta, Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek *Gurasoendako aholkuen liburuxka* eta *Kantu eta jolasak* DVDa banatuko dute. Hala, Udaleko Euskara Zerbitzua dagoeneko hasi da banatzen sorta hori.

Herriko ikastetxeekin egiten duen elkarlanari esker, ikastetxeetan banatuko da, eta jasoko dute 4 urteko umeek. Hain justu ere, Aranzadiko, Mariaren Lagundiko eta San Martin ikastetxeetako 4 urteko 130 ikasleek jasoko dute sorta hori.

**GURASOENDAKO LAGUNGARRI**
DVDaren helburua da gurasoei umeekin euskaraz jolas egiteko aukera eskaintzea, eta hainbat kantu eta jolas jasotzen ditu.

Bestalde, DVDaz gain bi liburuxka ere badaude kaxan: liburuxka bat grabazioan jasota dauden jolas eta kantuen gaineko informazioarekin osatu dute; bestea, *Biharko euskara gaur-Su futuro euskara desde hoy* gurasoei bideratutako liburuxka da, eta hizkuntzarekin lotutako aholkuak jasotzen ditu, ele bitan.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2010eko otsailaren 15a

Marisa Fassi > Irakaslea

# "Gorputz espresioa lantzeko tailerra jolas egiteko gonbita da"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Marisa Fassi argentinarra da. Zuzenbidean lizentziaduna da eta masterra egiten dihardu Lege Soziologia Institutuan. Antzerkia maite du, eta herrian talderik ez dagoela ikusirik, gorputz espresioa lantzeko tailerra martxan jartzea erabaki du. Ikastaroaren nondik norakoak azaldu dizkigu.**

**Zein da zure asmoa?**

Gorputz espresioa lantzeko ikastaroa egin nahi dut. Gorputza erreminta moduan hartuta, norberak barruan duena azaleratzen erakutsi nahi diet tailerrera datozenei. Helburua partehartzaile bakoitzak komunikatzeko bide ezberdinak topatzea da. Guztiok gara ezberdinak eta guztiok ditugu komunikatzeko modu ezberdinak.

**Zergatik gorputz espresioa lantzeko ikastaroa?**

Zuzenbidean lizentziaduna naiz, baina antzerkia oso inportantea da niretako. Zazpi urtetik hona, antzerki korronte ezberdinak lantzeko ikastaroak eta tailerrak egin ditut. Oñatira heldu nintzenean antzerki talderen baten hasteko gogoa nuen, baina esan zidaten ez zegoela halakorik herrian. Horregatik guztiagatik hartu nuen erabakia.

**Zeinek har dezake parte tailerrean?**

18 urtetik gorako edonork har dezake parte. Eskolak gaztelaniaz emango ditut eta doakoak dira.

**Nolako erantzuna izan du deialdiak?**

Ikaskideei eta Lege Soziologia Institutuko lagunei nire proiektuaren berri eman nienean esan zidaten ez zela erraza izango halako talde bat sortzea. Baina erantzuna espero baino hobea izan da, oraingoz. Sei pertsonak eman dute izena. Nire lau ikaskidek ere parte hartuko dute. Beraz, hamar laguneko taldea osatu dugu. Izena eman duten gehienak oñatiarrak dira, baina Debagoieneko beste herri batzuetakoak ere badaude. Adinari dagokionez, 25 eta 50 urte artekoak dira; eta gizonak eta emakumeak daude. Gustura nago taldearekin.



Marisa Fassi, unibertsitateko klaustroan. MIREIA BIKUÑA

**"Parte-hartzaileek ez dute antzezteko gaitasunik eduki behar"**

**"Tailerraren helburu nagusia da norberak komunikatzeko bide ezberdinak topatzea"**

**Izena eman daiteke oraindik?**

Bihar hasiko dugu tailerra, baina interesa dutenak etor daitezke oraindik ere, edo 666 64 07 86 telefonora dei dezakete. Errekaldeko lokalean elkartuko gara martitzenero bost astetan, 18:30etik 20:00etara.

**Parte-hartzaileek antzezteko gaitasuna izan behar dute?**

Ez. Beharrezkoa den bakarra komunikatzeko beste bide batzuk bilatzeko gogoa edukitzea da. Gorputz espresioa lantzeko tailerra jolas egiteko gonbita besterik ez da.

**Nolakoak izango dira saioak?**

Bost saio ezberdin egingo ditugu, baina guztietan gorputz espresioa izango da nagusi. Gorputz bakoitzak espresatzeko dituen aukerak aztertuko ditugu. Gorputzaren bidez espresio bide berriak esploratu eta landuko ditugu.

**Bost saio egingo dituzu. Nahikoa izango da gura duzun guztiak lantzeko?**

Ez da nahikoa, baina hilabete eta erdi barru Argentinara itzuliko naiz. Saio gehiago emango nituzke, baina ezinezkoa da. Helburua da taldea martxan ipintzea. Bost saiotan oinarrizko gauzak lantzeko aukera izango dugu.

Gustatuko litzaidake, bost saioak egin eta Argentinara itzultzen naizenean, taldeak aurrera jarraitzea; eta etorkizunean eurek antolatzea tailerrak eta ikastaroak.

BIRZIKLAPENA

## Kartoi bilketak erantzun ona du

M.B. > OÑATI

Debagoieneko Mankomunitateak kartoia biltzeko duen zerbitzuak harrera ona izan zuen iaz erabiltzaileen artean. Oñatiko denda, ostatu eta lantegiek kartoia birziklatzen jarraitzen dute.

**BI BILKETA**

Herrigunean kartoia egunero biltzen dute, astelehenetik egubakoitzera, 20:00etatik 22:00etara. Bestalde, industrialdeetan astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan batzen dute, 20:00etatik 22:00etara. Horren harira, bilketa egunak ez direnetan eta orduz kanpo kartoirik ez ateratzeko eskatu du Mankomunitateak.

Iaz, Debagoienean, 925 tona kartoi batu zituzten, 2008an baino 85 tona gehiago.

> KULTURA

## Erretiratuen antzerkirako sarrerak salgai

Pake Lekuko Ikusi Makusi antzerki taldeak *El jardín de la alegría* antzezlanaren beste saio bat egingo du zapatuan, 22:00etan, Santa Ana antzokian. Antzerkirako sarrerak salgai jarriko dituzte eguaztenean eta eguenean erretiratuen elkartean 18:00etatik 20:00etara. Hiru eurotan salduko dituzte.

Ikusi Makusi taldekoak azken aldiz igoko dira taula gainera *El jardín de la alegría* antzezteko. Hiru saio egin dituzte.

**ARATUSTEAK** > AZKEN EGUNA

# Askotariko ekitaldiak Aratusteak agurtzeko

Pailazoak, txokolate-jana eta disko festa egingo dituzte kiroldegian eta herriko plazan

M.B. > OÑATI

Aratuste-martitzena ekitaldiz beteta dator. Besteak beste, pailazoak, txokolate-jan solidarioa eta disko festa egingo dituzte bihar arratsaldean.

**PAILAZOEN IKUSKIZUNA**

Aratuste-martitzeneko ekitaldia umeendako ikuskizunarekin hasiko dute. Hain justu ere, Kiki, Koko eta Moko pailazoek *Txintxilintxin, bakea egin* ikuskizuna egingo dute kiroldegian, 17:00etan. Sarrera doan da.

Ikuskizuna bukatu orduko, parrokiako Misio taldekoek prest izango dute txokolatea plazan. 18:30etan hasita banatuko dute txokolatea. Batutako dirua Haitiko lurrikaran kaltetuendako izango da.

Ordu berean, txorimaloak eta buruhandiak irtengo dira Santa Ana antzokitik eta kalerik kale ibiliko dira txikienen gozamenerako. Bestalde, Debagoieneko IV. Jardunaldi Gastronomikoen aurkezpena egingo dute plazan. Bailarako hainbat jatetxek prestatutako egindako pintxoak banatuko dituzte, txerrikiekin eginak –txistorra, odolki nahaskia eta hirugiharra–; pintxoa eta ardo tragoa, euro baten truke.

**DISKO FESTA**

Aratuste-martitzena girotzeko disko festa egingo dute plazako kioskoan, eta askotariko musika jarriko dute. Jaia bi zatitan egingo dute: hain zuzen ere, 20:00etatik 21:30era eta 23:00etatik 00:30era.



Deabruz mozorrotu ziren herriko neskatila batzuk iaz. M.B..



*Natura 2000, bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak* erakusketako argazkiak eta argibideak dituzten panelak. TXOMIN MADINA

**ESKORIATZA** > ERAKUSKETA

# Natura hausnarketarako bide, eguaztenean hasita

'Natura 2000, bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak' erakusketa ikusgai Ibarraundi museoan

**MIRARI ALTUBE** > ESKORIATZA

Naturaren gaineko erakusketa ibiltaria dator Ibarraundi museora astean: *Natura 2000, bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak*. Eguaztenetik domekara bitartean izango da ikusgai (11:00-14:00 eta 16:30-20:30).

Natura 2000 proiektuaren gaineko erakusketa da, Europako biodibertsitatearen galera geldiaraztea helburu duen proiektua, eta hori lortzeko elkarrekin lan egin beharraren garrantzia adierazten du. Hala bada, osasun, oparotasun eta bizi kalitatearen oinarri den biodibertsitatearen balioaren gaineko hausnarketa eginaraztea dute helburu ikusgai jarriko dituzten argazkiek eta argibideek. Gainera, bisita gidatuak eskainiko dituzte aurretik txanda hartuta (695 78 24 97).

Bestalde, *Bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak* izena duen hitzaldia eskainiko du Leire Beteta adituak eguenean, hilak 18, Ibarraundin (19:00).

**ARETXABALETA** > BIDEGORRIA

# Urkulura doan bidean hobekuntzak

Urak jasotzeko kanalen antzeko zeharkako pasabideak jarri dituzte, hormigoiarekin egindakoak

**M.A.** > ARETXABALETA

Bainuetxetik Urkulura doan bidegorrian konponketak egin ditu Udalak. Euri urak behar bezala jasotzea izan dute helburu lanok eta, era berean, bidearen mantentze-lanak jarraitzea.

**ABIADURA MURRIZTU**

Hormigoizko gainazala duten kanal antzekoak egin dituzte bidegorrian, zeharkako kanalak. Bainuetxe inguruan hasi eta Urkulurako tartean zazpi inguru dira egindakoak. Hala, euri asko egiten duenean urek ez dituzte eroango bidean botatako harrixkak. Eta gero, zuloak konponduko dituzte. Lan horiek guztiek 10.000 euroko aurrekontua dute.

Gainera, kanal horien eraginez bizikletekin dabiltzanek abiadura murriztu beharko dute eta oinezkoen mesederako izango dela jakinarazi dute Ingurumen Saileko ordezkariek.

**IAZ ERE KONPONKETAK**

Iaz ere egin zituzten konponketa lanak bidegorrian; izan ere, bidea behera eginda zegoen hainbat tartetan. Ingurumen Saileko ordezkariek diote berriz ere egin beharko dituztela halako konponketak, bertako lurrak guztiz finkatu barik daudelako.

> ELKARTASUNA

### 114 aretxabaletarrek eman dute odola lehen hilabetean, horietatik lau emaile berriak izan dira

Arabako Odol Bankuko ordezkariak izan ziren urtarril eta otsaileko hiru egunetan gurean odola jasotzen. Hainbat aretxabaletarrek egin zuten bat eskaerarekin osasun etxera joan ziren urtarrilaren 21ean, 58 lagun; horietatik 54k eman zuten –hiru berriak–; urtarrilaren 25ean, 30; horietatik 29k eman zuten; eta otsailaren 1ean, 35; horietatik 31k eman zuten –bat berria–. Hortaz, guztira 114 herritarrek eman zuten odola.

Odol emaileen elkarteko ordezkariak pozik daude jasotako erantzunarekin "negua sasoi txarra da-eta odola emateko". Era berean, gogorarazi dute udaberrian berriro etorriko direla gurera Arabako Odol Bankuko kideak odola jasotzera.

### Aitzol Zubizarretak irabazi du gaztelekuko urtarrileko jokoa

Gaztelekuko urtarrileko galdera jokoak badu irabazlea: Aitzol Zubizarreta. Harreman elkarteak Arrasaten duen bidezko merkataritzako dendan 20 euro gastatzeko txartela jaso du hark.

Otsaileko galdera jokoa dagoeneko abian dela iragarri dute gaztelekuko ordezkariek, eta martxoan jakingo da zeinek irabazi duen.

Bestalde, datorren zapatuan, hilak 20, maskara tailerra egingo dute gaztelekuan bertan (17:00) eta domekan, sukaldaritza ikastaroa (17:00).



GAZTELEKUA

## oharrak

ESKORIATZA

**> Aratuste-martitzena**

Umeen jaialdiak emango dio hasiera (10:30) Herriko Plazan: dantzak, kantuak eta musika. Eta txistorra janda bukatuko dute ekitaldia.

Potxin eta Patxin pailazoek ikuskizuna eskainiko dute plazan (17:15). Bukatutakoan (18:30), Kukumarroak irtengo dira kultura etxetik.

ARETXABALETA

**> Aratuste-martitzena**

Ume eta gazteak, 500 inguru, elkartuko dira Herriko Plazan (10:30). Txino-dantza egin eta kalejiran joango dira (11:00).

Arratsaldean (17:30) kalejira egingo dute buruhandiek eta txarangak, eta euskal disko festa egongo da gero (18:00), plazan. Txinen hiletarekin (20:00) bukatuko dira Aratuste jaiak.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 77 07 94
Aretxabaleta



Udal pilotalekuan iaz jokatu zen Frontenis txapelketako finala. L.Z.

**ELGETA** > ELGETA DANON ARTIAN

# Kirol foroa eguaztenean batuko da bigarren aldiz

Edozein herritarrek dauka foroan parte hartzeko aukera, interesatuek izena emanez gero batzar horretan aztertuko den txostena jasoko dute

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

*Elgeta danon artian* ekimenaren barruan 2009ko irailean batu zen lehenengo aldiz Kirol foroa. Zortzi lagun elkartu ziren lehenengo bileran; kirol jardueren antolaketan diharduten erakundeetako ordezkariak eta udal langileak zein zinegotziak. Orduan hartutako erabaki nagusia diagnosi txosten bat egitea izan zen. Helburua zen herriko kirol azpiegituren eta zerbitzuen gaurko egoera eta Elgetan kirolak oro har izan duen ibilbide historikoa jasotzea. Txostena prest dago, eta eguazteneko bileran emaitzak aztertu eta baloratuko dituzte.

**HERRITAR GUZTIEI ZABALIK**

Batzarra herritar guztiei dago zabalik. Zentzu horretan eta foroen dinamika martxan jarri aurretik Udalak inkesta bat egin zuen elgetarren artean. Bertatik ateratako ondorioetako bat izan zen herritarrek kiroldegi bat (%22,8), mendi ibilbideak (%21,1) eta kirol ekintzak bultzatzea (%32,4) eskatzen dutela. Kiroldegiaren instalazioak hobetzeko, igerilekua, futbol zelaia eta gimnasioa aipatzen ziren inkesta horren emaitzetan.

Horien guztien gainean hausnarketa egiteko zabaldu du Udalak kirol foroa. Eguaztenean, hilak 17, 19:00etan batuko da.

**HERRITAR GUZTIEI ZABALIK**

Epe ertainera zein kirol instalazio eta zerbitzu behar ditu Elgetak? Zeintzuk dira lehentasunez erantzun beharreko arazo eta gabezia zehatzak? Horiek dira foroaren bigarren bilera honetan hausnarketarako planteatzen diren galderak. Eta abiapuntutzat *Kirola Elgetan: ikuspegi historiko laburra eta gaurko egoera* izeneko txostena hartuko dute.

Batzarrean parte hartu nahi duten herritarrek izena ematea komeni da. Aipatutako txostena jasoko dute aurrez aztertzeko. Izena emateko 943 - 76 80 22 edo *danonartian@elgeta.net*.

**LEINTZ GATZAGA** > LANDAGIPUZKOA

# Ur depositua egiteko lanak pilotalekuarenak baino lehen hasiko dituztela uste du Udalak

Hil honetan dira elkartzekoak udal agintariak eta deposituaren proiektua egiten dabilen Etorlur enpresako ordezkariak

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Udal ordezkariek uste zuten otsailean hasiko zituztela pilotalekuaren konponketa lanak, baina ez da hala izango; abendura arte ez direla ezertan hasiko iragarri diete Etorlurko ordezkariek.

1.000 biztanle baino gutxiagoko herriei laguntzea helburu duen Landagipuzkoa egitasmoak onartu zituen Udalak proposatutako bi proiektu: pilotalekua guztiz itxi eta egoera eskasean duen aterpea berritzea; eta Arlabango saneamendu eta ur hornikuntza.

San Migel plazan dagoen pilotalekua konpontzea lan txikiagoa da –hiru hilabete inguru– eta aurrekontu murritzagoa du –103.965 euro–, baina Udalak uste du ur depositua egiten lehenago hasiko direla.

**PROIEKTUA EGITEN**

Hil honetan dira elkartzekoak udal agintariak eta Etorlurko ordezkariak ur deposituaren gainean berba egiteko. Arlabango plan bereziarendako beharrezkoa den ur deposituaren proiektua egiten dabil Etorlur, eta azken nobedadeen zain dago Udala. Proiektu horrek 566.035 euroko aurrekontua dauka.

**ANTZUOLA** > AURKEZPENA

# Alfonso Ugarteri buruzko bizitza, liburu baten

Antzuolako Udalak Lizarrako Udalarekin eta Eusko Ikaskuntzaren musika sailarekin elkarlanean argitaratutako liburua da

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Otsailaren 28an aurkeztuko dute, Torresoroan, Alfonso Ugarteren bizitza jasotzen duen liburua. Txistulariek girotutako ekitaldia 12:00etan hasiko da.

*Alfonso Ugarte eta musika sakratuaren berrikuntza Hego Euskal Herrian* da liburuaren izenburua eta Ainhoa Kaierok idatzi du. Kaiero Musikaren Historia eta Zientzietan lizentziadun eta doktorea da.

Ugarte musikaria 1879an jaio zen Antzuolan; baina Lizarran egin zuen bere musika ibilbidearen zati handiena. 1901etik aurrera Lizarrako organo-jotzaile izan zen.

Antzuolarraren lana musika berpizkundearen esparruan kokatu behar da. Bereziki, musika sakroaren erreforman, nazionalismo musikalean eta musika banden mugimenduan egin zuen lan Ugartek.


Alfonso Ugarte. ARTXIBOA

**ARAMAIO** > EKOLOGIA

# Olioa birziklatzeko poteen banaketa egingo du Udalak

Hiltegi zaharrean dagoen biltegian hustu beharko dituzte herritarrek

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Aramaioko Udalak olioaren birziklatzearekin lotutako sentsibilizazio kanpaina bati ekin dio. Hain zuzen, erabilitako sukaldeko olioa birziklatzeko poteak banatuko dituzte; etxe bakoitzeko pote bat emango du Udalak. Behin herritarrek olio poteak betetzen dituztenean, hiltegi zaharrean dagoen biltegian hustu beharko dituzte.

**AUZO ALKATEEK BANATU**

Olio poteok auzo alkateei banatuko zaizkie: hain zuzen, Altzaga, Arexola, Arraga, Arriola, Azkoaga, Barajuen, Etxaguen, Gantzaga, Olaeta, Untzilla eta Uribarriko auzo alkateak arduratuko dira poteak jaso eta jarraian etxez etxe banatzeaz. Ibarrako bizilagunei dagokienez, udaletxean jaso ahal izango dituzte olioa birziklatzeko poteak.Sukaldeko olioaren birziklatzeari bultzada emateko ekimena da Aramaioko Udalak abian jarritakoa.

Olioaren kontsumo osoaren %70a etxeetan egiten da gaur. Egindako hainbat azterketaren arabera, Euskal Herrian hilabete eta pertsona bakoitzeko litro eta erdi olio erosten da, baina zaila da jakitea kopuru horretatik zenbat olio erabiltzen den eta zenbat doan harraskatik behera. Adituek kalkuluak egiteko orduan datu bat aipatzen dute: erosten den oliotik % 60 erabili eta kontsumitu egiten da eta % 40 erabili ondoren harraskatik botatzen da. Olioa harraskatik behera botatzean gogortu egiten da eta hozten denean hoditeria butxatu eta itxi egiten da, ingurugiroari egiten zaion kaltea aipatu barik.



Aretxabaletako jokalariek zapatuan izotz gainean egin zituzten berotze ariketak. Partidua bertan behera geratu zenez, aratusteetako mozorroari azken ukituak egiteko aprobetxatu zuten arratsaldea. XABIER URTZELAI



Gordobil, beroketak gertutik jarraitzen. X.U.



Gordoa, Etxeandia eta Zubillaga izotza kentzen. X.U.



Eduardo Altube Fuentes epailearekin. X.U.

**HIRUGARREN MAILA** > 26. JARDUNALDIA

# UDA eta Arenas hogei minutuko antzerkia egitera behartuta

Ibarra futbol zelaia izoztuta egonda ere jokalariek berotze ariketak egin behar izan zituzten

Partidua bertan behera utzi aurretik ika-mika izan zen bi taldeetako ordezkarien artean

**XABIER URTZELAI** > ARETXABALETA

Aurtengo ligan Zalla-Beasain partidua bertan behera utzi zuten zelaia elurtuta zegoela argudiatuz, eta Gipuzkoako komunikabide batean azaldu zen erretratuak erakusten zuen ezetz, zelaia ondo zegoela. Horrelakorik ez errepikatzeko neurriak hartzea ondo dago, baina muturreraino joan barik, zapatuan Ibarran gertatu zen moduan.

Ibarra erabat izoztuta zegoen, min hartzeko moduan zegoen zelaia, baina bi taldeak hitzordura azaldu behar izan ziren. Azaldu bakarrik ez, Aretxabaletako eta Arenas taldeko jokalariek berotze ariketak ere egin behar izan zituzten, guztion harridurarako. Antzerkia egitera derrigortuta zeuden, Fuentes epaileak adierazi zuelako 16:00etan hartuko zuela erabakia, eta orduarako bi taldeak jokatzeko gertu egon behar zirelako.

Bada, 16:00etan epaileak erabaki zentzuzkoena hartu zuen, baina aratusteetako antzerkia soberan egon zen, baita ere klubeko ordezkariak izotza kentzeko lanean jartzea ere. Seguruenik eguaztenean jokatuko dute atzeratutako partidua.

**Eduardo Altube** > UDAko presidentea

## "Pentsaezina zen futbol zelai osoan zegoen izotza kentzen hastea"

**X.U.** > ARETXABALETA

**Aretxabaletako presidentea haserre zegoen zapatu arratsaldeko gertaerengatik. Batez ere Arenaseko presidenteak izandako jarreragatik zegoen minduta.**



GOIENKARIA

**Zelaia ondo mantentzeko nahikoa lan egin ez duzuela aurpegiratu dizue Arenaseko presidenteak.**

Hemen ez dugu zelaiko izotza kentzeko behar diren bitartekoak. Berba egitea erraza da, baina ikusi egin beharko litzateke euren zelaian zer egingo luketen.

***Berdegunea*** **min hartzeko moduan zegoen.**

Guk hasieratik esan dugu hori, baina epaileak hartu behar du erabakia. Esan digu zelai ondoko marrak eta areakoak garbitzeko baina horretan hasi garenean konturatu gara zelaia apurtzen ari ginela, kautxua altxatzen. Hori ikusita erabaki dugu geratzea.

**Eguaztenean jokatuko duzue?**

Seguruenik bai. Horregatik zegoen Arenas taldeko presidentea haserre, autobusa ordaindu beharko dutelako berriro.

**FUTBOLA** > XABIER BARKERORI OMENALDIA

# Antzuolak lehenengo zatian eutsi zion Eibarri

Partiduko gol guztiak bigarren zatian iritsi ziren; 0-4 aurreratu ziren eibartarrak

Berraondo eta Segurolaren golei esker, Antzuolak partiduko azken minutuetan murriztu zuen aldea


Antzuolako beteranoak zapatuko partiduaren atarian. Xabier Barkeroren argazkia erakutsi zuten kamisetetan. JON LEGORBURU

ANTZUOLA
**2-4**
EIBAR

**Antzuola** > Xabi Azkarate, Gurutz Zabalo, Juanpe Jurado, Andoni Rodriguez, Igor Larrea, Jon Aranguren, Javi Peñalba, Eneko Segurola, Gorka Manso, Arri Arin eta Josu Larrea. Honako hauek ere jokatu zuten: Aitor Gabilondo, Andoni Elkoro, Mikel Jauregi, Aitor Azkarate, Iker Irizar, Aitor Berraondo eta Andoni Azkargorta.

**Eibar** > Bilbao, Ugarte, Oiarbide, Mendigain, Luluaga, Bixente, Artetxe, Campos, Muguruza, Donosti eta Oliden. Partiduan zehar Sarri, Kruzelegi, Amutxastegi eta Kike atera zituen Mikel Beistegi eibartarren entrenatzaileak.

**Epailea** > Jon Madariaga. Lagunarteko partidua izanik, ez zuen inolako arazorik izan.

**Bestelakoak** > Xabier Barkero zenaren oroimenezko partiduaren 9. ekitaldia. 80 lagun inguru Estalan. Antzuola futbol taldekoek gogor egin behar izan zuten lan zapatu goizean, edurra kentzeko. Hotz handia partiduan zehar.

**EDU MENDIBIL** > ANTZUOLA

Zapatu arratsaldean, Antzuolan, Alemaniako Bundesligako partidua jokatzear zela zirudien. Elurra Estalarako bidean eta elurra zelaiaren bazterretan. Antolatzaileek lan bikaina egin zuten goiz osoan zehar partidua jokatu ahal izateko. Bigarrenez bertan behera lagatzea gehiegizkoa litzateke. Izan ere, Gabonen ostean jokatzekoa zen Xabier Barkeroren oroimenezkoa, baina Osasunako beteranoek ezezkoa eman zuten azken orduan eta partidua Aratustezapatuan egitea erabaki zuten, kontrarioa aldatuta gainera.

Eibarko beteranoei egin zieten gonbidapena eta 1980ko hamarkadan Eibar 2.A mailan egonkortu zuen taldea azaldu zen Estalan, Bixente, Luluaga, Artetxe eta konpainiak osatutakoa. Aurrean, Xabier Barkero zenaren taldekide izandako Antzuolako beteranoak izan zituzten. Etxekoek partidua serio hartzen zutela frogatzeko datu bat: azken bi hilabetetan domekero entrenatu dira.

**LEHEN ZATIA, PAREKATUTA**

Partiduaren atarian, gradu bakar bat markatzen zuen termometroak. Hala ere, Estalako belar artifiziala egoera ezin hobean zegoen futbolean egiteko. Eta horretan ahalegindu ziren bi taldeak. Eibar zen nagusi, baina Antzuolak ondo eutsi zien eibartar aurrelariei area inguruan. Donostik, Artetxek eta Muguruzak izan zituzten aukerarik onenak. Horietako bitan gelditu bikainak egin zituen Azkarate atezainak. Rodriguezek, berriz, gol marratik gertu urrundu zuen Muguruzaren errematea, 35. minutuan. Lehen zatia amaitzear zela, Josu Larreak buruz errematatu zuen area barruan, baina ondo erantzun zion Bilbaok.

Bigarren zatian, aurretik egindako esfortzua ordaindu zuten etxekoek eta antzuolarren beherakada fisikoaren aurrean Eibarrek ez zuen barkatu. Oliden aurrelariak bi gol egin zituen eta Muguruzak eta Bixentek bana. Antzuolak bi gol egin zituen amaieran, Berraondo eta Segurolari esker. Baina emaitza gutxienekoa zen.

## Klasiko bat Barkeroren oroimenez

Xabier Barkeroren oroimenezko partidua klasiko bat bilakatu da honez gero. Zapatukoa 9. ekitaldia izan zen. Iaz Bergarako beteranoak izan ziren gonbidatuak, eta aurreko urteetan Athletic eta Realeko beteranoak igaro dira Estala futbol zelaitik. Andoni Azkargorta Mondrako entrenatzaile antzuolarraren arabera, "liderra zen Xabier Barkero, taldekide berezia, harekin jokatu genuen guztioi modu batean edo bestean markatu gintuena". Xabier Barkero auto istripuan hil zen 1999ko abenduaren 17an.

Zapatuko partiduaren ostean, Luluaga Eibarko kapitainak plaka oroigarria eskaini zion Barkeroren arrebari, Nereari. Era berean, lore sorta bat eta partidurako egindako kamiseta jaso zituen Pedro Iturbe Antzuolako alkatearen eta jokalari antzuolarren eskutik. Jose Angel Fernandez Antzuolako presidentea pozik zegoen dena ondo atera zelako. Egunari amaiera borobila emateko, luntxa eskaini zieten jokalari guztiei Ongi-Etorri jatetxean. Berotan egoteko irrikaz ziren guztiak.

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

# Oiartzunek 3-0 irabazi zion Bergarari, jokalari bat gutxiagorekin gainera

Denboraldiko partidurik txarrena egin zuten mahoneroek, Manu Diazen arabera; oiartzuarren hiru golak bigarren zatian etorri ziren

OIARTZUN
**3-0**
BERGARA

**E.M.** > BERGARA

Bergarak aukera ederra galdu zuen zapatuan Oiartzunetik punturen bat ekartzeko. Hala ere, Manu Diaz Bergarako entrenatzaileak aitortu bezala, denboraldiko partidurik txarrena egin zuten mahoneroek eta merezimendu osoz galdu zuten Karla Lekuona futbol zelaian jokatutako partiduan. Nahiko egoera onean zegoen zelaia futbolean aritzeko, bezperako eta zapatuko elurteak kontuan izanda.

**BERDINTASUNA LEHEN ZATIAN**

Lehen zatian indarrak nahiko parekatuta izan ziren, baina jokaldi on gutxi ikusi ziren. Lehen zatia amaitzear zela, epaileak Oiartzuneko jokalari bat kanporatu zuen, baina Bergarak ez zuen jakin izan jarraipenean abantaila aprobetxatu. 60. eta 70. minutuetan falta bidez egin zituzten etxekoek lehen bi golak; bergararrak ez ziren batere fin ibili jokaldi horiek defendatzerakoan. 2-0ekoarekin Mujikak eta Alzolak izan zituzten gol aukerak, baina huts egin zuten. Eta partiduaren amaieran iritsi zen etxekoen hirugarren gola..



**ESTUTZEN** Alzola idiazabaleko kontrarioa estutzen, joan den astean. GOIENKARIA

**SAGARDOTEGIRA GAUEAN**

Bergarako jokalariek Petritegi sagardotegian egin zuten Aratuste-zapatuko afaria. Ez zuten garaipena ospatzerik izan.

> OHOREZKO ERREGIONALA

### Aloña zazpigarren, Hernanin 0-1 irabazi eta gero

Pablo Diez entrenatzaile berriarekin Aloñak sendo jarraitzen du. Zapatuan, Hernanin irabazi zuten 0-1, Iñigo Arregiren golari esker. Diez aulkian denetik, lau partidu irabazi eta bestea berdindu egin dute oñatiarrek. Hernaniko sagardotegi baten ospatu zuten zapatuko garaipena.

> GAZTE MAILA

### Aretxabaletak 1-0 galdu zuen zapatuan Bilbon

Gazteen mailako liga nazionalean, Aretxabaletak 1-0 galdu zuen zapatu goizean Bilbon, Danok Bat taldearen kontra. Sailkapenaren erdialdean dira aretxabaletarrak, 22 punturekin. Hurrengo jardunaldian Real Sociedad hartuko du UDAk Ibarran. Donostiarrak hirugarren tokian dira.

**EUSKADIKO LIGA** > 20. JARDUNALDIA

# Askartzari irabazita, sailkapeneko hirugarren tokian da Ford Mugarri

Egiak, Ford Mugarrik eta Askartzak bigarren postua lortzeko borrokatuko dute liga amaierara arte

Alde handiena amaieran lortu zuen Ford Mugarrik (31-27)

FORD MUGARRI ARRASATE
**33-32**
ASKARTZA


Aitor Aldanondo, baloiarekin, arerioz inguratuta. Bera izan zen partiduko golegile nagusia (10 gol) zapatuan. J. ARANTZABAL

**E.M.** > BERGARA
Badira ohiko puntuak baino zerbait gehiago jokoan izaten duten partiduak. Horietako bat genuen Ford Mugarriren eta Askartzaren artekoa. Bizkaitarrak arrasatearren aurretik ziren sailkapenean, puntu bakar bategatik, eta gauzak horrela interes berezia zuen zapatuko neurketak, arerio zuzenak baitira Ford Mugarri eta Askartza. Etxekoen garaipenaren ostean, arrasatearrek aurrea hartu dute sailkapenean eta liga amaitu bitartean lehia bizia aurreikus daiteke Egia, Ford Mugarri eta Askartzaren artean. Aipatutako hiru taldeek bigarren postua lortzeko borrokatuko dute. Barakaldo liderra harrapatzea ezinezkoa dirudi.

**TARTEKIA**
Askartzak eta Ford Mugarrik argi utzi zuten zapatuan zergatik diren sailkapeneko goiko postuetan. Biak ere garaipenaren bila kantxaratu ziren Iturripen. Maila handiko eskubaloiarekin gozatu ahal izan zuten Iturripera hurbildutako ikusle eskasek.

Erasoan, landutako jokaldiak egiten zituzten bi taldeek eta atzean gogor eusten zieten euren arerioei. Erasotzerako orduan, zaila zen defentsen artean tarteren bat topatzea. Atsedenaldira 15nako berdinketarekin iritsi ziren Mondra eta Askartza. Bigarrenean, etxekoek ez zuten eutsi, konbentzituta baleude bi puntuak etxean geratuko zirela. Askartzako atezainak buruhauste ugari eman zien. Alde handiena 3 minutu eta 30 segundoren faltan lortu zuen Ford Mugarrik (31-27). Etxekoek defentsako bikaina erakutsi zuten eta garaipenak ez zien ihes egin.

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA** > 17. JARDUNALDIA

# Bergararrek eskura izan zuten garaipena; penalti bat huts egin zuten amaieran

SORALUCE B.K.E.
**28-28**
ORMAIZTEGI

**E.M.** > BERGARA
Josetxo Muniategi bergararren entrenatzailea ez zegoen gustura ez emaitzarekin, ezta bere taldearen jokoarekin. Mikel Larrañagaren eta Mikel Plazaolaren bajak zituzten bergararrek eta bazekiten garaipena lortzea ez zela erraza gertatutako, Ormaiztegi sailkapenean beherago egon arren. Lehen zatian etxekoak izan ziren nagusi eta horrela, atsedenaldira, hiru goleko abantailarekin heldu ziren mahoneroak (16-13). Eneko Sodupe min handia egiten ari zen erasoko jokaldietan eta 5 gol lortu zituen 26 minututan, epaileak kanporatu zuen arte hain justu. Arerio bati burukada emateagatik txartel gorria ikusi zuen Sodupek.

**HIRU PENALTI HUTS EGIN**
Bigarren zatian erosoago jokatu zuten Ormaiztegikoek eta Bergarak ez zuen asmatzen defentsan. Orden barik, nahastuta ibili ziren etxekoak eta egunik onena ez zutela agerikoa zen: hiru penalti huts egin zituzten. Partidua amaitzeko 30 segundo falta zirela (28-28), Alatz Etxeberriarteunek huts egin zuen hirugarrena. Puntu bakarrarekin konformatu behar izan ziren bergararrak.


**ERASOAN.** Josu Urbina, golera jaurtitzen. Lau gol egin zituen. JOSETXO ARANTZABAL

> ESKUBALOIA

### Aloñako kadete mailako bi taldeek galdu egin dute

Aloña Mendiko kadete mailako taldeek ez dute emaitza onik eskuratu oraingo aste bukaeran; mutilen Berezao Aloña taldeak 27-30 galdu zuen Pulpo taldearen aurka, zapatuan Zubikoan. Verkol Aloña nesken taldeak etxean galdu zuen atzo, 14-23, Bide Onera taldearen kontra.

> ESKUBALOIA

### Aloñako seniorrak galdu; gazteek Usurbili irabazi

Gipuzkoako Ligan lehiatzen den Izarraitz Aloña taldeak ez zuen punturik lortu zapatuan Zarautzera egindako bisitan. Amenabar taldea 33-22 nagusitu zitzaien oñatiarrei.

Gazte mailan, berriz, Aloña Mendik 30-29 irabazi zion Usurbili, egubakoitzean Zubikoa kiroldegian.

> PILOTA

### Lau t'erdiaren barruan partiduak Bergaran martitzenean

Elite mailako lau t´erdiko Soraluce txapelketak aurrera segitzen du eta martitzenean, hilaren 16an, beste hiru partidu jokatuko dira Bergarako Udal Pilotalekuan, 19:00etan hasita. 24 urtetik gorako pilotariei zuzendutako txapelketa da. Finala martxoaren 23an jokatuko da.

> DUATLOIA

### Oñatiko duatloia martxoaren 13an jokatuko dute

Oñatiko duatloia jokatuko da martxoaren 13an eta izenematea zabalik dago dagoeneko. Interesatuek *www.trialoi.org* webgunera jo dezakete izena emateko. Oñatiko proba laugarrena izango da aurtengo duatloi denboraldian. Lehenbiziko proba Mungian jokatuko da, otsailaren 27an.

> FUTBOLA

### Salamancara irteera ibarreko peñekin, Reala animatzera

Bergarako Real-zaleak taldeak martxoaren 13an edo 14an Realak Salamancan jokatuko duen partidura joateko irteera antolatu du. Argibideak, Erreki tabernan (943 76 38 51).

Arrasate Txuri-urdin, Gontxa Taldie eta Bonba Taldie lagunarteek ere bidaia antolatu dute. Argibideak Monte eta Basati tabernetan.

**MENDIKO ESKIA** > ESPAINIAKO TXAPELKETA FORMIGALEN

# Euskaldunen artean, Aitor Otxoa bigarren

Sailkapen orokorrean 23. geratu zen oñatiarra. Iban Letamendik proba utzi behar izan zuen kranpoiekin arazoak izan ostean.



Aitor Otxoa, mendiko eskiko lasterketa batean. GOIENKARIA

**TXOMIN MADINA** > BERGARA

Zero azpitik 12 gradu markatzen zituen termometroak atzo Formigalen Mendiko Eskiko Espainiako Txapelketari hasiera eman zitzaionean. Elur-jausien mehatxuagatik gainera, antolatzaileek ibilbidea aldatu behar izan zuten.

120 lasterkari inguru bildu ziren irteera puntuan, tartean taldekide diren Iban Letamendi eta Aitor Otxoa oñatiarrak. Bietatik Otxoak baino ez zuen lortu 1.550 metro inguruko desnibeleko proba amaitzea. 23. bukatu zuen proba Otxoak eta euskaldunen artean helmugaratzen bigarrena izan zen. Gustura zegoen proba amaitzean, jokatutako azken proban baino sentsazio hobeekin ibili zen-eta atzo.

**LETAMENDIK, EZIN AMAITU**

Iban Letamendik ezin izan zuen proba amaitu, bertan behera utzi zuenenan lehenengo euskalduna zen arren. "Ibilbidearen zati bat kranpoiekin egin behar zen, eta ezin izan ditut kranpoiak behar bezala jarri. Horren ondorioz, proba uztea erabaki dut" azaldu zigun oñatiarrak.

> SASKIBALOIA

### MUk ezin izan zuen UPV Alavaren aurka eta arabarrek 30 puntuko aldea lortu zuten

UPV Alava izan zen zapatuan MUren aurkaria. Arabarrak sailkapenean hirugarrenak izanda, arrasatearrentzat partidu zaila izango zela aurreikusten zen, eta aurreikuspenak bete egin ziren. 97-67 galduta, esku hutsik itzuli ziren arrasatearrak. Hurrengo zapatuan partidu garrantzitsua izango du MUk. La Salle izango da aurkaria, arrasatearrekin jaitsiera fasean neurtzeko aukera asko dituen taldea, hain zuzen ere. Ezinbestekoa izango da beraz, neurketa horretako puntuak batzea.

> SASKIBALOIA

### Askartzari irabazita, igoera fasea jokatzeko aukerak sendotu zituen Aloñak zapatuan

Maila autonomikoan Askartzak eta Aloña Mendik, biek ala biek partidu ona, erritmoduna jokatu zuten zapatuan Leioan. Oñatiarrak lehen laurdenetik jarri ziren aurretik eta bizkaitarrek azken minutuetan markagailuan gerturatzea lortu bazuten ere, Aloña Mendi izan zen garaile, 82-92.

Garaipen horri esker, lider jarraitzen dute oñatiarrek, hori bai, beste bi talderekin berdinduta. UPV Alava izango dute hurrengo aurkaria, hau ere igoera fasean sartzeko borrokan ari dena.

> ATLETISMOA

### Malen Ruiz de Azua arrasatearrak, Espainiako errekorra hautsi du pertika-saltoan

Malen Ruiz de Azua pertika-jauzilari arrasatearrak sasoi ezin hobean dagoela erakutsi du asteburuan Valentzian jokoan egon den kadete mailako Espainiako txapelketan, 3,48 metroko saltoa eginda Espainiako errekorra hautsi du arrasatearrak.Bidasoa taldeko ordezkari moduan hartu du parte Ruiz de Azuak Valentziako txapelketan. Zazpi egunen buruan hausten duen bigarren errekorra da zapatukoa; otsailaren 13an, Euskadiko txapelketako errekorra ondu zuen 3,28 metroko saltoarekin.

## Futbola

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Real Sociedad B** | **53** | 26 |
| 2. **Amorebieta** | **52** | 26 |
| 3. **Portugalete** | **44** | 26 |
| 4. **Beasain** | **42** | 26 |
| 5. **Cultural de Durango** | **42** | 26 |
| 6. **Gernika** | **41** | 26 |
| 7. **Elgoibar** | **41** | 26 |
| 8. **Zamudio** | **40** | 26 |
| 9. **Basconia** | **38** | 26 |
| 10. **Amurrio** | **36** | 25 |
| 11. **Arenas** | **32** | 26 |
| 12. **Zalla** | **32** | 25 |
| 13. **Santurtzi** | **31** | 26 |
| 14. **Eibar B** | **31** | 26 |
| 15. **Leioa** | **31** | 26 |
| 16. **Lagun Onak** | **30** | 26 |
| 17. **Aretxabaleta** | **27** | 25 |
| 18. **Laudio** | **25** | 25 |
| 19. **Retuerto Sport** | **22** | 26 |
| 20. **Salvatierra** | **9** | 25 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta-Arenas | bertan behera |
| Leioa-Eibar | 0-3 |
| Retuerto-Reala | 0-5 |
| Amorebieta-Lagun Onak | 1-0 |
| Salvatierra-Santurtzi | bertan behera |
| Amurrio-Laudio | bertan behera |
| Portugalete-Zalla | 3-0 |
| Elgoibar-Gernika | 2-0 |
| Zamudio-Beasain | 0-1 |
| Basconia-Cultural Dur. | 2-2 |

**Hurrengoak**

**Aretxabaleta-**Arenas

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Pasajes** | **47** | 21 |
| 2. **Zarautz** | **42** | 21 |
| 3. **Aurrera** | **41** | 21 |
| 4. **Tolosa** | **33** | 20 |
| 5. **Idiazabal** | **32** | 20 |
| 6. **Ordizia** | **31** | 21 |
| 7. **Aloña Mendi** | **30** | 21 |
| 8. **Oiartzun** | **30** | 21 |
| 9. **Berio** | **29** | 21 |
| 10. **Bergara** | **26** | 21 |
| 11. **Trintxerpe** | **26** | 21 |
| 12. **Mondra** | **25** | 20 |
| 13. **Hondarribia** | **24** | 21 |
| 14. **EHU Vasconia** | **23** | 21 |
| 15. **Hernani** | **23** | 21 |
| 16. **Euskalduna** | **19** | 20 |
| 17. **Beti Gazte** | **18** | 21 |
| 18. **Real Union** | **17** | 21 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Real Union-Hondarribia | 0-0 |
| **Mondra**-Tolosa | bertan behera |
| Oiartzun-**Bergara** | 3-0 |
| Hernani-**Aloña Mendi** | 0-1 |
| Ordizia-Berio | 0-0 |
| Zarautz-Aurrera de Ond. | 1-1 |
| Idiazabal-Euskalduna | bertan behera |
| EHU Vasconia-Trintxerpe | 2-2 |
| Pasajes-Beti Gazte | 4-1 |

**Hurrengoak**

Trintxerpe-**Aloña Mendi**
EHU Vasconia-**Bergara**
Oiartzun-**Mondra**

### BESTE KATEGORIAK

| | |
|---|---|
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Danobat B- Aretxabaleta | 1-0 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Bergara-Getxo | bertan behera |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Aretxabaleta B-Getariako | bertan behera |
| Anaitasuna-Antzuola | 3-2 |
| **LEHEN ERREGIONALA, IGOERA** | |
| Bergara-Asoleus | bertan behera |
| Ordizia-Mondra | ----- |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA, KOPA** | |
| Hondarribia-Mondra | 1-0 |
| Burumendi-Aloña Mendi | 2-2 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA, IGOERA FASEA** | |
| Real Union-Aretxabaleta B Arizmendi | 3-1 |
| **KADETEEN OHOREZKO MAILA, IGOERA** | |
| Ordizia-Aretxabaleta | bertan behera |
| Antiguoko-Bergara | 2-2 |
| **KADETEEN LEHENENGO MAILA, IGOERA** | |
| Aloña Mendi-Trintxerpe | --- |
| Arrasate-Ekintza | --- |
| **KADETEAK, KOPA** | |
| Aretxabaleta-Bergara | 3-1 |
| **EMAKUMEZKOAK, IGOERA FASEA** | |
| Amara Berri-Mondra | 2-4 |

## eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO SENIORRAK** | |
| Ford Mugarri-Askartza | **33-32** |
| **EUSKADIKO KADETEAK, GIZONEZK** | |
| Berezao Aloña-Pulpo | 27-30 |
| **EUSKADIKO KADETE. EMAKUM.** | |
| Berezao Aloña-Bide onera | 14-23 |
| **LEHEN TERRITORIAL MAILA** | |
| Soraluce BKE-Ormaiztegi | 28-28 |
| **LEHEN TERRITORIAL MAILA** | |
| Soraluce BKE-Ormaiztegi | 28-28 |
| Amenabar-Izarraitz Aloña Mendi | 33-22 |
| **BIGARREN TERRITORIAL MAILA** | |
| Donibane-Arrasate | 31-31 |
| **FEDERAZIO SARIA** | |
| Egia-Bergara Soraluce | 39-11 |
| Aloña Mendi-Usurbil | 30-29 |
| **FORU ALDUNDIKO TORNEOA** | |
| Bergara Soral.-Arrate | 21-32 |
| Karibe zahar.-Talleres Chapime | 45-18 |

## saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA** | |
| UPV Alava-MU- | **97-67** |
| **SENIOR AUTONOMIKOA** | |
| Askartza-Aloña Mendi | 82-92 |
| **GAZTE GIZONEZKOAK, PARTE-HAR.** | |
| Soraluce BKE-Soraluce BKE | 63-67 |
| MU-CD Internacional | 45-62 |

## errugbia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **SENIOR GIZONEZKOAK** | |
| Elorrio RT-Kanpanzar | 24-00 |


Harmailatik
Debagoieneko kirola GOITBn
Astelehenero 22:15ean.
Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!

**OÑATI**

# Kanpoan izotza; kantxa barruan ondo moldatu ziren gazteak

**KANPOAN HOTZ, BARRUAN BERO** Zubikoan bildu ziren gaztetxoak segituan hasi ziren izerdia botatzen

**KIROL EZBERDINAK** Saskibaloia, eskubaloia eta areto futbola izan ziren zapatu goizeko txandako kirolak

**GAZTETXO UGARI** Guztira hogeita lau talde elkartu ziren kiroldegian. Kirol bakoitzean zortzi talde aritu ziren

**NAROA ODRIOZOLA**> OÑATI

Zapatu goizean elurra eta hotza izan arren, ez ziren ohean geratu Oñatiko gaztetxoak –eta aratusteengatik ere ez zuten atsedenik hartu–. 09:00ak inguru jo zuen hainbat gaztetxoen iratzargailuak, lehendabiziko txanda 09:30ean izan zen-eta. Beste batzuk ordea, denbora gehiagoz egon ziren ohean, ordu bete geroago elkartu behar ziren-eta.

Gaztetxo batzuei, beste batzuei baino gehiago kostatu zitzaien ohetik irtetea, baina Zubikoa kiroldegira heldu orduko esna zeuden eta jokatzeko prest. Gurasoak, aldiz, zapatu goizetan goiz esnatzera ohitu dira dagoeneko, eta Zubikoa kiroldegiko harmailak bete zituzten gaztetxoei animoak emateko.

**KIROLAK AUKERAN**

Normalean kirol batean jarduten dute. Oraingoan, ordea, hiru kiroletan lehiatu ziren Eskola Kirola saioan; areto futbola, saskibaloia eta eskubaloia. Kirol bakoitzeko zortzi talde elkartu ziren.

Kirol guztiak bi txandetan egin zituzten; lehenengoa goizeko 09:30ean eta bigarrena 10:30ean. Txanda bakoitzean lau taldek jokatu zuten.

4.mailakoak kantxa urdinean elkartu ziren areto futbolean aritzeko eta gu beraiekin egon ginen argazkiak ateratzeko. Saskibaloia kantxa berdean antolatu zen eta 6.mailakoek aritu ziren. Azkenik, 3.mailakoak eskubaloian jokatu zuten eta bi kantxetan banatuak egon ziren.



N.O.

**Udala.** Zutik: Jose Manuel, Mikel, Ander,Joseba eta Markel. Makurtuta: Aritz, Adrian eta Manex.



N.O.

**Duru.** Zutik: Imanol, Manex, Koldo eta Julen. Makurtuta: Bittor, Xabier, Imanol eta Julen.



N.O.

**Andraitz.** Zutik: Julen, Mikel, Danel, Markel eta Julen entrenatzaileekin. Makurtuta: Ibai, Mikel, Eneko, Unai eta Xabier.



N.O.

**Orkatzategi.** Zutik: Gaizka, Aitor eta Asier. Makurtuta: Ander, Jon eta Enaitz.

## GUSTUKO DUZUE ARETO FUTBOLA? ZEIN DA GEHIEN GUSTATZEN ZAIZUEN KIROLA?



**Gurutz**
Aloña

Gurutzek ez zuen areto futbolean jokatu, Aloña taldeari eskubaloian jokatzea tokatzen zitzaion-eta. Hala ere gaztetxoarekin elkartu ginen eta esan zigunez gogoko du areto futbola; hain zuzen, gehien gustatzen zaion kirola da.



**Mikel eta Adrian**
Udala

Jokatzen hasi aurretik hitz egin genuen Udala taldeko Mikelekin eta Adrianekin. Esan zigutenez, gustuko dute areto futbola, futbola delako. Eta biek bat egin zuten eskubaloia gehien gustatzen zaien kirola dela esatean.



**Urko, Aritz eta Egoitz**
Aloña

Urko, Aritz eta Egoitz Aloña taldeko jokalariak dira eta eskubaloi partidua hasi aurretik bildu ginen eurekin. Baloiarekin ibiltzea gustuko dute eta esan zigutenez, futbola nahiago dute areto futbola baino.



**Jon eta Gaizka**
Orkatzategi

Jokatzen hasi aurretik hitz egin genuen bi mutil hauekin. Adierazi zigutenez, gustuko dute areto futbola, futbola gogoko dutelako. Gainera, baloiarekin jolastea gustatzen zaie eta futbola da beraien kirolik gustukoena.



**Julen**
Aratz

Julenek, Gurutzen bezala, eskubaloian jokatu behar zuen eta partiduarekin hasi aurretik elkartu ginen gaztetxoarekin. Azaldu zigunez, eskubaloia baino gehiago gustatzen zaio areto futbola; kirolik gogokoena du.

**Gaizka Romero** > Antxintxiketan Giokela taldeko atleta

# "Saharan egingo dugun lasterketa proba soil bat baino askoz gehiago da"

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

**Gaizka Romero (1984) orain dela lau urte hasi zen Antxintxiketan taldean korrika. Neurri handian Ritxar Fernandezek animatu zuen korrika egiten hastera, Arrasate-Oñati lasterketan dohainak zituela ikusita. Ordutik kilometro asko pilatu ditu hanketan, eta azkenaldian pistan ibiltzera ere animatu da. Oraindik, baina, korritzeke du barruraino iritsiko zaion lasterketa, hilaren 22an Saharan egingo duten maratoi erdia.**



Gaizka Romero, aste barruan Oñatin. XABIER URTZELAI

**Gertu Saharara bidaia egiteko?**

Bidaia egiteko bai, baina lasterketarako ez dakit nik [barre]. Badakit proba gogorra izango dela, ez nagoelako distantzia horretara ohituta, baina gogo handiz noa hara.

**Maratoia da lasterketa nagusia, eta maratoi erdia egingo duzu zuk.**

Pentsa, maratoi erdia niretako larregi bada zer esan maratoiaren gainean. Burutik pasa zitzaidan maratoia egitea, lasterketa ederra izango delako, baina segituan baztertu nuen ideia hori, ni 10.000 metroko distantziak egitera ohituta nagoelako, eta maratoi batetik errekuperatzeko denbora asko beharko nuelako.

**Distantziara ohitu gabe, eta desertuan. Tenperatura aldaketa handia izango duzue.**

Hemen hotzarekin entrenatzera ohitu gara, baina esan digute lasterketa hasterakoan 24 gradu inguru izango ditugula. Gauean bai, hotz galanta egiten duela, baina proba goizean hasiko dugu eta bero larregi ere ez du egingo.

**Ikusgarria izango da.**

Bai, bizitzeko esperientzia bat. Maratoi erdian 500 lagun inguruk hartuko dugu esku, baina maratoira 2.000 lagun inguru joaten direla uste dut, horrenbestez, ikusgarria.

**Gainera, ez da lasterketa hutsa izango, ekimen solidario bat izango delako.**

Bai, eta neuretako horixe da garrantzitsuena, astebetez saharrarrekin batera biziko garelako eta ahal dugun guztian laguntzen saiatuko garelako. Ze egoeratan bizi diren bertatik bertara ikusi eta hango proban esku hartu; lasterketa hutsa baino askoz ere gehiago da. Beldur apur bat ere ematen dit.

**Zergatik beldurra?**

Horrelako gauzetarako nahiko sentikorra naizelako eta azken batean leku pobre batera goazelako. Arazoa ez da astebetez inongo erosotasunik ez izatea, arduratzen nauena da han ikusitakoak ze inpresio egingo didan. Dena dela, garbi daukat hango neskamutikoek hemengoek baino askoz ere gutxiago izanda ere, ez dutela irribarrea galtzen. Horrek ematen du zer pentsatu.

**"Lasterketa aurreko egunean 'pasta-party' izeneko jaia egingo dugu, elkar ezagutzeko eta urduritasunak kentzeko"**

**Dagoeneko antolatuta izango duzue han egingo duzuen astebetea.**

Bai. Hara iritsitakoan lauzpabost laguneko taldeak osatzen dituzte eta talde bakoitza hango familia batekin joaten da, euren *jaima*-ra. Ikastetxeetara ere joango gara, baina egia da lasterketan esku hartu behar dugunok gutxiago bidaiatuko dugula, distantziak oso luzeak direlako eta lasterketa aurretik oso urrun joatea ere komeni ez delako.

**Harrera beroa egingo dizuetela uste dut.**

Hala da. *Pasta party* izeneko jai bat egingo dugu, lasterketa egunaren bezperan! [barre] Ondo etorriko zaigu jai hori, lasterketa burutik kentzeko eta hangoak hobeto ezagutzeko. Disfrutatzeko eguna izango da.

**Euskal Herritik koadrila polita joango zarete.**

Bai, 100 lagun inguru goaz hemendik, eta ibarrean Bergarakoekin batera joango naiz ni. Baina, Madrilen jendetza izugarriarekin elkartuko gara eta Sahara inguruko beste herrialde askotako korrikalariak ere izango dira proban.

**Saharako lasterketa alde batera utzita. Antxintxiketan-Giokela taldeko kideak buru-belarri murgilduta zaudete denboraldian. Zer moduz ari zarete?**

Talde moduan oso ondo gabiltzala uste dut, krosetan lan oso txukuna egiten eta aurtengo denboraldia gogoan izateko modukoa izango dela uste dut. Pertsonalki ere oso pozik nabil. Pistan sartu naiz lehenengoz, eta krosetan ere banabil. Gipuzkoako txapelketan, pistan, 1.500 metroko lasterketan hirugarren izan nintzen eta hori oso pozgarria da niretako.

**Badirudi orain hasi zarela azken urteotako lanaren fruituak batzen.**

Halaxe dela esango nuke. Atletismoan emaitzak ez dira bapatean jasotzen, aurrera egiteko han handia egin behar da eta bai, badirudi orain hasi naizela jasotzen orain dela lau urte hasitako lanaren ordaina.

**Saharatik itzultzerakoan, ze lasterketa dituzu egutegian gorriz markatuta?**

Hasteko, Saharatik itzultzerakoan atseden apur bat hartuko dut, bi astez-edo. Ondoren lasterketa herrikoi batzuetan hartuko dut esku, eta apirila eta maiatza inguruan aire zabaleko pistako lasterketetan zelan nabilen ikusi nahi dut.

**Atseden hartu esan duzu, zentzu guztietan.**

Bai, lehen esandako moduan Saharakoa bizipen oso intentsua izango delako, baita emozionalki ere.



Ume bat, kezkatuta, lurrean eserita. OSMISAN

**PREBENTZIOA** > SENTIMENDUAK

# Sentimenduak nola adierazi eta bereizi ikasi behar dute umeek

Egoera konpontzeko adierazi egin behar da, eta horregatik da garrantzitsua txikitatik seme-alabak sentimenduak adierazten trebatzea

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE
Gaur egun sentimenduak erakustera ohituta ez bagaude ere, egunerokotasunean berehala igartzen ditugu bata edo bestearen gogo-aldarte aldaketak: triste, arraro, haserre edo maiteminduta dagoen, adibidez. Sentitu eta ikusi egin arren, ez da horren inguruan hitz egiten eta "seme-alabak sentimenduak adierazten trebatu nahi baditugu, garrantzitsua da guk ere etxean sentimenduak adieraztea, dena delakoagatik pozik, triste, haserre… gaudela esatea", dio prebentzio gaietan aditua den Maite Aizpirik.

**HITZEZ ERE BAI**
"Ez hitzezko lengoaia garrantzitsua bada ere, elkar ulertu nahi badugu, zenbait egoeratan ezinbestekoa da sentimenduak hitzen bitartez adieraztea. Izan ere, haserre bagaude eta gure haserrea isiltasunarekin, ate danbateko batekin adierazten badugu, askotan gure sentimenduen inguruan hitz egiteko, elkar ulertzeko eta konponbideak bilatzeko uneak galduko ditugu, eta tentsioa, amorrua etab. areagotu egingo da noizbait eztanda egin arte. Era horretan, seme-alabek ez dute erraz ikasiko etxean sentimenduak lasai adierazten", azaldu du Aizpirik. Haren ustez, sentimenduen adierazpena txikitatik lantzea garrantzitsua da eta umeei erakutsi behar zaie sentimenduak adierazten eta bereizten. Horretarako, baina, "euren lekuan jartzen ahalegindu behar dugu, eta egoera eta ondorioak hausnartzen. Bide batez, "seme-alabek ere ikasi egin behar dute besteen lekuan jartzen, nola sentitzen diren ulertzen", dio.

**GATAZKAK** > FAMILIA

## Gipuzkoako lehen familia elkargune publikoa

Modu traumatikoan banandu direnen seme-alabak guraso biekin egotea ahalbideratuko du

**O.E** > ARRASATE
Donostian zabaldu dute Gipuzkoako lehen familia elkargune publikoa. Eusko Jaurlaritzak kudeatuko du eta ahalbidetuko du modu traumatikoan bereizi diren bikoteen seme-alabek aukera izan dezatela zaintza ez duen gurasoarekin bildu eta harekin harremana mantentzeko, betiere profesionalen gainbegiratzearen pean. Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak, Gema Zabaletak, inauguratu du elkargune berria.

Epailearen aginduz jotzen dute bikoteek familia elkarguneetara; bikotekideen arteko harremana gaiztotua dagoela ikusten duenean, seme-alaben onura bermatzeko.

Zerbitzua urtarrilaren erdialdea ezkero dabil lanean, eta dagoeneko 73 familiari eta guztira 86 adingaberi eskaini die arreta, psikologo batek, gizarte-langile batek eta koordinatzaile batek osatutako lantaldearen bitartez.

Orain artean Gipuzkoan bi familia elkargune pribatuk jardun dute, funtzionamendurako diru publikoa jaso dutenak. Iaz, 300 familiak baino gehiagok jo zuten Euskadiko familia elkarguneetara.

**ZAINTZA PARTEKATUA**
Bestalde, La Terraza elkarteak Arartekoari gutunak bidali dizkio umeen zaintza partekatuaren alde egin dezan eta Bizkaiko Batzar Nagusietan ere ekimen bat aurkeztu du alderdi politikoen babesa jasotzeko. "Estatu espainolean eta frantsesan dibortziatuz gero, eskubide ezberdinak eskuratzen dira, adibidez, umeen zaintza partekatzearen inguruan", eta, elkarte horren ustez, egoera hori "bidegabekoa" da.

Ekimen horrekin, alderdi politikoen babesa jasotzeaz gain, alderdiei eskatu diete Espainiako Gobernuak Dibortzioaren Legea alda dezan egin beharrekoak egiteko. Udaletan mozioak aurkeztuko dituzte.



Bikote bat islatzen duen artelana. DAQUELLA MANERA



Gazte koadrila bat merkatu batean. FRANZ TUNDA

**GAZTEAK** > KEZKAK

## Lan merkatuak kezkatzen ditu gazteak

Etxebizitza, arazo ekonomikoak eta indarkeria dira haien hurrengo kezka nagusiak

**O.E.** > OÑATI
Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako ikerketa baten arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean lan merkatuaren egoera (%59) da kezka nagusia. Bigarren eta hirugarren ardura etxebizitza (%33) eta arazo ekonomikoak (%30) dira. Bestalde, laugarren kezka indarkeria eta terrorismoa dira (%24).

30 urte baino gehiago dituztenen artean kezkarik nagusiak lan merkatua (%73) eta terrorismoa (%36) dira. Hirugarren kezka arazo ekonomikoak (%15) dira eta laugarrena eta bosgarrena euskal politikaren egoera (%21) eta etxebizitza (%20) dira.

**EGOERA POLITIKOA**
Jaurlaritzako ikerketa horrek dio gazteen %55en ustez egoera politikoa txarra dela, %24rentzat ona, %11rentzat oso txarra eta inork ez du uste egoera oso ona denik.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> 'XABINATOR'**
Alkainen eta taldekideen lan berriak harrera oso ona izan zuen Oñatin eta Arrasaten **> 30**



**> IPUIN MUSIKATUA**
90 neska-mutikok 'Jostailugilea' ipuin musikatua eraman zuten agertokira Oñatin **> 30**



**> MAITASUN GUTUNA**
Pasai Donibaneko Juan Mari Agirreurretak idatzi du aurtengo amodiozko gutun onena **> 31**



Sorkunek eta Mahaster Riverrek urtarrilean Oñatin emandako kontzertua izan da Gaztemaniak! barruan antolatutako azkena. GOIENAKRIA

# Zehazteke dago Gaztemaniak! nola gauzatuko den ibarrean

**OÑATI** Udaletik Gaztemaniak!-ekin jarraitzeko borondatea adierazi dute

**ARRASATE** Gauzak ez daude hain argi, ez dute eta ekimenerako diru partidarik aurreikusi

**TXOMIN MADINA** > BERGARA

Azken hilabeteotan bere etorkizuna zalantzan egon ostean, baieztatuta dago Gaztemaniak! programak aurrera egingo duela. Lehenengo kontzertua ere zehaztuta dago dagoeneko; Hondarribian izango da, martxoa amaieran.

Aldundiaren Gazte eta Haurren sailaren ekimena da Gaztemaniak!, eta handik jakinarazi digutenez, erabakitzeke dago 2010ean ekimen honen barruan zenbat kontzertu egingo diren eta non izango diren hauek. Bost udalekin elkarlanean burutzen du Aldundiak Gaztemaniak!,tartean Oñati eta Arrasatekoarekin. baina oraindik ez du hitzarmenik sinatu bi hauekin.

**JARRAITZEKO PREST**

Oñatiko Gaztelekuko arduradun den Joxe Mari Azpitartek azaldu duenez, Udalak badu programa honekin jarraitzeko borondatea. Iaz hiru kontzertu antolatu ziren herrian Gaztemaniak!-en barruan: horietako bi Aldundiaren kontu izan ziren, eta hirugarrena, Udalak ordaindu zuen.

Esan bezala, Oñatin programaren barruan jarraitzea da asmoa, nahiz eta kontzertu gutxiagorekin izan. "Beste edizioetan antolatutako kontzertuak arrakastatsuak izan dira", adierazi digu Azpitartek, eta gaineratu herritarrak ez ezik, kanpoko jendea erakartzea ere lortu dutela kontzertuek.

Iaz bi kontzertu antolatu ziren Arrasaten Gaztemaniak!-en harira; 2010era begira baina, gauzak ez daude hain garbi. Udaleko Gazteria teknikaria den Blanka Jauregik esan digunez, hasiera baten aurten Gaztemaniak! ez zela egongo iragarri zenez, ez zuten berau finantzatzeko dirurik aurreikusi. Dena den, asmoa da programarekin jarraitzea, eta horretarako aukerak aztertzen ari dira."Ekimen interesgarria da, bestela herrira etorriko ez ziren taldeak ekartzeko balio dueta" adierazi digu Jauregik.

**ALDEKO ATXIKIMENDUAK**

Aldundiak programa eteteko asmoa zuela iragarri zuenean, Gaztemaniak!-ekin jarraitzea eskatzeko atxikimenduak biltzen hasi ziren sarean eta dagoeneko, ia 800 pertsonak egin dute bat kanpaina honekin.

Arkaitz Villar musika aditu oñatiarra da atxikimendua eman duenetako bat. Bere esanetan, aukera aparta da Gaztemaniak! talde oso interesgarriak zuzenean eta prezio onean ikusteko. "Kargu politikoen dietetan, Gaztemaniak!-en aurrekontuan baino gehiago gastatzen da; murrizketak has daitezela hortik!" gaineratu du Villarrek.

DATUA

**5**

**KONTZERTU**

2009ko programaren barruan antolatutako 16 kontzertuetatik, bost izan ziren Arrasate eta Oñatin antolatutakoak. Horietatik bi ordaindu zituzten Udalek.

MUSIKARIEN IRITZIA

## Baliagarria eta beharrezkoa

Debagoieneko taldeek ere jo izan dute Gaztemaniak!-en barruan, Potemkinek esaterako. Bertako Iban Idigorasen ustez, aukera aparta da hasten ari diren taldeentzat. "2004an gure abesti bat Gaztemaniak!-en disko baten agertu zen, eta ondorioz kontzertuetarako dei asko izan genituen", adierazi digu Idigorasek.

Gaztemaniak!-en sartu zen Gabonetan Gosek Arrasaten emandako kontzertua. Ines Osinagaren hitzetan, "beharrezkoak dira horrelako inbertsioak; bestela ekarri ezingo ziren taldeak ekarri ahal dira-eta".

**KONTZERTUA** > JOSTAILUGILEA

# Ipuin hunkigarria, bikain ume-ahotsetan

**NON:** Oñatiko Santa Ana antzokia.
**EGUNA:** Domeka, otsailak 14.
**ZENBAT JENDE:** 220 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta laurden.



Jostailuak zirenez, neska-mutikoak askotariko mozorroz jantzi ziren. J.A.

**TXOMIN MADINA** > OÑATI

Kontzertua, antzerkia, zirkoa, magia-ikuskizuna... Ez da erreza atzo Ganbara Txikitxokoek eta Bergarako Orfeoi Txikikoek batera eman zuten emanaldia sailkatzea. Baina ikusitakoak ikusita, esan daiteke horien guztien batuketaren errezeta ederto asko irten zaiela.

*Jostailugilea* ipuin musikatua eraman zuten agertoki gainera bi abesbatzetako 90 neska-mutiko inguruk, beti ere energiaz beteriko Aitor Biain zuzendariaren gidaritzapean.

**HASTEKO, SOINU BANDAK**

Lehenik eta behin, eta akaso urduritasunak uxatu eta ahotsak berotze aldera, handi zein txikien artean oso ezagunak diren filmetako piezak abestu zituzten. Abestu bakarrik ez, dantzan ere jarri baitzituen zuzendariak.

Atsedenalditxo baten ostean, Josu Elberdinek idatzitako *Jostailugilea* ipuin musikatuan murgildu gintuzten. Berez, istorio tristea da bertan kontatzen dena: jostailu paregabeak egiten dituen gizon batek, bere lagun izango den tximeleta bat egiten du egurrez... Baina nahi gabe hego bat hausten dio, eta konpondu ezin duenez, laguntza bila abiatuko da munduan barna.

Bidaia horretan aurkitutakoek emango dute abestietarako bidea; alaiak batzuk, tristeak beste batzuk. Baina ume-ahotsean ederki asko entzuten zirenak.

Dantzan eta kantuka aritu arren nabari zen neska-mutikoek oso serio hartu zutela lana Biain zuzendariarekin entseatutako orduek eman zuten fruitua.

**IKUSLEEKIN JOLASEAN**

Aipatzekoa da baina, ikuskizuna ez zela soilik agertoki gainera mugatu. Ipuineko protagonistak ia-ia beteta zegoen antzokian ibili ziren gora eta behera. Josu magoaren ikuskizunak ere, ikusleekin zuzeneko parte-hartzea ekarri zuen.

IKUSLEEN IRITZIA



**Onintza Egaña**

"Oso ondo egon da, asko gustatu zait. Abestiak eurak ere aproposak iruditu zaizkit: abesti alaiak eta motzak. Gainera, antzerkia, magia, musika... dena nahastu dutenez, ikuskizuna oso dibertigarria izan dela uste dut".



**Rafa Moñux**

"Asko gustatu zait ikuskizuna, nabaria izan da lan asko egin dutela. Alaba abestu dutenen artean egon da; egia esan kanpoan bai, baina etxean ez du gehiegi entseatu, oso urduri ere ez zegoen".



**Mikel eta Ana**

"Gure alabak abestu du; orduak eman dituzte entseatzen, eta gaur oso urduri zegoen. Baina azkenean emaitza ikusi da eta argi geratu da egindako lanak merezi izan duela. Jende asko etorri direla ikusita gainera, hobe!".



Xabinaitorren abenturek ez zuten inor barre egin gabe utzi. J.A.

**ANTZERKIA** > XABINAITOR

# Antzerkian ere, arrakastatsu oso

**NON:** Oñatiko Santa Ana antzokia.
**EGUNA:** egubakoitza, otsailak 12.
**ZENBAT JENDE:** 300 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordubete pasatxo.

**T.M.** > OÑATI

Ez Superman, ez Batman, ezta Spiderman ere. Patxi Gallego komikigileak sortutako Xabinaitor super-heroia izan zen egubakoitzean Oñatiko Santa Ana antzokian jaun eta jabe. Sarrera guztiak agortu ziren eta bat baino gehiago geratu zen antzokira sartu ezinik; telebistan agertzeak eraginaren adibide garbia, zalantza barik.

Izan ere, *Wazemank* saio ezaguneko aktore ia denek hartzen dute parte *Xabinaitor*-en. Esan baina, eurak izan zirela duela urte batzuk *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzelanarekin sekulako danbatekoa eman zutenak.

**ALGARAK BARRA-BARRA**

Ez da erreza ikusleak ordubetez ia etengabe barrezka edukitzea, baina horixe lortu zuten egubakoitzean Anjel Alkain, Mikel Pagadi eta gainerako aktoreek.

Kontakizunaren abiapuntuak berak bakarrik, irribarrea behintzat eragiten du: Aldonondo inspektoreak Xabinaitor atxilotu behar du zirkulazioa zuzentzen amaitu gura ez badu behintzat. Eta nor den Xabinaitor? Bada, euskal super-heroia, poxpolinak salbatzen, eta bidez batez, guztiz aseta uzten dituena.

Ezker abertzaleko gazteak, ETBko kazetariak, Sabino Aranaren jarraitzaile sutsuak, porroerretzaileak, ertzainak... Hauen guztien eta gehiagoren parodiak ikusi ahal dira antzezlanean zehar. Eta egubakoitzeko emanaldian, argi geratu zen euskaldunok geure buruaz barre egiten badakigula; bai behintzat parodia hauek umore zorrotzaz, baina min egiteko asmorik gabeaz bilduta badatoz.

Umorea egiten baina, jakin egin behar da, eta horretan ere fin ibili ziren aktoreak. Gehienek pertsonaia bat baino gehiago zuten euren gain eta denek jakin zuten bakoitzari zegokion tonua ematen. Azpimarratzekotan, bi: Ainere Tolosa eta Asier Sota, azken hau, euskararekin borrokan dabilen ertzaina moduan.

**KOMIKITIK AGERTOKIRA**

Nola erakutsi antzerkian pertsonaietako bat hegazka dagoela? Nola erakutsi iraganeko pasarteak ikuslea nahastu barik? Bada, argi, soinu eta bestelako efektu sinpleekin; irudimena hiru dimentsiotako betaurrekoak baino eraginkorragoa dela erakutsiz. Asteburuan Oñatin eta Arrasaten egon ostean, hurrengoan Elgetan egongo da Xabinaitor.

**KULTURA** > BERGARAKO AMODIOZKO GUTUNEN XVIII. LEHIAKETA

# Juan Mari Agirreurretaren lana nagusitu da aurtengo edizioan

Zapatu eguerdian banatu zituzten sariak Bergarako kultura etxean

Iraitz Salegi, Jaione Isaszelaia, Silvia Maria Seco eta Deiane Lage ere sarituak izan ziren


Aurtengo amodiozko gutunen lehiaketako sarituak. MIRIAN BITERI

**MIRIAN BITERI** > BERGARA
Pasai Donibaneko Juan Mari Agirreurretak irabazi du Jardunen Amodiozko Gutunen XVIII. Lehiaketa. Agirreurretak zapatu eguerdian, Bergarako kultura etxean egindako ekitaldian jaso zuen saria, gainontzeko sarituekin batera. Gutuna irakurri aurretik, han elkartutakoei azaldu zien gutunean neska batek mutilari idazten diola eskatzen bigarren aukera bat, eta mutilak gutun horretako hitzak aprobetxatzen dituela, batzuk ordezkatuz gutun berria osatzeko.

**IRAITZ SALEGI, BIGARREN**
Esan bezala, Agirreurreta ez zen saritu bakarra izan. Iraitz Salegi bergarar gaztea bigarren izan zen. Gazteen mailan, berriz, Silvia Maria Seco eta Deiane Lage nagusitu ziren; eta bergarar onenaren saria, azkenik, Jaione Isazelaiak lortu zuen.

Aurtengo lehiaketak oso harrera ona izan du. Euskal Herri osotik iritsitako 62 gutun jaso dituzte Jardunen; horietatik, 29 Debagoienekoak dira. Adinari dagokionez, 37 lan 26 urtetik beherakoenak izan dira; bataz besteko adina, berriz, 25 eta 30 urte artekoa izan da. Parte-hartzaileen sexuari erreparatuz gero, esan beharra dago 41 gutun emakumezkoenak direla.

---

**Juan Mari Agirreurreta** > Irabazlea

## "Hizkuntzarekin jolastea gustuko dut; estiloak ez du garrantzirik"

**M.B.** > BERGARA
**Lehenengo aldia da Pasai Donibaneko Juan Mari Agirreurretak Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketan parte hartzen duela. Aurkeztu eta irabazi.**

**Zer dauka gutun honek zuk idatzitako beste batek ez daukana?**
Epaimahaikoek ez didate esan zergatik irabazi dudan. Ideiarengatik dela uste dut. Testu bakarra bada ere, bi gutun daude. Gutunak dira irakurtzeko, entzuteko eta baita ikusteko ere. Hau ikustekoa da.

**Gustuko dituzu horrelako gutunak?**
Nik hizkuntzarekin jolastea dut gustuko. Estiloak ez du garrantzirik.


M.B.



ASTE BUKAERA...

## Juanjo Arrietarekin




Juanjo Arrieta Agorrosinera joaten da Bergararen partiduak ikusteko; hirugarren mailan jokatu zuen Bergararekin. JOSETXO ARANTZABAL

# "Bergararen, Realaren eta Eibarren lehiak ikusten ditut aste bukaeretan"

Juanjo Arrieta bergararra Realeko zuzendaritza batzordeko kidea eta EAJko zinegotzia da

Futbolaz gain, lagunekin ibiltzea, mendian paseatzea eta egunkariak irakurtzea atsegin du

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Juanjo Arrieta (Bergara, 1943) orain dela hamar urte erretiratu zen. Banco Vitorian ziharduen lanean, presidente, eta banketxeari Banesto izena jarri ziotenean erretiro aurreratua hartu zuen. Hamar urte pasa dira, baina ez ditu lanean egindako urteak ahazten. "Bergarako Cometxa enpresan hasi nintzen lanean. Handik Banco Centralera egin nuen salto, eta ondoren Banco Vitoriara. Bietan presidente izan nintzen. Oroitzapen onak ditut. Urte gogorrak ere pasa genituen, baina, oro har, gustura ibili nintzen", esan digu.

Juanjo Arrietak lana eta futbola uztartu ditu urte askoan. Egun, erretiratuta dago, baina ordu asko eskaintzen dizkio futbolari. Realeko zuzendaritza batzordeko kide da Jokin Aperribairekin. "Futbolean ere urte gogorrak pasa ditut, batez ere, Aperribairen gonbidapena onartu ondoren. Realarekin bizitako azken urtea oso intentsua izan da. Baina, zorionez, lege konkurtsaletik irten gara geure buruari jarritako epea baino lehen, eta orain lasaiago gaude guztiok".

Futbol entrenatzaile eta zuzendaritza batzordeko kide izan aurretik, jokalari ere izan zen. "Txikitatik ibili nintzen futbolean. Eibarren, Alavesen, Mondran eta hirugarren mailan jokatu zuen Bergaran", dio. Gazte mailan hasi zenean zelai erdian jokatzen zuen, baina atezain izan ezik postu guztietan jokatu zuela esan digu: "Zelai erdian hasi nintzen, eta aurrelari ere ibili nintzen. Urte batzuk geroago, defentsaren erdian hasi nintzen. Atzeko lerroan jokatu nuen gusturen".

**FUTBOLA ETA PASEATZEA**

Donostiara astean bizpahiru aldiz joan behar duenez, eta Bergarako Udalean EAJko zinegotzi denez, astegunetako aisialdian eta aste bukaeretan gustuko gauzak egiten ditu. Paseatzea atsegin du: "Futbola utzi nuenetik beste hainbat kirol egin ditut; besteak beste, palan jokatu dut urte askoan. Igerilekuko bazkide naiz, eta aldika joaten naiz Agorrosinera. Paseatzen ere ibiltzen naiz. Bergaran eta Debagoienean leku ederrak daude mendi-bueltak egiteko".

Aste bukaeretan futbola ikusten ez duenean –Eibarren, Realaren eta Bergararen partiduak ikusten ditu– lagunekin txikiteoa egitea gustatzen zaio. "Lagun taldea elkartzen gara eta tabernarik taberna ibiltzen gara berriketan. Aldika afaltzera edo bazkaltzera joaten gara.".

**IRAKURTZEA ETA BIDAIATZEA**

Liburuzalea den galdetuta, bi erantzun eman dizkigu: "Lau edo bost egunkari irakurtzen ditut egunero. Hasieratik bukaerara, orri guztiak irakurtzen ditut. Baina ez naiz eleberri edo olerkizalea. Liburu horiek ez zaizkit gustatzen".

Bidaiatzea ere atsegin du: "Ez daukat urtaro edo leku berezirik. Lekua aldatu egiten dut, eta erretiratuta nagoenez, edozein garaitan joan naiteke".

### "Eibar bigarren mailara igo zuten jokalariek talde sendoa osatzen zuten, oso ona"

Garmendia, Gomez de Segura, Altuna, Olaizola, Martinez, Fuentes, Astiazaran... Horiek ziren 1986. urtean Eibar bigarren A mailara igo zuten jokalarietako batzuk. Guztiak gogoan ditu Arrietak: "Talde sendoa zen, oso ona. Nik esango nuke Eibarrek inoiz izan duen talderik osoena eta indartsuena izan zela. Akaso, Jose Luis Mendilibarrek izandako taldeak izan zuen antzerako maila". Duda barik, entrenatzaile lanetan Juanjo Arrietaren lorpen handiena izan zen. Eibarrera heldu aurretik Bergarako, Urolako eta Aretxabaletako entrenatzaile izan zen.

Aulkitxoa utzi ondoren, Eibarko presidente izan zen Jaime Barriusoren deia jaso zuen kontseilari moduan jarduteko. Ez zuen bi aldiz pentsatu. "Futbola beste ikuspegi batetik ezagutzeko aukera izan nuen. Bost urtez ibili ginen Eibarrendako biderik onena topatu guran", dio. Eibartik Realera egin zuen salto orain dela urtebete.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena kluba




# 300 euro opari. Nahi?

***http://zozketa.goienakluba.com***
web orrian sartu, eta bete hutsuneak,
bazkide txarteleko zenbakia erabilita.

**Parte hartzeko azken eguna: otsailaren 28a.**

GOIENA KLUBA | Telefonoa: **943 25 05 05** | e-posta: ***kluba@goiena.com***

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxea salgai edo errentan: 3 logela, 2 bainugela, 2 balkoi, sukaldea, egongela eta despentsa. Igogailua eta garaje itxiarekin. Jantzita. 687 11 07 21 edo 617 00 37 30

**Arrasate.** San Andres auzoan 58 m²ko etxea salgai edo errentan. Bi logela, bainugela bat, balkoi bat, sukaldea, egongela eta trastelekua. Deitu 635 73 94 91 telefono zenbakira.

**Etxarri Aranatz.** Familiabakarra salgai Etxarri Aranazko Kalamurtxei kaleko 20. zenbakian. Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Bi balkoietatik mendia ikusten da. Autoa sartzeko bajera eta lorategia. Prezioa adosteko. Deitu 645 73 50 59 telefonora (Maite).

**Irurtzun.** Eraberritutako pisua salgai Irurtzunen. 3 logela, 2 balkoi, sukaldea jantzia. Prezioa 150.000 euro. Harremanetarako deitu 699 02 03 63 telefono zenbakira.

**La Mongie (Frantzia Pirinioak).** Estudioa salgai La Mongie-n. 70.000 euro. Harremanetan jartzekotelefono zenbakia: 629 328453

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, komuna, egongela eta trastelekua argi patioan. Igogailuarekin. Deitu 652 70 12 49 zenbakira.

**Oñati.** Trianan eraikiko diren etxe berrietako bat salgai, garajearekin. 125 m². Deitu 665 73 96 51 telefono zenbakira.

**Tolosa.** (Voith-Gorostidi).Eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75 m2). Promotorearen bidez zuzeneko salmenta.Sukalde eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsua. Komuna izan ezik, beste guztia kanpora begira.2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Premiazko salmenta. Deitu 658 72 92 88 telefono zenbakira.

### 102. EROSI

**Antzuola.** Trukean Lanan (Na) ditugun etxea (150 m) eta baratzea eskaintzen dira. 3 logela, egongela,sukaldea, komuna, ganbara eta ukuiluak. Beheko sua du. Gasteiztik 45 min eta Lizarratik oso gertu. Aproposa asteburu eta oporraldietarako. Trukea zehazteko orduan aukera guztiak zabalik (garai baterako, betiko...). 699 24 86 99.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Hendaian** gelak ematen ditut errentan. Egonaldi luzeetarako, oporretarako edo asteburuetarako. Interesa baduzu idatzi mezu bat helbide honetara idatzi: 'davidlorea@aol.com'. Edo telefonoz deitu: 688 68 11 40.

**Oñati.** Olakua auzoan etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, sukaldea, bainugela eta egongela. Garajea aukeran. 665 72 87 89.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Gipuzkoan.** Etxea edo baserria alokagai hartuko nuke Gipuzkoan. Ahal bada Donostialdetik gertu. 605 73 63 71.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Harremanetan jartzeko: 615 79 27 56

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 4 pertsonarentzat. 618 14 71 34

**Bergara edo Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 639 94 48 65 edo 615 57 81 54

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 609 38 86 47

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 671 33 75 54

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu 657 08 96 69 zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza bila nabil, gutxienez bi logela izan beharko lituzke. Hori bai, hobe litzateke hiru logela izatea. Deitu 636 80 87 68 telefonora.

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**
**sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Harremanetan jartzeko deitu:943 76 32 85

**Bergara.** Familia batek etxebizitza errentan hartuko luke. 650 62 12 94 edo 943 08 22 60

**Debagoiena.** Bikote batek logela bakarreko etxebizitza hartuko luke errentan. Deitu 655 74 41 60 telefonora.

**Donostia.** Donostian etxe bila errentan hartzeko, denbora luzerako. Deitu 661 33 85 87 telefono zenbakria.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Mutil arduratsua logela bila. Lan finkoa daukat. Deitu 647 28 82 41 telefono zenbakira

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu otsailetik aurrera. Berogailua eta igogailua. Egoera onean. 250 euro hilean. 606 74 42 37

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu alokagai. 630 71 35 83

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 699 28 99 06

**Arrasate.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Lau logela eta bi bainugela ditu. Langileak bizi dira. 653 71 44 57

**Arrasate.** Eskola Politeknikoko 3 Erasmus ikasle gara eta pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 4 banakako logela, sukaldea, komuna, terraza handia. Unibertsitate aurrean. 200 euro + 30 euro (gastuak) hilean. Internetarekin 12 euro gehiago. Otsailetik uztailera. Interesatuok idatzi helbide honetara: *septunova.zuza@centrum.cz*, edo deitu telefono hauetara. Emilia edo Chiara. 638 15 76 98 edo 638 15 77 00

**Altsasu.** Logela alokatzen da Altsasun, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Deitu 606 00 23 40 telefonora.

**Bergara.** Bergara 2 logelako apartamentu berriztuan, logela bat errentan ematen da. 250 euro. 626 86 67 36

**Bergaran** etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. Etxebizitza Bergarako erdialdean kokatuta dago eta logelaren prezioa da 170 euro, bestelako gastuak barne egon barik. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53

**Errenteria-Orereta.** Galtzaborda auzoan pisua konpartitzeko pisukide bila nabil. Interesa dutenek deitu telefono zenbaki honetara: 943 52 08 07

**Etxarri Aranatz.** Logela bat alokatzen dut Etxarri Aranazen. Deitu 655 74 79 19 telefono zenbaki honetara.

**Debagoiena.** Bikote batek logela bakarreko etxebizitza hartuko luke errentan. 655 74 41 60

**Oñati.** Logela hartuko nuke errentan partekatutako etxeren batean. Deitu mesedez telefono zenbakira honetara: 635 70 07 92

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Usaetxe plazan. Deitu 686 02 56 56 telefonora.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Martzial Agirren. Zabala da, baina ez oso sakona; hortaz, auto ez horren handiendako egokia. 616 22 33 78.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Etxarri Aranatz.** Garaje partzela bat alokatzen da Etxarri Aranatzen. 652 26 28 18.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje bat errentan hartuko nuke Bolu auzoan. Harremanetarako 658 73 35 96 telefonora deitu.

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu 665 73 51 59 zenbakira

**Oñati.** Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. 666 21 73 48

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Bulegorako egokitutako 90 metro koadro inguruko lokala eta 100 m²ko koadro inguruko lokal industriala, errentan edo salgai. Atsegina eta bista ezin hobeak. 943 76 33 56.

**Bilbo.** Bulego bi alokatzen ditut, 30 eta 40 metro koadrokoak. 639 66 36 89

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Lokala hartuko nuke errentan. 250 euro ordaintzeko gertu nago. 943 53 29 18.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu 656-77 46 60 telefonora.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume arduratsuak lan egingo luke etxeak garbitzen, tabernan edota mekanika lanetan. Eli. 630 94 68 37.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu 15:00etatik aurrera garbitasun zein plantxa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakume serio eta arduratsua gertu orduka garbiketak egiteko edo jatetxeetan plantxan zein sukalde laguntzaile jarduteko. Deitu8 647 16 40 49 zenbakria.

**Arrasate.** Hemengo neska umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo edozein lanetarako prest ,orduka ere bai. Deitu 659 55 27 16 zenbakira.

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke.Deitu 606-42 64 14 telefonora.

**Bergara.** Bikotea gertu edozein lan egiteko. 645-72 92 87

**Bergara.** Larunbatetan eta domeketan egunkariak banatzen egingo nuke lan. 654 98 69 14.

**Bergara.** Neska bergararra etxeko lanak egiteko gertu. 943 76 28 12 edo 943 76 29 52.

**Bergara.** Neska gertu etxeko lanak egiteko. 660 57 33 92

**Bergara.** Neska euskalduna gertu goizetan umeak zaintzeko. Astelehenetik eguenera 11:30ak arte eta egubakoitzetan 13:00ak arte. Irakaslea naiz. 650 27 75 82.

**Bergara.** Neska goiz eta arratsaldez etxebizitzak garbitzeko gertu. Deitu 696 84 19 51 telefono zenbakira.

**Bergara.** Garbiketarako, pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko eta tabernari moduan lan egiteko gertu egongo nintzateke. 671-71 90 03

**Bergara.** Bergarako emakume arduratsua gertu garbiketa lanak egiteko. 690-05 79 07

**Bergara.** Pertsona nagusiak zaintzen, garbitasunean edo tabernan egingo nuke lan. 637-28 58 52

**Bergara.** Pertsonak zaintzen, garbitasunean edo tabernan egingo nuke lan. Deitu 671-71 90 03 telefonora.

**Bergara.** Garbiketarako eta pertsona edadetuen zaintza lanetarako gertu egongo nintzateke. Orduka egingo nuke, eta etxe barruan lan egiteko ez dut arazorik. 686-76 22 96.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua esperientzia eta informeekin gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Zerbitzari lan egiteko prest. Esperientziarekin eta tituluarekin. Deitu 671 35 22 60 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu dago garbiketa eta pertsona edadetuen zainketa lanak egiteko. 691 03 25 02.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23.

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666 08 58 49.

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo edozein motatako garbiketa lanak egiteko. Gainera, igeltsero-laguntzaile edo peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. Deitu 697 54 28 76 telefonora.

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. Deitu 663 65 78 43 telefonora.

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Arratsaldetan, astebukaeratan eta jai egunetan. Auxiliar laguntzaile titulua. Itxaso. 943 74 82 09

**Debagoiena.** Esperientziadun emakume arduratsua gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauez edo bestela. Legezko paperak dauzkat. 638 89 98 60

**Debagoiena.** Geriatria laguntzailea gertu ospitalean gauez gaixoak zaintzeko. 676 07 23 72

**Debagoiena.** Emakumea gertu ospitalean dauden gaixo zein nagusi edo umeak zaintzeko. Deitu gauetan, mesedez. Telefono zenbakia: 943 71 46 24

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulazioa daukat. Esperientziarekin eta informe onekin. 671 35 22 60

**Debagoiena.** Garbiketalanetan edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak ditut. Harremanetan jartzeko:638 89 98 60

**Debagoiena.** Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Emakumea gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Umeak ere zainduko lituzke. Felisa. Interesatuek deitu telefono zenbaki honetara: 943 53 33 92

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Orduka, egun osoz zein etxean bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. 680 30 24 64

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luisa de los Santos. Interesatuek deitu:671 27 78 36

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumeak lan egingo luke sukaldean, nagusiakzaintzen edo garbitasun lanak egiten: bulegoak, etxeak eta abar. Enpresa zein partikularrekin. Harremanetan jartzeko:661 48 86 74

**Debagoiena.** Kamioi gidari aritzeko gertu. Hainbat baimen ditut: makinak, garabiak, kamioiak, eta abar. Urte asko-

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

**ARRASATE**
Gestore komertziala behar da.
Esperientzia eta euskara beharrezkoak.
Curriculumak bidali *arrasatelana@gmail.com* helbidera.

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
**ALDIBATEKO LANA**
**Senpere,7 (zentru komertziala) • BEASAIN**
**943-16 20 48**
**Ikusi lan eskaintzak:**
**w w w . i k o l a n a l d i . c o m**

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

**LAN ESKAINTZA**

**MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK**
behar ditu:

**ENPRESA ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOAN LIZENTZIATUAK**

**Eskatzen da:**
euskara eta ingelesa jakitea.

Interesatuok bidali curriculuma otsailaren 24a baino lehenago ondorengo helbidera:

Mondragon Unibertsitatea
Goi Eskola Politeknikoa
Loramendi 4 ARRASATE 20500
*lanpostu@eps.mondragon.edu*

tako esperientzia. Antonio. Deitu:630 65 30 22

**Debagoiena.** Egun erdiz lan egingo nuke: umezain, garbiketa, sukalde laguntzaile... Mondragon Unibertsitatean dagoen Txekiar Errepublikako Erasmus ikaslea naiz, gaztelera ikasten ari naiz eta ingelesa hitz egiten dut. Idatzi mezu bat *septunova.zuza@centrum.cz* posta elektronikora idatzi edo deitu telefono zenbaki honetara: 638 15 77 12

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu gerontologia sektorean lan egiteko, esperientziaduna eta erreferentziaduna. Arratsaldez egingo luke lan. 943 79 04 69

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukaldari aritzeko. Esperientzia daukat. 637 12 15 18

**Debagoiena.** Pintore lanak egingo nituzke partikularrentzat edo enpresentzat. Interesa dutenek deitu: 697 88 35 62

**Debagoiena.** Kamioi gidari baimena ateratzen ari naiz eta horretan lan egin gura nuke. Praktiketan ere bai. C+ E baimena, ADR, zisterna edota lehengaiekin lan egiteko. 610 67 18 60

**Debagoiena.** Denbora libre luzea daukan gazte aramaioar zintzo eta esperientziaduna baso lan zein baserriko lanak egiteko gertu. Nire materialen artean motozerra txikia daukat. 649 54 24 61

**Debagoiena.** Emakumea gertu dago garbiketa eta pertsona edadetuen zainketa lanak egiteko. 691 03 25 02

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo atarien garbiketa lanak egiteko. Gainera, peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. 666 08 58 49

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pertsona edadetuen zainketarako edo edozein motatako garbiketa lanak egiteko. Gainera, igeltsero-laguntzaile edo peoi lanposturako ere gertu nago. Enpresen segurtasun zerbitzuetan lan egiteko gertu. Harremanetan jartzeko telefono zenbaki honetara deitu: 697-54 28 76

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. 663-65 78 43.

**Donostia.** Anonimuss Hari Laukotea. Musiko profesionalez osaturiko hari laukoteak, ganbara musikaz ekitaldiak girotzen ditu(ezkontzak, hiletak, koktelak, lan janak, kongresuak, inaugurazioak, urteurrenak...). Beharraren arabera hari bikotea, hirukotea edo laukotea eskaintzen ditugu. Errepertorio anitza. Pack ezberdinak. Kalitatea. *www.anonimuss.info.*

**Donostia.** Neska euskalduna, haur hezitzailea, haurrak zaintzeko prest.Donostian eta inguruko herrietan, edozein ordutegitan. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe. 616-38 31 64

**Goierri.** Goierrin emakume euskalduna etxeko lanak egiteko prest: 660 02 85 52.

**Haurrak zainduko nituzke.** Haurrak zaintzeko prest nago, goizez eta arratsaldez. Haur hezkuntzan diplomatua naiz eta 4 urteko esperientzia daukat haurreskoletan. Deitu 628-33 31 56 telefono zenbakira. Mila esker.

**Irun.** Bidasoaldea-Oarsoaldea. Emakume euskalduna, jakintsua eta arduratsua, frantsesez eta espainolez dakiena, etxean idazkari zein etxeko lanetarako prest. Gidabaimena eta autoa baditut. Deitu lasai telefono zenbaki honetara: 622 06 33 48.

**Lakuntza.** Astelehenetik ostiralera, goizetan, Lakuntzan edo inguruan lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Telefonoa: 653-99 80 35.

**Oñati.** Neska euskalduna, arduratsua, haurrak zaintzeko eta etxeko gauzak egiteko prest. Deitu 618 09 47 87 edo 943 78 15 10 telefono zenbakietara.

**Zarautz.** Andre euskalduna, etxeko lanetarako prest, azteazken eta ostiralerako. Esperientzia handia. Harremanetan ipintzeko deitu: 634 45 91 59

**Zarautz.** Gizon euskalduna gertu lanerako. Asteburuetan ere lan egiteko prest edozein lan: jardinero, mahastietan eta abar. 658-73 08 08

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergaran.** Irakaslea behar da Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailetako eskolak emateko. Eskolak eguerdian jaso nahi nituzke. 639 03 43 58.

**Bergara.** Matematika eta euskara eskola partikularrak emateko norbait behar dut. 6. maila. 652-75 68 95

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut Santa Marinan. Deitu 696 37 92 29 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Arrasate** Goi mailako Ingeniaritza ikasten dabilen neska euskalduna eskola partikularrak emateko prest. 606 88 94 20.

**Arrasate edo Aretxabaletan** batxilergora arteko eskola partikularrak ematen ditut. Interesa baduzu deitu: 653 01 76 67

**Bergara.** Aleman Filologian lizentziaduna eta irakaslea naiz. Ingeles eta aleman eskolak emango nituzke. 660 52 25 01.

**Bergara.** Ingeleseko irakaslea errefortzurako eta azterketak gainditzeko eskolak emateko prest. Oso merke. Arantzazu. Deitu 616 12 56 29 zenbakira.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. 654 94 87 26

**Bergara.** Kimikan lizentziaduna naiz eta matematika, fisika, kimika, geologia eta natur zientzietako eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia.Deitu telefono zenbaki honetara:648 06 79 85

**Durango.** 4. mailako Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergo eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea, Matematikako klaseetan.

**Gasteiz.** Klase partikularrak emateko eta haurrakzaintzeko prest nago. hezkuntzako ikasketak egiten ari naiz eta ondorioz arratsaldetan bakarrik lan egin ahalko nuke. Esperientzia daukat bai klaseak ematen eta baita haurrak zaintzen ere. Aisialdirako monitore titulua daukat. EGA ere badaukat. Kontaktuan jartzeko deitu 648-70 15 92 telefono zenbakira.

**Gernika-Lumo.** Klase partilularrak emango nituzte Gernikan zein inguruko herrietan, oro har, Busturialdean. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik telefono zenbaki honetara: 680 53 84 82.

**Gernika-Lumo.** Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak eskaintzen ditu Gernikan lehen hezkuntzako eta DBHko ikasleentzako. Kontaktua: 656 77 20 12 (Nahia)

**Lasarte-Oria.** Photoshop eskola partikularrak ematen ditut. Argazki-tratamendu eta ukitu digitala. Esperientziaduna informatika eta diseinu eskolak emateN.Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 626 73 40 19

**Oñati.** Ingeniaritza ikasten dabilen neska arduratsua Oñatin eskola partikularrak emateko prest. Deitu arratsaldeetan. 667 52 83 29

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 664 16 02 68

## 6/ MOTORRA

### 501. JASO

**Opel Corsa 1.7D salgai.** Interesa dutenek deitu dezatela ondorengo telefono zenbakira: 696-23 74 16. Edo idatzi ondorengo posta elektronikora: *anlapa622@hotmail.com*

**Kawasaki Z750 salgai.** Kawasaki Z750 Salgai 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 kilometro. Azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 660-33 77 16.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Mastina** salgai. Gaztea. Deitu 943 79 62 63 telefonora.

**Zaldi hispaniar-arabiarra salgai.** Monturakoa. 7 urte. Zuria. 616-00 34 29

### 703. EMAN

**Arratoi txakurra** ematen da. 943 79 62 63.

**Setter ingelesa** ematen da opari, ezin dudalako zaindu. 10 hilabete ditu. 646 47 58 84.

**Txakurkumeak.** Txakurkume jaioberriak oparitzen ditut. Coli arrazaren eta euskal artzain-txakurren nahasketa. Deitu 650 27 86 95 telefonora.

**Txakurkumeak ematen dira opari.** Txakurkumeak oparitzen dira. Interesatuek hots egin 948-46 00 43 telefonora.

### 704. BESTELAKOAK

**Txakur txikitxoa** aurkitu dut Bergarako Bolu kalean. Emea. 620 61 91 34.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Altzariak.** Hiru plazako sofa beixa (300 euro), sarrerako altzaria (100 euro) eta kristalezko mahai luzagarria (100 euro). Ia berriak. Indesit garbigailua, 2009koa, 100 euro. Deitu 635 74 27 43 telefonora.

**Bizikleta estatikoa** salgai. Sinplea, arina eta berria. Deitu 670 08 12 16 zenbakira.

**Boxeorako** zakua salgai. Debagoienean. 638 89 78 76.

**DJ maleta.** Technics DJ maleta saltzen dut. 80 binilorentzako kapazidadearekin. 648-06 79 85

**Eskiak.** Dynastar Vitesse etxekoak, Look fijazioekin, 1,85 m neurrikoak: 60 euro. Eta Rossignol etxekoak, Rossignol fijazioekin, 1,78 m neurrikoak: 60 euro. Eskiatzen hasteko oso aproposak. 690 83 98 53.

**Eskiatzeko buzoa.** Eskiatzeko 10 neurrikoa salgai.. 15 euro. Gore-Tex eskularruak opari. 656 78 64 64

**Eskiatzeko** trajea salgai Debagoienean. 943 79 65 99 edo 639 48 60 49.

**Eskiatzeko ekipo berria salgai.** Eskiak: Salomon Space Framer 33. Salomon fijazioak. 1,66m neurrikoak. Botak: Atomic. 40-41 neurrikoak. Berriak. 300 euro. Makilak eta zorroa opari. Harremanetarako: 690-83 98 53

**Ezkontza soinekoa** salgai. 38-40 neurrikoa. 635 70 07 92.

**Erremailadora industriala salgai.** Egoera onean. Prezioa adosteko. Antzuolan. 685-77 08 46

**GPSa.** Mendirako GPSa salgai. Egokia oinez, BTT, motor eta abarrerako. Magellan Triton 500. Ordenagailura konexioa, memoria txartela mapendako eta Euskal Herri, Pirinio, Europako mendi eta abarreko mapa zehatzekin. 150 euro. 656 71 41 59.

**Golf** pilotak salgai Debagoienean. Deitu 943 79 65 99 edo 639 48 60 49 zenbakietara.

**Pinarello bizikleta.** 54 neurrikoa. Aluminiozko koadroa. Karbonozko Look urkila. Ultegra-Dura Ace. Argazkiak bidaltzen ditut. 700 euro. Deitu 677 24 31 98 edo 943 78 29 19 telefono zenbakietara.

**Karabana salgai.** Oso ongi dago. Saloa, bikote ohea, 2 litera. Thetford inodoro elektrikoa, konketa, beste gela batean dutxa. Truma 3000 berogailua. Heater CC3 ur berogailua. Hozkailua. Mikrouhinak. Antena TB. Bateria kanpin kanpoan argindarra izateko. Toldoa eta itxidura portatila. Telefonoa: 656-79 24 42.

**Karabana salgai.** Lau plazakoa. Egoera onean. 658-75 58 23.

**Narruzko txupa beltza salgai.** M neurrikoa. Ia berria (bi aldiz jantzia). 35 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefonoa: 626-28 68 13

**Tabike-armairua** salgai. Debagoienean. 670 08 12 16.

**Telebista.** 2 urte dituen 28 hazbeteko telebista salgai. 170 euro. 616 22 49 64.

**Snow taula salgai.** 168 neurrikoa. Baita Burton fijazioak ere, 46 neurriko botak eta eskiak eramatekoa. Dena 250 euroan. 661-73 37 91

**Snow taula** salgai, Kay Wright markakoa. 1,55 metroko altuera. 130 euro. Deitu 630 29 16 01 telefonora.

**Snow taula** salgai. 1,51 metroko altuera. 175 euro. Harremanetan jartzeko deitu telefonoa:630 29 16 01

### 802. EROSI

**Autorako** umeendako segurtasun aulkia behar dut. 9-36 kilo artekoa. 650 57 36 07.

**Lur Hiztegia.** Lur Hiztegi Entziklopedikoaren hamabigarren liburukia erosiko nuke. Prezioa adosteko. Harremanetan jartzeko deitu telefonoa: 94-460 74 44. Getxo.

**Nintendoa erosi.** Bigarren eskuko Nintendo DS bat erosiko nuke. Harremanetan jartzeko deitu telefonoa: 626 73 40 19

**Pastoralen liburuxkak erosten ditut.** Honako pastoralen liburuxkak erosiko ditut: *Xiberoko Jauna* (2008), *Atharratze Jauregian* (1997) eta *Santa Kruz* (1992). Prezioaadostuko dugu. Harremanetan jartzeko deitu telefonoa: 656-72 68 70

### 803. EMAN

**Somierra.** 150x190ko somierra ematen da opari. Ohea, hankak eta somierra. Egoera oso onean. Deitu 635 12 87 82 edo 943 25 05 79 zenbakietara.

### 804. HARTU

**Trona.** Erabiltzen ez duzun umeendako trona badaukazu, gustura erosi edo hartuko nuke opari. Aldez aurretik eskerrik asko. Harremanetan jartzeko deitu telefonoa: 635 75 54 53.

**Sofak botatzeko asmotan?** Zure sofa zaharrekin zer egin ez baldin badakizu... gustura hartuko ditugu guk! Deitu edo idatzi eta joango gara gu euren bila. Mila esker!! Harremanetan jartzeko: 688-62 39 55 edo *haizearenfereka@hotmail.com*

### 805. TRUKATU

**Korrika** egiteko makina trukatuko nuke bizikleta bategatik. Debagoienean. Harremanetan jartzeko deitu telefonoa: 638 33 03 01.

### 806. GALDU

**Amantala galdu Oñati.** Ikastolako amantal berdea galdu dut Bidebarrieta eta Errementari plaza inguruan, ostiralean, hilak 22. Aurkitu baduzu, deitu telefono zenbaki hauetara: 943-78 00 01 edo 943-78 08 09

**Autoko giltza** galdu nuen abenduaren 15ean, asteartean, San Andres auzotik Arimazubi (San Viator Txiki) ikastolara bidean. Aurkitu baduzu, deitu telefono zenbaki hauetara: 618 49 28 56 edo 943 79 58 98

**Nahastuta eramandako botak berreskuratu nahi nituzke.** Netto supermerkatuan, haurren jolasteko gunean, norbaitek, nahastuta, nire haurraren zapatak eraman zituen, itxuraz berdinak baina zenbaki ezberdinekoak. Gureak berreskuratu nahi genituzke, etxera eramandakoak 3 zenbaki handiagoak baitira. Hots egin 666-01 41 48 telefono honetara.

**Eraztunak Bergaran.** Kilometrotako buelta egiten hiru eraztun galdu ditut. Norbaitek aurkituz gero mesedez deitu zenbaki honetara. Eskertuko da. 670 26 46 35

**Eraztuneko harria.** Zubiaurre eta Ozaeta artean (Bergara) eraztuneko amatista harria galdu nuen. Aurkitu baduzu, deitu telefono zenbakira: 637-77 45 57

**Kotxeko giltza galdu.** Abenduaren 15ean, asteartean, San Andres auzotik Arimazubi (San Viator Txiki) ikastolara bidean. Aurkitu baduzu, deitu telefono zenbaki hauetara: 618-49 28 56 edo 943-79 58 98

**Lapitzen zorro bat eta memoria bat galdu.** Oñatiko Bidebarrieta Kalean. Astelehena 25ean Oñatiko Bidebarrieta Kalean 18:30ak inguruan arkatzak eramateko laukidun zorro ilun bat galdu nuen. Informazio garrantzitsua duen memoria bat ere bertan neukan. Norbaitek zorroa jaso edo aurkitu baldin badu, faborez dei dezala 653-71 79 81 telefono zenbakira. Eskertuko dut. Aurkitu baduzu, deitu telefono zenbaki hauetara: 653-71 79 81 edo 943-53 44 71

**Sakelako telefonoa galdu.** Bergaran, autobus geltoki inguruan, urtarrilaren 18an (astelehena). Nokia beltza da. Sarituko da SIM txartela, behintzat, bueltatzea. Aurkitu baduzu, deitu: 676-66 02 66

**Ume baten bota galdu da Altsasun.** Ume txiki baten 20 zenbakidun bota berde bat galdu da Altsasun, berri berria, mustu gabe. Opatu duenak eraman 647-37 02 41 zenbakira.

**Eskiak galdu Arantzazun.** Martitzenean, hilaren 12an, K2 Fujative trabesiarako eskiak ahaztu nituen Arantzazun. Norbaitek topatu baditu, dei diezadala. Eskerrik asko. Aurkitu dituenak deitu: 652-75 66 97 edo 669-78 17 81.

### 807. AURKITU

**Galdutako giltzak.** Otsailaren 8an, astelehena, giltza batzuk aurkitu nituen Bergarako poligonoko aparkalekuan. Giltzak galdu dituenak dei dezala ondoko telefonora. 630 62 15 97.

**Betaurreko gorriak aurkitu dira Arrasaten.** Arrasateko Eroski inguruan, Musakolan, abendu hasieran. Graduatuak dira eta kaxa batean zeuden. Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 943-79 48 02

**Giltzak aurkitu Arbizun.** Athletic-en giltzarria duen giltza jokoa topatu dute Arbizuko Nafarroako Kutxako kutxazainean. Galdu dituenak bertatik pasa dadila.

**Giltzak aurkitu dira Ugarrixan.** Bi giltzatako aurkitu dira: batek 3 giltza ditu eta besteak 12. Galdu baduzu, deitu: 689-70 44 17

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entsaioetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. aldezaharrekojoaldunak@gmail.com

**Mutil bila.** 39 urteko mutila naiz eta beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke, ahal bada, gazteagoarekin. Interesa izanez gero, bidali SMS bat telefono honetara: 615 39 82 46.

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako. Interesatuek idatzi *mgpelmaz@gmail.com* helbide honetara.

### 903. DEIAK

**Lekuko bila Bergaran.** Azaroaren 11n, 17:00etan, Bergarako Super Amara supermerkatuaren aparkalekuaren kanpoaldean bi pertsonaren arteko erasoan parte hartu zuen mutil gazte baten bila gabiltza, lekuko moduan epaiketara etortzeko. 657 79 79 35.

### 904. BESTELAKOAK

**Basauri-Gasteiz bidea kotxez konpartitzeko lagun bila nabil.** Lakua inguruan lan egiten dut, eta goizeko 07:15 inguruan irtengo nintzateke Basauritik Gasteizera. Arratsaldean Gasteiztik 17:00etarako irtengo nintzateke Basaurira. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 685 73 17 18. Ana.

**Gasteiztik Arrasatera.** Urtarrilean Gasteiz erdialdetik Arrasatera 22:00etan joateko auto bila nabil. Harremanetanjartzeko telefono zenbaki honetara deitu: 695-70 51 42

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten gara. Momentu honetan 3 pertsona joaten gara auto berean. Bidaia konpartitu nahi duenak deitu. Interesatuek deitu telefonora:635-20 33 14

Aratusteak 2010

**`Magazinea`-an Arrasate eta Aretxabaleta**
Astelehenean, otsailaren 15ean,
19:45/21:15/23:30

**SAIO BEREZIA**
Egubakoitzean, otsailaren 19an, 22:15etan



Goitb
Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 3 | | 9 | |
| | | 3 | 7 | 4 | | | 6 | |
| 4 | 6 | | 2 | | | 3 | | 8 |
| 6 | 7 | 1 | 8 | | | | | |
| | | 9 | 5 | | | | | 6 |
| 2 | 5 | | 9 | | | | | |
| 1 | | | 6 | | | 9 | 7 | |
| 7 | | | 4 | 5 | | | | 3 |
| 8 | | 4 | | 7 | | | | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



- Harginen lanabesak / Oherako jantzia
- Zarekoak / Hebrear
- Arrain mota / Ingelesez, gizon
- Egur landuak / Betuna
- 1. sakramentua / * Irudiko ontzia
- Intsektu mota / Alpeetako lurraldea
- 1 / Hosto
- Interjekzioa / Larruko gogorrunea
- Marinelen zerrenda / Aurpegiko irekiune
- Atomo kargadun / Bolaleku
- Errioxako herria / Tona

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Emakume izena.




## hizki salda

Antzuolako bost pertsona ezagunen abizenak.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| D | Z | C | U | R | X | I | M | M |
| I | B | A | R | G | U | R | E | N |
| X | U | N | B | E | I | N | R | L |
| F | C | D | Z | B | U | L | I | B |
| X | T | E | Z | E | A | E | N | N |
| E | T | N | U | K | L | I | O | T |
| T | S | D | E | G | T | Z | O | H |
| A | T | O | L | E | D | O | C | S |
| B | E | R | R | A | O | N | D | O |

## soluzioak




| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| D | Z | C | U | R | X | I | M | M |
| I | B | A | R | G | U | R | E | N |
| X | U | N | B | E | I | N | R | L |
| F | C | D | Z | B | U | L | I | B |
| X | T | E | Z | E | A | E | N | N |
| E | T | N | U | K | L | I | O | T |
| T | S | D | E | G | T | Z | O | H |
| A | T | O | L | E | D | O | C | S |
| B | E | R | R | A | O | N | D | O |


**Hieroglifoa:** Elena.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 8 | 2 | 1 | 6 | 3 | 4 | 9 | 7 |
| 9 | 1 | 3 | 7 | 4 | 8 | 2 | 6 | 5 |
| 4 | 6 | 7 | 2 | 9 | 5 | 3 | 1 | 8 |
| 6 | 7 | 1 | 8 | 2 | 4 | 5 | 3 | 9 |
| 3 | 4 | 9 | 5 | 1 | 7 | 8 | 2 | 6 |
| 2 | 5 | 8 | 9 | 3 | 6 | 7 | 4 | 1 |
| 1 | 3 | 5 | 6 | 8 | 2 | 9 | 7 | 4 |
| 7 | 2 | 6 | 4 | 5 | 9 | 1 | 8 | 3 |
| 8 | 9 | 4 | 3 | 7 | 1 | 6 | 5 | 2 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | Z | ■ | Z | ■ | B |
| | | | P | I | J | A | M | A |
| | | | ■ | Z | U | R | A | K |
| ■ | B | ■ | Z | E | D | E | N | A |
| K | A | T | I | L | U | A | ■ | I |
| ■ | T | I | R | A | ■ | R | O | L |
| Z | A | R | A | K | A | R | R | A |
| ■ | I | O | I | ■ | H | A | R | O |
| B | O | L | A | T | O | K | I | A |

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Beharrik ez badaukazu, lan on bat topatuko duzu. Zorizko jokoei esker dirua irabazteko aukera. Bikotekiderik ez badaukazu, harreman bat hasteko pertsona ezagutuko duzu.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Lan bila bazabiltza, hartu lasai, ez duzu eta, oraingoz, zuretzako modukorik topatuko. , Ideia zaharkitu batzuk aldaraziko dizkizun bidai bat egingo duzu.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Ez badaukazu, harremana hasteko moduko baten bat ezagutuko duzu. Lanean, ez duzu behar bezala lan egingo eta nagusiak errieta egingo dizu.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Ez dira egun lasaiak. Ez zaitez geldi geratu, energia soberan izango duzu-eta. Kontuz buruko eta belarriko minekin. Hondartzan eguzkia hartzeak on egingo dizu.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Lagunen batek zutaz esandako gezurrek zure adiskideak ei ziren batzuk utz ditzazun eragingo dute. Maitasun kontuetarako une egokia.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Osasun arazoak direla-eta osagilearenera joan beharko duzu. Saiatu lasaitzen eta atseden hartzen. Diru kontuetan hobeto ibiliko zara aholkuak kontuan hartuz gero.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Bikotekidea badaukazu, beharbada bidaia egingo duzue elkarrekin, arazotxoak konpontzeko; ez badaukazu, harreman polita hasteko moduko pertsona ezagutuko duzu.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Lar zakar jokatzeak liskarrak eragingo dizkizu, bikotekidearekin eta inguruko baten bati kalte egin diezaiokezu. Normalean baino alaiago ibiliko zara.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Bikotekiderik ez badaukazu, baliteke bidaiaren baten norbaitekin lotzea. Baliteke, aukera emankorrak ekarriko dizkizun lan baten inguruko berri onak jasotzea.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Ohiko medikuntzak osatuko ez dizkizun osasun arazoak direla eta, bestelako sendabideetara jo beharko duzu. Triste samar ibiliko zara.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Ohi baino asti gehiago edukiko duzu zure kontuetarako, eta etxea apaintzeko erabiliko duzu. Bikotekidea badaukazu, zoriontsu ibiliko zarete elkarrekin

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Zuretzat oso berezia izango den eta zure zaletasun berberak dituen pertsona ezagutuko duzu. Baina ez ezazu amets askorik egin...

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Eurobekak.** Obra Social Caja Madrid. Lanbide Heziketako ikasle eta tituludunei lan-esperientzia eskaintzeko a da helburua 100 Eurobeka Erresuma Batuan edo Irlandan 7 asteko praktikaldia egiteko. Epea: otsailaren 19a.

**> Hezkuntza proiektuak.** Eduardo Chillida-Pilar Belzunce Fundazioa. Arte ederretako, artearen historiako, pedagogiako edo antzeko ikasketetako lizentziadunak edo bigarren zikloko ikasleak eta deskribatutako ezagutza arloetan esperientzia egiaztatuta duten pertsonak. Beka hau Eduardo Chillidaren obraren alderdi guztiak ezagutzera emateko hezkuntza-proiektu baterako da. Proiektuaren xedea 8-12 urte bitarteko adintartean daudenentzako tailerra prestatzea da Eduardo Chillidaren sortze-lanaren prozesua ezagutzeko. Epea : apirilaren 30a.

**> Ikasketak.** La Caixa fundazioak 273 beken deialdia egin du Espainian, Estatu Batuetan,Kanadan, Chinan, Indian eta Europako herrialde ezberdinetako goi hezkuntzako ikastegietan ikasteko.

**LANA**

**> Begiraleak.** Caixa Fundazioa. Caixa fundazioak Donostian "drogetaz hitz egin dezagun egingo duen erakusketan lan egiteko bi begirale behar ditu, martxoaren 10etik apirilaren 11era. Baldintzak: begirale bezala esperientzia izatea, bereziki gazteen alorreko eskuartze eta hezkuntza programetan drogamenpekotasunaren alorrean. Euskaraz jakitea.

**> Gazte informatzailea.** Egoibarko Izarra. Unibertsitateko diplomatura, goi mailako batxilerra edo LHIIko ikasketak izatea, herritarra izatea, aisialdian, haurtzaroan zein gazteriaren alorretan prestakuntza espezifikoa edo eta alor horretan lan eskarmentu akreditatua izatea, EGA titulua edo baliokidea. Epea: martxoak 1.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 15



**> Zikloturismo proba Bergaran, 'Harmailatik'-en 22:15**

Bergarako zikloturismo probaren antolatzaile Unai Asurmendi eta Garikoitz Arregi izango dira *Harmailatik* saioan.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Onein.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Sakonduz.
**18:45** Ilunpean.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kiroleroak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 16



**> Martin Garitano kazetaria, 'Ilunpean' saioan 22:15**

Martin Garitano kazetari bergararra elkarrizketatuko du Jon Bereziba-rrek. *Gara* egunkarian eta Info 7 irratian dihardu.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Kurtulzulo.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 17



**> Lazkao Txiki eta Txirrita, marrazki bizidunetan 13:15, 17:15, 19:15**

Lazkao Txiki eta Txirrita pertsonaien abenturekin gozatzeko aukera izango dute etxeko txikienek, hainbat emanalditan.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Kiroleroak.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Ilunpean.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**23:00** Kalekantoi
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 18



**> Euskal Herriaren itsas historia ezagutzeko 22:15**

*GipuzkoaKultura* saioak Donostiako ontzi museoa eta Pasaiako *Ondartxo* ontziolak gerturatuko dizkigu oraingo astean.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Erloklip.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Kalekantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Euskaldunak hizketan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo->Eskuokin.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 19



**> Aratusteen gaineko saio berezia 22:15**

Aratuste jaiek Debagoienean utzi dituzten mozorro eta ospakizun onenak gerturatuko dizkigu Goiena Telebistak.

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Euskaldunak hizketan.
**14:15** On ein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta Lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gipuzkoa kultura.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz. (Aratusteak).
**22:45** Kiroleroak.
**23:15** Kalekantoi.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> UK Subs-en kontzerturako eta 'Kri, Kra, Kro' antzezlanerako sarrerak**

3Aretoan UK Subs taldeak egingo du kontzertua, Vibrators eta Disorders taldeekin batera, zapatuan. Egun berean, *Kri, Kra, Kro* umeendako ikuskizuna egingo du Teatro Paraiso taldeak Amaia Antzokian. Bi ekitaldiotarako sarrerak zozketatuko ditu Arrasate Irratiak. 943 25 05 05 telefonoan parte har dezakezue.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**AUDIENTZIA** > ESTREINALDIA

# Pilar Rubiok ez du Anne Igartibururen azken marka ondu '¡Mira quién baila!'-n

Orain Telecincok ematen duen dantza lehiaketak 3.573.000 ikus-entzule izan zituen bere estreinaldian

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Telecinco katearí ondo irten zaio bere apustu berriena; oraingoz, behintzat. Iaz arte Television Españolak emititzen eta Anne Igartiburuk aurkezten zuen famatuen dantza lehiaketa, *¡Mira quién baila!*, 3.573.000 ikuslek jarraitu zuten Telecincoren estreinaldian, eguaztenean. Aurreko denboraldiko estreinaldiaren marka ez zuen ondu: hark 181.000 ikusle gehiago eta 1,8 puntu gehiago izan zituen; baina 5. (3.473.000 ikusle) eta 6. (2.284.000 ikusle) denboraldien hasierek baino emaitza hobea izan zen. Oraingo erakarpen handienetako bat da Belen Esteban famatua zelan moldatzen den ikustea, batez ere kontuan izanda koinatu ohia, Victor Janeiro, beste lehiakideetako bat dela.

**ANTENA3, EZ HAIN ONDO**

Gau berean, Antena3 kateak *La última guardia* filma eman zuen, *Farmacia de guardia* telesailaren 20. urteurrena gogorarazteko. Bada, produktu hori dezente promozionatu eta iragarri arren, kateak ez zuen nahi adinako emaitza lortu, eta 3.122.000 ikusle eta %16,2ko pantaila-kuotarekin konformatu behar izan zuen.

## telealbisteak

> ESTREINALDIA

### Huhezinema film jaialdia, ETB3ko saio espezializatu berrian

Euskal Telebistaren 3. kateak film laburrendako saioa estreinatu zuen joan den egubakoitzean. Hilean behin emitituko dute, 23:00etan. Hainbat tarte izango ditu saioak: albisteak, elkarrizketa, erreportajeak eta film laburrak emango ditu. Lehenengo saioan, besteak beste, Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateak antolatzen duen Huhezinema film jaialdiaren gainean jardutekoak ziren; eta baita Kimuak egitasmoaz eta Animabasauri, Nontzefilmak eta Zinegoak jaialdiaren barruan aurten lehenengo aldiz egin den *El show del Txistu* delako aukeraketaz. Horrez gain, Sundance nazioarteko film jaialdi ezagunaz ere jardutekoak ziren.

Huhezinema Ikus-entzunezko departamentuko irakasleen eta ikasleen artean antolatutako ekimena da.

> MARRAZKI BIZIDUNAK

### 'Las tres mellizas' berriz TVEn, eta euskaraz, ETB3n

Television Española kateak aurrera jarraitzen du saio zahar ezagunak berpizten: *El hombre y la Tierra* eta *La bola de cristal* dira horren bi adibide. Bada, joan den astetik aurrera, La2 bere bigarren katean, *Las tres mellizas* marrazki bizidunak berriz ematen ditu TVEk. Euskal Herrian ere arrakasta du saioak, eta ETB3 kateak ematen du euskaraz: *Hirukiak*.

Ekoizpen katalana da jatorriz, eta arrakasta handia izan du nazioartean ere: hala, 35 hizkuntzatara itzuli da. Orain, Anna, Teresa eta Helena ahizpen abenturak *Los Lunnis* saioan (La2) eta Clan TVE kate espezializatuan ematen dituzte Espainian.

Bolada nostalgiko horreta, TVEk orain mende erdi jendartea, moda, telebista… zelakoak ziren gogora ekartzen ditu, *50 años de…* saioan.

## zorion agurrak


OÑATI
**Julen Barrena Alzelai**
Otsailaren 6an, 26 urte. Zorionak, *guapeton*! Ondo pasatu eguna, eta txokolatadia zure kontu, e? Muxu haundi bat familixian partetik.


ARRASATE
**Nerea Losa, Oier Manjon eta Aimar Ercilla.**
Nereak otsailaren 7an, 6 urte; Oierrek otsailaren 8an, 5 urte; Aimarrek otsailaren 13an, 3 urte. Arizmendi, Arima Zubiko lagun eta Argitxoren partetik, mila kilo zorion!


ARRASATE
**Intza Ezpeleta Sanpedro**
Otsailaren 9an, 2 urte. Zorionak eta muxu goxu-goxuak bigarren urtebetetzean gure matrakatxoarentzat etxeko guztien eta, bereziki, Lideren partetik.


ARETXABALETA
**Oxel Vázquez Puerto**
Otsailaren 10ean, 13 urte. Zorionak anaia eta gurasoen partetik.


ARETXABALETA
**Naroa Urtaza Urzelai**
Otsailaren 11n, 6 urte. Zorionak, *guapa*! 6 urte; ze handia! Patxo bat aitatxo, amatxo eta bereziki Ikerren partetik.


OÑATI
**Iradi Belategi**
Otsailaren 12an, 3 urte. Zorionak, pizpirri. Muxu handi bat aita, ama eta Haitzen partetik. Ondo pasatu zure egunien. Muak!


ARRASATE
**Oier Axpe Garro**
Otsailaren 12an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat etxekoen partetik.


ARRASATE
**Olatz Maidagan**
Otsailaren 13an, 5 urte. Zorionak, laztana! Oso ondo pasatu eta patxo handi-handi bat Kepa, aitatxo eta amatxoren partetik.


ESKORIATZA
**Josu Alegria Beitia**
Otsailaren 13an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.


ARETXABALETA
**Zuhaitz Errasti**
Otsailaren 13an, 29 urte. Zorionak, Zuhaitz! Aupa gaztiok, eutsi horri! Euskal Herriko mendietako haizerik freskoena zuentzako! Izugarri maite zaituztegu! Lortuko dugu! Duda ala? je, je, je!


ARRASATE
**Mikel Ibarguen**
Otsailaren 13an, 23 urte. Zorionak etxekoen partetik!


BERGARA
**Saioa Galarraga Pardina**
Otsailaren 13an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.


ARETXABALETA
**Kepa Urra**
Otsailaren 13an. Zorionak, Kepa! Segi orain arte bezain umoretsu, osasuntsu eta animoz beterik! Izugarri maite zaitugu! Euskal presoak etxera orain! Lortuko dugu! Aurrera bolie!


ANTZUOLA
**Unax Errasti Urteaga**
Otsailaren 15ean, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako, pirata. Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu goxo bat etxekoen partetik.


ARRASATE
**Erik Delgado Ugarte**
Otsailaren 15ean. 3 urte. Zorionak, txapeldun ! Oso ondo pasatu zure egunean eta muxu handi bat Ane, aitatxo eta amatxoren partetik.


BERGARA
**Usue Bernal Varela**
Otsailaren 16an, 2 urte. Amama bien, aitona bien, izeba-osaben eta etxekoen partetik zorionak.


OÑATI
**Irati Pelayo**
Otsailaren 16an, 2 urte. Zorionak, printzesatxo! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu pila bat etxeko danon eta, batez ere, Aneren partetik.


ARETXABALETA
**Doltza Lizarraturri Etxenausia**
Otsailaren 16an, urtebete. Zorionak bihotzbihotzez gure etxeko printzesa txikienari! Txokolatezko patxo goxo-goxo bat zure ahizpa Araitzen partetik. Urte askotarako, prexioxa!


ARRASATE
**Iban Manso Gomez**
Otsailaren 16an urtebetetzea. Zorionak, Iban, eta muxu handi bat familia guztiaren partetik. Ondo-ondo pasatu eguna!


ESKORIATZA
**Bogdan Cabeza Davila**
Otsailaren 16an, 4 urte. Zorionak eta ondo pasatu eguna etxeko guztien partetik. Muxu handi bat.


OÑATI
**Maider Murillo Astigarraga**
Otsailaren 16an, 12 urte. Zorionak! Familia guztiaren partetik, batez ere Ander, ama eta aitaren partetik. Ondo pasatu zure egunean eta muxu handi bat.


OÑATI
**Liher Sancho**
Otsailaren 17an, 6 urte. Zorionak, potxolo! Egun zoriontsua izan dezazula opa dizugu etxeko guztiok. Muxu handi bat.


OÑATI
**Ander eta Maialen Altzelai Santa Cruz**
Anderrek otsailaren 18an eta Maialenek 22an. Zorionak, Ander eta Maialen! Muxutxuak familixakuen partetik!


ARETXABALETA
**Ainhoa Calleja Andonegi**
Otsailaren 18an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat guapisima, etxeko guztion partetik.


ARAMAIO
**Euken Ugarte**
Otsailaren 18an, 18 urte. Zorionak, Euken! Etxekoen partetik. Ederto zelebrau, 18 eztie egunero beteten eta!


OÑATI
**Ianire Diaz**
Otsailaren 19an. Iani! Zorionak, *guapi*! Ondo pasatu zure eguna eta belarrittatik tirakada handi bat.


BERGARA
**Marel Berecil Antón**
Otsailaren 20an, urtebete. Zorionak, maitia. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat familiakoen partetik.


ARRASATE
**Maider Irazola Mungia**
Otsailaren 20an, 4 urte. Zorionak, printzesa larroxa, etxekoen partetik.


ARETXABALETA
**Dorleta Urkia**
Otsailaren 20an, 9 urte. Zorionak etxeko guztien partetik eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean.


BERGARA
**Eider Moncayola**
Otsailaren 21ean, 12 urte. Zorionak etxekoen partetik.


OÑATI
**Haizea Frutos Martinez**
Otsailaren 21ean, 3 urte. Zorionak, potxola! Hiru urtetxo gure sorgintxoak. Muxu handi bat amatxo eta aitatxoren partetik. Ondo pasatu eguna!


BERGARA
**Iker Perez Marzan**
Otsailaren 21ean, urtebete. Zorionak eta muxu gozo-gozoak zure lehen urtebetetzean, asko maite zaitugulako. Naia, ama eta aitaren partetik.


ARETXABALETA
**Xabier Biain**
Otsailaren 21ean, 39 urte. Zorionak, tio Xabi! Zorionak, aitatxo! Nun erosikou horrenbeste kandela? Pastel handixa ipini beharkozu...edo bestela zuk dakitzun magia trukoren bat in eta urteak kendu! Muaka, muaka June, Malen, Ekaitz, Julen, Nagore, Jokin eta Landerren partetik.


OÑATI
**Uxue eta Anartz**
Asteazkenian, hilak 17, Uxueren eguna da. 3 urte egiten ditu. Ostegunian, 18, berriz, Anartzena. 37 urte. Zorionak aitatxo eta Uxue . Marrubizko eta txokolatezko patxuak bixori.

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera jasotakoak datorren hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ESKER ONA

## Teresa Etxabe Maskariano

Arrasaten hil zen 2010eko otsailaren 9an, 91 urte zituela.



Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2010eko otsailaren 15ean.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera.

**Eskelaren prezioa: 120 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **160** euro.

**Goienkaria: astero, 41.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



## kuxkuxeroa



Txomin Madina

# Ibarra Siberiaz jantzi zenekoa

Ez naiz ni Aratusteen oso zalea, baina aitortu behar dut polita izan dela astebururuan jendea, asko landutako arropak eta karrozak hartu eta, kalean ilusioz beteta ikustea. Ilusioz, eta graduazio ezberdineko edariz, noski...

**Aita Santurik** ikusi dugu bere autoan goxo-goxo, baita Olinpoko jainkoak ere. Guardia zibilak, balea-arrantzaleak, **Oskorriren** bertsio berezia... **Pedro Lasagabaster** Eskoriatzako alkatea ere (edo **John Travolta** esan behar?) dotore asko ikusi genuen desfilean dantzan! Horiek orijinalen artean. Baina nola ez, ezin falta txinatarrak, mexikarrak, afrikarrak eta gainerako munduko herriak. Mozorrotuko al dira eurak poxpolin edo baserritarrez?

Mozorrotu behar hori Debagoieneko paisaia eta termometroetara ere etorri da: zelaiak eta teilatuak zuri, termometroak uneoro hiru graduren azpitik, **Siberiaren tankera** hartu du gureak! Sardinaren hiletarekin, eman ahalko diegu atseden eskularru, beroki eta botei? Ruperrek ezagun egin duen garizumako haizea izan dadila hegoaldetik datorrena!

Bizitza baina, ez da Aratusteetan amaitzen. Egubakoitz gauean, **Inaxio Garro** Aretxabaletako alkateak ez zuen herriko taldeek Arkupen emandako kontzertua galdu gura izan. Eta ez dakit hotzetik ihesi edo telebistako izarrei segika, baina gau berean lepo bete zen Oñatiko Santa **Xabinaitorren** abenturak jarraitzeko. Han egon zen **Lourdes Idoiaga** alkatea, baita beste hainbat alderditako zinegotzi eta jarraitzaileak ere. Eta denak barre-algaraka... Bejondailea **Alkain eta bere *troupé*-ari**, behingoan denak ados jartzearren!

> **" Eskoriatzako alkatea desfilean, Aretxabaletoa kontzertuan eta Oñatikoa, antzerkian"**

## ast4buruko albuma





**Emanaldi arrakastatsua.** Txiki geratu zen egubakoitzean Aretxabaletan Arkupeko aretoa Or2tan eta Grupo San Juan taldeen kontzertura joandako guztiak hartzeko. Herritarrek harrera beroa egin zieten etxeko taldeei, eta musikariek emanaldi politaz eskertu zuten hori. Abesti propioak eta bertsioak, alaiagoak eta intimoagoak entzun ahal ziren bi emanaldietan zehar, eta kontzertua amaitzean ikusleek alde egiten ez zutela ikustean, Or2tanekoak berriz ere igo ziren agertokira doinuetako bat era akustikoan jotzeko.

## jaiotakoak



**Oxel Alcalde Chico**
Arrasate > 3,460 kilo. Otsailaren 7an. Gurasoak: Almudena (Gasteiz) eta Iñaki (Arrasate). Argazkian, Oxel jaioberria, amarekin.



**Izadi Bellido Nuñez**
Arrasate > 2,760 kilo. Otsailaren 8an. Gurasoak: Iratxe (Bilbo) eta Eneko (Arrasate). Argazkian, Izadi jaioberria, gurasoekin.



**Igor Serrano Kapelastegi**
Elorrio > 3,580 kilo. Otsailaren 7an. Gurasoak: Bakarne (Elorrio) eta Jose (Bergara). Argazkian, Igor jaioberria, sehaskan lo.

BABESLEA


Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO
Goienkaria

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2010-02-15

**Martin Garitano** > Kazetaria

# "Prentsa irakurtzeko amorruz esnatzen naiz"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

**Gutako asko iratzarri eta begimakarrak kentzen hasi orduko Martin Garitano bergararrak ondo irakurri eta aztertuta izaten du eguneroko prentsa. Horixe egiten du Info7 irratian goizero ibilbide luzeko kazetari honek, *Kalegorrian*.**

**Kafea gehi prentsa, egunari heltzeko modurik onena?**

Hobe erredakzioan daukagun makinako kafea hobea balitz baina gaurkotasuna, iritziak eta, oro har, prentsa irakurtzeko amorratzen esnatzen garenontzat ez da hasteko modurik txarrena.

**Hedabide erraldoien garaian arrain txikia zarete Info7-n?**

Espazioa ez da arazoa. Hedabide erraldoi horiek euren espazioa beteko dute eta entzuleria erraldoi horiek lortuko. Baina, ezin izango dute guk bete nahi duguna bete. Ezin izango dute Euskal Herriko errealitatea bere osotasunean irudikatu. Apalak behar dugu izan, baina Euskal Herria nazio bat dela ezagutu nahi ez dutenek sekulako espazioa uzten digute. Nahiz eta hedabide erraldoi horiek, oraindik, konturatu ez.

**Askota dira EITBren ildo aldeketaz kexatzen direnak.**

Laster batean espainiar lejioko ahuntza ere solaskide agertuko delakoan nago EITBn. Baina ni lanean hasi nintzenetik ez dut behar bezelako iritzi aniztasunaren errespetua ezagutu.

**SOSLAIA**

## Iritzien espazioa

Garitanok dio berak *Egin* egunkarian ezagutu zuela benetako iritzi aniztasunarekiko errespetua: "Horrek azkenean egunkaria bera ixtea eta bere arduradunak kartzelaratzea bultzatu zuen". Egunkaria eta irratia itxi zituzten eta *Euskadi Información*-en gidaritza hartu zuen. *Gara*-n dihardu egun eta Info7 irratian goizero. Lekua guztiontzat dagoela uste du, "Einsteinek bere teoriak zabaldu zituenetik eta Oteizak bere ideiak gureganatu zituenetik, espazioa ez da arazoa".

***Egunkaria*-ko epaiaren zain, nola gogoratzen dituzu *Egin* itxi zuteneko garaia?**

Franco hil eta gero gauzak erabat aldatu zirela uste zutenek zera ikusi zuten *Egin*-en itxierarekin, Euskal Herrian espainiar totalitarioen egiazko asmoak zeintzuk diren. Babes-sozial handia izan genuen orduan. Espainiar Audientzia Nazionalaren epaietaz fidatzen ez naizen horietakoa naiz eta orain –euskara dela aitzakia, Patxi Lopezen *vasquismoa* dela medio edo dena delakoa– bidegabekeria batetaz aritzen direnak eta aurrekoaz isil-isilik egon direnetaz ere ez naiz batere fidatzen. Espainiar inperioa beti saiatu da euskaldun on eta gaiztoen arteko zatiketa egiten. Aspaldikoa da, baina honezkero ikasia dugu lezioa.

**Arinkeria bat utziko didazu amaitzeko. Zertaz mozorrotuko zara aurten?**

Ba... pirataz mozorrotuko naiz. Azken finean mozorroa norberaren izakera ere isladatu edo erakutsi behar duen janzkera bat baino ez da [Barre].



*Kalegorrian* saioa gidatzen du Info7 irratian Garitanok. GOIENKARIA

### ai, ene!



**Abileziaren bat...**

Abilezia ezberdinak dituzten pertsonak batu dituzte honako webgune honetan, eta denetariko adibideak daude. Gizon honek gogotik egin behar izan du gaitasun hori talentu bilakatzeko...

http://www.woondu.com

### biharamuna

**Oier Bolibar**

## 'Pinocchio mort'

*Pinocchio mort* du izena Miquel Barceló-ren brontzezko eskulturak, sudur luzez atondutako garezurrak alegia. Atentzioa deitu zidan aste honetan inauguratu den bere atzera-begirako erakusketako lanen artean Pinocchio-ren garezurra ikusteak. Ez dakit momentu hartan burutik pasa zitzaidana, hildakoak gezurrak berarekin eramaten zituela izan zen, edo eta egia berak eraman zuen bitartean, besteok gezurrez inguratuta bizitzen utzi gintuen, ez dut gogoan.



Txotxongilo bat baino ez zen ordea. Batzueri esku beltzek ematen die bizia eta beste batzueri berriz urrutira ikusten ez diren hariek. Baina beti norbaitek eraginak dira, norbaitek antolatu, neurtu, lerrotu eta agintzen ditu beraien mugimenduak. Ikusten ez dugun norbaitek, beti ere aurrean duen itxurazko bizidunaz baliatuz helburu zehatz batzuk lortu ahal izateko; norbaiten izenean, zerbaiten izenean, zerbaitetarako. Eta ez dugu urrutira joan beharrik txotxongiloak antzezten ikusteko, berezko bizia balute bezala, baina beti ere xede konkretu baten bilaketa etengabean. *Pinocchio mort*, atzean, itzalean dagoena gailentzen denean.

### eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +04 | -03 |

Astelehenean goizean goiz izotz handia botako du. Egunez termometroek gora egingo dute, baina hotzenak oso baxuak izango dira.

www.euskalment.net

iKER

SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Babes ofizialeko etxeetarako
eskaintza bereziak

